

Portadako irudia: DAGL α (berdez) eta lamina B1 (gorriz) proteinen immunomarkaketa nuklearra arratoi helduaren garun-kortex somatosensorialeko V. geruzaren neurona batean. Kromatina Hoechst 33342 konposatuarekin tindatu zen (urdinez). Irudiaren iturria: García del Caño et al., 2015 (alearen portada irudia).



**2-ARAKIDONILGLIZEROL ENDOKANNABINOIDEAREN SINTESI- ETA
DEGRADAZIO-MAKINERIA NEURONAREN NUKLEOAN:
DIAZILGLIZEROL LIPASA α -REN KONPARTIMENTAZIOA ETA
AKTIBITATE ENTZIMATIKOA**

Zuzendariak: Gontzal García del Caño eta Sergio Barrondo Lakarra Doktoreak.

Xabier Aretxabala Rodriguez

Vitoria-Gasteiz, 2017

Tesi hau helmugatzat duen ibilbidea luzea izan da. Ibilbide luze guztiak bezala, bizipen asko izateko aukera. Bada denbora karrera bukatu nuenetik pasa den hamarkadaren amaieran. Garai haietan oraindik ez nuen ikerketaren munduarekin inolako harremanik. Karrera bukatu eta botika batean egin nahi nuen lan. Probatu eta mundua irauli zitzaidan, ez nuen nire burua *per secula seculorum* botikario lanetan ikusten. Orduan masterra egitearen ideia burua zeharkatu eta Neurozientzietako masterrak atentzia deitu zidan. Karreran ikasitako ezagutzei aplikazioa emateko irtenbide ezin hobea, eta, gustuko izatekotan, ikerketa munduan frogatzeko aukera. Masterrean murgilduta genbiltzan Gontzal García del Caño doktorea biologia molekularreko tekniken klasea emateko klaseko atea zeharkatu zuenean. Irakasle zorrotza, baina zertaz ari den dakien horietakoa, zorroztasuna bertute beraz. Eta gustuko dut hori. Berarekin master bukaerako lana egitea erabaki nuen. Horrela sartu nintzen Joan Sallésen ikerketa taldean. Bertan Sergio ezagutu nuen eta Gontzalekin batera nire tesia zuzentzea erabaki zuten. Garai latzak haiiek, krisiaren hastapenak gurean, eta tesi lan bat egin ahal izateko finantziaketarik ezin topatu. Beraiek, beti animatzen eta oso estimagarria den “Iasai, Xabi, lehenbailehen zerbait topatuko dugu eta!” batekin. Heldu bitartean, U87 astrozitoekin borrokan hasi ginen.

Gure taldearen ikerketa lerroa aspaldidanik sistema endokannabinoidea izan da. Nerbio Sistema Zentralean kokatutako sistema endokannabinoidea. Garai hartan oso bogen zegoen gaia sistema honen hartzailen arteko heteromerizazioak ziren, horregatik pronostiko oso txarreko glioma (astrozitoma) bateko zeluletan izan zezaketen garrantzia ikertzen hasi ginen. U87 astrozitoekin asko borrokatu ostean, gauzak ez ziren nahi bezala joan eta jatorria bueltatu egin ginen, master bukaerako lanean jorratutako gaira, orain dela erlatiboki gutxi aztertzen hasi den gaira: neuronaren nukleoan sistema endokannabinoidearen ikerketara.

Garai oso onak izan dira laborategian bizitakoak, asko ikasi dut, ez bakarrik ikerketa zientifikoaren inguruan, baizik eta bizitzako beste hainbat esparruren inguruan ere. Bizitza osorako iraungo duten lagun onak egin ditut. Eskerrik asko ibilbide guztian lagundi nauzuen guztiei. Eskerrik asko Gontzal eta Sergiori zientzia irakasteagatik, eta Joan eta Maiderrekin batera ikerketa taldearen baitan hartzeagatik. Eskerrik asko Imanol, Mario, Ana, Miquel, Amaia eta Leireei, laborategiko garaipen eta porrotak konpartitzeagatik. Zeresanik ez, nire eskerririk beroenak familiakoei, daudenei eta joan zirenei. Eskerrak Eneritzi, egunero Jekyll Doktore eta Mr Hyde naizen hori jasateagatik. Eskerrik asko koadrilikoei eta urte hauetan bide lagun izan zaituztedan **guztiei**, tesi honen parte ere bazarete eta.

Finantziazioa:

- Ez-Dokotore Ikerlari Kontratua. UPV/EHU. 2013-2014.
- Jesús de Gangoiti Barrera Fundazioaren Dirulaguntza. 2015-2016.
- Euskal Unibertsitate Sistemaren Ikerketa Taldeak. Eusko Jaurlaritza: IT-330-10, IT-589/13, IT-921-16
- SAIOTEK Programa. Eusko Jaurlaritza. S-PE11UN124, S-PE11UN125.
- Instituto de Salud Carlos III, Centro de Investigación Biomédica en Red de Salud Mental, CIBERSAM.
- Prestakuntza eta Ikerkuntzarako Unitateak. UPV/EHU. PIU11/35.

AURKIBIDEA

I. SARRERA	1
1. Diazilgizerol Lipasa Aktibilitatearen Aurkikuntza. Entzimen Identifikazioa eta Karakterizazioa.....	3
2. DAGL Aktibilitatearen Garrantzia Seinaleztapen Endokannabinoidean.....	4
2.1 Sistema Endokannabinoidearen Funtzionamendua.....	4
2.2 DAGL Aktibilitatearen Menpeko Seinaleztapen Endokannabinoidea: DAGLa Isozimaren Garrantzia.....	6
3. DAGL Isozimen Egitura-Ezaugarriak.....	8
3.1 Mintz-zeharreko Domeinuak	8
3.2 Domeinu Katalitikoa	9
3.3 DAGLa-ren Karboxi Buztana.....	11
4. DAGLa Isozimaren Menpeko 2-AG Sintesia. Funtzio Fisiologikoak	11
4.1 DAGL Aktibilitatearen Rola Axoien Hazkunza eta Gidatze Prozesuetan.....	12
4.2 DAGLa Isozimaren Rola Garun Helduaren Neurogenesian.....	13
4.3 DAGLa Aktibilitatearen Rola Plastikotasun Sinaptikoan	15
5. 2-AG Kontzentrazioaren (METAKETAREN?) Erregulazio Mekanismoak	16
6. PLCβ/DAGLa Seinaleztapena Nukleoan	18
II. HELBURUAK	21
1. DAGLa Entzimaren Espresioa Arratoi Helduaren Garun-Kortexean Aztertzea.	23
1.1 DAGLa-ren aurkako antigorputzen espezifikotasunaren balioestea.	23
1.2 Immunohistokimia- eta immunofluoreszentzia-tekniken bidez, DAGLa-ren banaketa garun-kortexean aztertzea.	23
2. DAGLa Entzimaren Espresioa Garun-Kortexeko Mintz Zelularretan eta Nukleo Osoetan Aztertzea.....	23
2.1 DAGLa-ren konpartimentazioaren azterketa garun-kortexetik isolatutako mintz zelularretan.	23
2.2 DAGLa-ren expresioa garun-kortexeko nukleo neuronaletan aztertzea.	23

3. DAGLα-ren Konpartimentazio Azpinuklearra Garun-Kortexeko Nukleo Neuronaletan Aztertzea.....	23
3.1 DAGL α -ren konpartimentazioa garun-kortexeko nukleo azpifrakzioetan aztertza.....	23
3.2 DAGL α -ren konpartimentazioa nukleo osoetan immunofluoreszentzia bidez aztertza	24
3.3 DAGL α -ren eta PLC β isozimen ko-konpartimentazioa nukleo osoetan aztertza.....	24
4. PLCβ eta DAGLα Aktibitateen Menpeko 2-AG Ekoizpen Endogenoa Garun- Kortexeko Nukleo Osoetan Aztertza.....	24
4.1 m-3M3FBS konposatuak estimulatutako 2-AG ekoizpen endogenoa nukleo osoetan aztertza.....	24
4.2 Kaltzioak bultzatutako 2-AG ekoizpen endogenoa nukleo osoetan aztertza.....	24
5. DAGL Aktibitatearen Menpeko 2-AGren Ekoizpen-Zinetika Garun- Kortexeko Nukleoaren Matrizean Aztertza.....	24
6. 2-AG Degradazio Entzimatikoa Garun-Kortexeko Nukleoaren Matrizean Aztertza.....	24
6.1 2-AG degradazioan implikaturiko entzimen expresio eta konpartimentazio nuklearra aztertza.....	24
6.2 2-AG degradazioan implikaturiko entzimen aktibitatea matrize nuklearrean aztertza.....	24
III. MATERIALAK.....	25
1. LEGIN BIOLÓGIKOAK	27
1.1 Immunohistokimia eta Immunofluoreszentziarako Laginak.....	27
1.2 Immunoblot, eta Kromatografia Likidoari Lotutako Masa Espektrometria (LC/MS)	27
1.3 Zelulen Kultura eta Transfekzioa.....	28
2. Material Fungiblea	28

AURKIBIDEA

2.1 Erreaktibo Orokorrak	28
2.2 Erreaktibo eta Material Espezifikoak	29
2.2.1 Immunohistokimia	29
2.2.2 LC-MS/MS	30
2.2.3 Western Blot	31
2.3 Antigorputz Primarioak	32
2.4 Antigorputz Sekundarioak	33
2.5 Suero Normalak	33
IV. METODOAK	35
1. Garun-Kortexaren Frakzionamendu Prozedurak	37
1.1 Mintz Gordin (P2), Nukleo Gordin (P1) eta Zitoplasma (Cyt) Frakzioak Garun-Kortexetik Isolatzeko prozedura	37
1.2 Garun-Kortexeko Mintzak Frakzionatzeko Prozedura.....	39
1.3 Garun-Kortexeko Nukleo Osoak Isolatzeko Prozedura.....	41
1.4 Garun-Kortexeko Nukleo Osoen Azpifrakzioen Banaketa.....	43
2. Proteina Kontzentrazioaren Estimazioa Garuneko Laginetan.....	46
2.1 Proteina Kontzentrazioaren Estimazioa: <i>Bradford</i> Metodoa.....	46
2.2 Proteina Kontzentrazioaren Estimazioa: Azido Bizinkoninikoaren Entsegua	47
3. Immunohistokimia Arratoiaren Garun-Kortexeko Ebaketa Histologikoetan	49
4. Western Blot Protokoloa	50
5. Immunofluoreszentzia eta Mikroskopia	51
5.1 Immunofluoreszentzia Arratoiien Garun-Kortexeko Nukleo Osoetan.....	51
5.1.1 Nukleozen Zenbaketa eta Ereinketa.....	51
5.1.2 Immunofluoreszentzia Prozedura	52
5.2 Immunofluoreszentzia Arratoiien Garun-Kortexeko Ebaketa Histologikoetan.....	53
5.3 Immunofluoreszentzia Transfektatutako Zeluletan.....	53

5.4 Immunofluoreszentzia-Markaketaren Azterketa	54
6. LC-MS Bidezko 2-AG Metaketaren Neurketa	55
6.1 Baldintza Esperimentalak	55
6.2 Metabolito Lipidikoen Detekzio eta Kuantifikazioa	57
6.2.1 Diluzio Isotopikoa Adizioarekin	57
6.2.2 Diluzio Isotopikoa	58
V. EMAITZAK	59
1. DAGLα Isozimaren Aurkako Antigorputzen Hautaketa	61
1.1 DAGL α -Immunomarkaketaren Distribuzioa Garun-Kortexean	61
1.2 DAGL α -ren Aurkako Antigorputzen Espezifikotasun Frogak	65
2. DAGLα-ren Espresioaren Azterketa Arratoi Helduaren Garun-Kortexeko Mintz Sinaptikoetan eta Nukleo Osoetan	69
2.1 DAGL α -Immunomarkaketa Arratoiaren Garun-Kortexean	69
2.2 DAGL α -ren Espresioa Garun-Kortexetik Isolatutako Azpifrakzioetan	73
2.2.1 DAGL α -ren Espresioa Garun-Kortexetik Isolatutako Mintzen Azipidomeinuetan	73
2.2.2 DAGL α -ren Espresioa Garun-Kortexetik Isolatutako Nukleo Osoetan	76
3. 2-Arakidonil Glizerolaren Sintesi-Makineriaren Konpartimentazioa eta Funtzionalitatea Garun-Kortexeko Neuronen Nukleoan	78
3.1 DAGL α -ren Konpartimentazio Azpinuklearra	78
3.1.1 <i>Immunoblot</i> Analisiak	78
3.1.2 Immunofluorezentzia Bikoitza eta Bereizmen Handiko Mikroskopia Analisiak	81
3.2 PLC β Isozimen Konpartimentazio Azpinuklearra	83
3.3 PLC β eta DAGL α Menpeko 2-AG Ekoizpen Endogenoa Nukleo Osoetan	85
4. Diazilglicerol Lipasaren Aktibitate Entzimatikoa eta 2-AG Hidrolisia Matrize Nuklearrean	89

AURKIBIDEA

4.1 DAGL Aktibilitate Entzimatikoa Matrize Nuklearrean	89
4.2 Serina-Hidrolasa Aktibilitatearen Menpeko 2-AG Degradazioa Matrize Nuklearrean	91
4.3 2-AG Degradazio-Entzimen Espresioa Garun-Kortexetik Isolatutako Azpifrakzioetan	92
4.4 2-AG Degradazio-Entzimen Konpartimentazio Azpinuklearra.....	96
4.4.1 Immunofluorezentzia Bikoitza eta Bereizmen Handiko Mikroskopia Analisiak	96
4.4.2 <i>Immunoblot</i> Analisiak.....	99
4.5 Serina-Hidrolasa Aktibilitate Entzimatikoaren Azterketa Matrize Nuklearrean.....	101
VI. EZTABAIDA.....	103
1. DAGL α arratoi helduaren garun-kortexeko nukleoetan espresatzen da	105
2. DAGL α garun-kortexeko nukleo neuronalen matrizean kokatzen da	108
3. Arratoi helduaren garun-kortexetik isolatutako nukleo osoetan, PLC β /DAGL α ardatzaren menpeko 2-AG emari endogenoa dago	114
4. Nukleo neuronalen ekoitztutako 2-AG-ren ahalezko funtzioak.....	124
VII. ONDORIOAK.....	129
VII. BIBLIOGRAFIA	133
IIX. ERANSKINAK	153

LABURDURAK

15d-PGJ2	15-Deoxy-Delta-12,14-prostaglandin J2
15d-PGJ2-G	15-Deoxy-Delta-12,14-prostaglandin J2 glycerol ester
1-AG	1-Arachidonoylglycerol
2-AG	2-Arachidonoylglycerol
aa	Amino acid
AA	Arachydonic acid
ABC	Avidin-biotin complex
ABHD12	Alpha/beta-Hydrolase domain containing 12
ABHD6	Alpha/beta-Hydrolase domain containing 6
AEA	Anandamide
BCA	Bicinchoninic Acid Assay
BiP	Binding Immunoglobulin Protein
BSA	Bovine Sero Albumin
CAM	Cell Adhesion Molecules
CaMKII	Ca ²⁺ /calmodulin-dependent protein kinase II
CB1	Cannabinoid Receptor 1
CB2	Cannabinoid Receptor 2
cdk	Cicline Dependent Kinase
COPI	Coat Complex Protein I
COX2	Cyclooxygenase 2
DAB	Diaminobenzidine
DAG	Diacylglycerol
DAG	Diacylglycerol Lipase
DAGK	Diacylglycerol Kinase
DAGLα	Diacylglycerol Lipase Alpha
DAGLβ	Diacylglycerol Lipase Beta
DMSO	Dimethyl sulfoxide
DSE	Depolarization-Induced Suppression of Excitation
DSI	Depolarization-Induced Suppression of Inhibition
DTT	DL-Dithiothreitol

eCB	Endocannabinoid
EDTA	Ethylenediaminetetraacetic acid
EGTA	Ethylene glycol-bis(β-aminoethyl ether)-N,N,N',N'-tetraacetic acid or egtazic acid
EMEM	Eagle's Minimum Essential Medium
ER	Endoplasmatic Reticulum
ERK	Extracellular – signal regulated kinases
FAAH	Fatty Acid Amide Hidrolase
FGF	Fibroblast Growth Factor
FGFR	Fibroblast Growth Factor Receptor
GABA	Gammaaminobutiric Acid
GAP	GTPase Activating Protein
GAP-43	Growth Associated Protein 43
GDP	Guanosine diphosphate
GFAP	Glial fibrillary acidic protein
GPCR	G protein coupled receptor
GTP	Guanosine triphosphate
HA	Hemagglutinin
HEK293	Human embryonic kidney cells 293
HRP	Horseradish peroxidase
IGF-1	Insulin-Like Growth Factor
IP3	Inositol 1,4,5-triphosphate
JZL184	4-nitrophenyl-4-[bis(1,3-benzodioxol-5-yl)(hydroxy)methyl]piperidine-1-carboxylate
KO	Knockout
LC-MS	Liquid Chromatography–Mass Spectrometry
LTD	Long Term Depression
LTP	Long Term Potentiation
MAFP	Methyl-arachidonyl fluorophosphonate
MAGL	Monoacylglycerol Lipase
MAPK	Mitogen Activated Protein Kinase
MEL	Murine Erythroleukemia
mGluR	Metabotropic Glutamate Receptor

mRNA	Messenger Ribonucleic Acid
MSE	Metabotropic-Suppression of Excitation
MSN	Medium Spiny Neuron
NAM	N-Arachidonyl Maleimide
NAPE-PLD	N-acyl phosphatidylethanolamine phospholipase D
NCAM	Neural Cell Adhesion Molecules
NLS	Nuclear Localization Secuence
NMDA	N-methyl-D-aspartate
NPCx	Nuclear Pore Complex
NSZ	Nerbio Sistema Zentrala
Nup62	Nucleoporin 62
PA	Phosphatidic Acid
PB	Phosphate buffer
PBS	Phosphate buffer saline
PGD2-G	Prostaglandin-D2 glycerol ester
PGE2-G	Prostaglandin-E2 glycerol ester
PGF2a-G	Prostaglandin-F2a glycerol ester
PGH2-G	Prostaglandin-H2 glycerol ester
PGI2	Prostacyclin
PGI2-G	Prostaglandin-I2 glycerol ester
PIP2	Phosphatidylinositol biphosphate
PKA	Protein Kinase A
PKC	Protein Kinase C
PLC	Phospholipase C
PLCβ	Phospholipase C Beta
PLCγ	Phospholipase γ
PLD	Phospholipase D
PMSF	Phenylmethylsulfonyl Fluoride
PPARγ	Peroxisome Proliferator-Activated Receptor Gamma
PPD	p-phenylenediamine
pRb	Retinoblastome Protein
PSD95	Post Sinaptic Density Protein 95

PtdIns	Phosphatidylinositol
PVDF	Polyvinylidene fluoride
RMS	Rostral Migratory Stream
Rpm	Revolutons per minute
SC-35	Serine/Arginine rich splicing factor 35
SGZ	Subgranular Zone
siRNA	Small interfering RNA
SNAP-25	Synaptosomal-asociated protein 25
STD	Short Term Depression
SVZ	Subventricular Zone
TEMED	Tetramethylethylenediamine
THL	Tetrahidrolipstatine
TX-100	Triton X-100
TXA2	Thromboxane A2
V-SVZ	Ventricular-Subventricular Zone

I. SARRERA

1. DIAZILGLIZEROL LIPASA AKTIBITATEAREN AURKIKUNTZA. ENTZIMEN IDENTIFIKAZIOA ETA KARAKTERIZAZIOA

Diazilgizerol lipasa (DAGL) aktibitatea plaketetan eta mastozitoetan deskribatu zen lehengo aldiz. Bertan, DAGL aktibitateak azido arakidonikoaren (AA) askapena bideratzen duten erreakzio entzimatikoen sekuentzian duen garrantzia agerian jarri zen. Bide horretatik, DAGLaren substratua (diazilgizerola, DAG) fosfolipasa C (PLC) aktibitate bati esker sortuko litzateke. Hurrengo pausoetan, DAGL eta monoazilgizerol lipasa (MAGL) aktibitate hidrolitiko sekuentzialen ondorioz, 2-arakidonilgizerola (2-AG) eta AA sortuko lirateke hurrenez hurren (Kennerly et al., 1979; Prescott eta Majerus, 1983; Allen et al., 1992). Urte horietan, RHC80267 DAGL aktibitatearen inhibitzaile gisa identifikatu zen (Sutherland eta Amin, 1982), eta konposatu honen erabilerari esker DAGL aktibitatearen zeregin fisiologiko batzuk deskribatu ahal izan ziren. Lehenengo ikerketetan, besteak beste, DAGL aktibitatea honako funtziotan erlazionatu zen: guruin tiroidean tiropitropinak estimulatutako prostagladinen jariaketa (Levasseur et al., 1984), prolaktinaren hipofisi-jariaketa (Canonico et al., 1985) eta plaketetan trombinak eragindako azido arakidonikoaren jariaketa (Amin et al., 1986).

DAGL aktibitate entzimatikoa deskribatu ondoren, DAGL entzima arazteko eta karakterizatzeko asmoz, ikerketa batzuk burtu ziren behi-garunetan (Farooqui et al., 1984; Farooqui et al., 1986; Rosenberger et al., 2007). Ikerketa horietan, DAGL aktibitatea 27 kDa-eko frakzioan isolatu zen, eta AMP ziklikoaren menpeko proteina kinasak (PKA), baina ez kaltzioak, aktibitate entzimatikoa estimula zezakeela demostratu zen (Rosenberger et al., 2007). Geroago, giza plaketen mikrosometatik 33 kDa inguruko DAGL aktibitatea isolatu zen, kaltzioak zuzenean ezin estimula zezakeena (Moriyama et al., 1999). Dena den, garai hartan identifikatutako DAGL aktibitate entzimatikoek orduz geroztik identifikatutako isozimekin erlazioren bat duten ezezaguna da. Arlo horretan, aurrerapenik nagusiena 2003an gauzatu zen, bioinformatika bidezko analisiaz, DAGL entzimen sekuentziak identifikatu eta klonatu zituztenean (Bisogno et al., 2003). Bi gene desberdin identifikatu ziren, eta gene horiek kodetutako produktuak 1042 eta 642 aminoazidoz osatutako isozimak zirela ikusi zen,

DAGL α eta DAGL β hurrenez hurren. Isozima horiek egitura-ezaugarriak partekatzen dituztela ikusi zen. Hala, amino terminal sekuentzia labur baten ondoren, lau mintz-zeharreko domeinu dituzte eta, jarraian, alde zitosolikoan kokatutako domeinu katalitikoa. DAGL β -k ez bezala, DAGL α -k buztan zitosoliko luzea du domeinu katalitikoaren ondoren (ikus aurrerago). COS zeluletan gainespresatu zirenean, DAGL α eta DAGL β puntukako banaketa erakutsi zuten mintz plasmatikoa, mintz-mikrodomeinuetan kokatzen direla iradoki zuena (Bisogno et al., 2003). Halaber, SDS-PAGE (*sodium dodecyl sulfate polyacrylamide gel electrophoresis*, sodio dodezil sulfato eta poliakrilamida geleko elektroforesia) bitartez aztertu zirenean, DAGL α eta DAGL β proteinen migrazioa beren pisu molekular teorikoarekin bat zetorren, 120 kDa eta 70 eta kDa hurrenez hurren. Azterketa entzimologikoak biak glizerolaren sn-1 posiziorako espezifikoak direla erakutsi zuen, eta, beraz, 2-AG sintesiaren erantzuleak (Bisogno et al., 2003). Aktibitate katalitikoa bi isozimak oso antzekoak izanik ere, desberdin banatzen dira organismoan. Hala, DAGL β -ren ehun banaketa DAGL α -rena baino zabalagoa izanik ere, DAGL α isoziaren expresioa askoz handiagoa da nerbio-sistema zentralean (Bisogno et al., 2003).

2. DAGL AKTIBITATEAREN GARRANTZIA SEINALEZTAPEN ENDOKANNABINOIDEAN


Lehenago komentatu den bezala, DAGL aktibitatea AA emariaren testuinguruan aztertzen hasi zen. Izañ ere, DAGL/MAGL sekuentzia hidrolitikoa, DAGL aktibitatea pauso bitartekari hutsa bezala hartzen zen AA ekoizteko. Sistema endokannabinoidea deskribatu zenez geroztik, DAGL aktibitatearen inguruko ikerlan gehienak sistema horretan duen premiazko rola aztertzen bideratu ziren.

2.1 Sistema Endokannabinoidearen Funtzionamendua

CB1 eta CB2 hartzale kannabinoideak pasa den mendeko 80ko hamarkadan deskribatu ziren aurrenekoz, eta tetrahidrokannabinola (*Tetrahydrocannabinol*, THC) kalamuaren (*Cannabis sativa*) eragin psikoaktiboen erantzule nagusi bezala identifikatu zen (Devane et al., 1992a; Munro et al., 1993). Hartzale kannabinoideen aurkikuntzak ligando endogenoen

bilaketara bideratutako ikerketak bultzatu zituen. Aurkitu zen lehenengo kannabinoide endogenoa, N-arakidoniletanolamina (*anandamide*, anandamida -AEA- izenarekin ezagututakoa), 1992an isolatu zen (Devane et al., 1992b) eta, geroxeago, 2-arakidonoilglicerola (2-AG) (Stella et al., 1997).

Neurotransmisore klasikoak ez bezala, endokannabinoideak ez dira ez bixikuletan metatzen ezta exozitosi bidez askatzen (1. irudia). Endokannabinoideak, beharrezkoak direnean ekoizten eta askatzen dira, mintz plasmatikoko fosfolipidoen degradazioaren bidez. AEA eta 2-AG sintesiaren erantzule nagusiak fosfolipasa D (NAPE-PLD) eta DAGL dira hurrenez hurren. AEA eratzeko, NAPE-PLDk N-arakidonoil fosfatidiletanolamina (*N-acyl phosphatidylethanolamine phospholipase D*, NAPE) erabiltzen du substratu bezala. DAGL entzimak DAG substratutik eratzen du 2-AG, eta DAG mintz plasmatikoan dagoen fosfatidilinositol 4,5- bifosfatoaren (PIP₂) degradaziotik eratzen da.



1. irudia. Neurotransmisioaren ezaugarriak sinapsi klasikoan eta sistema kannabinoide endogenoan. **A.** Neuronen arteko sinapsi klasikoan, neurotransmisoreak sintetizatu eta bixikuletan metatu egiten dira. Hala, neurona presináptikoa kitzikatzearen ondorioz sortutako depolarizazioa bukaera presináptikoetara hedatu egiten da. Ondorioz, neurotransmisoreak bixikula presináptikoetik arraildura sinaptikora askatzen dira eta mintz postsináptikoan dauden hartzaleak aktibatzen dituzte. **B.** Berriz, AEA eta 2-AG endokannabinoideak «on-demand» sintetizatzen eta askatzen dira, eta atzera-mezulari moduan jokatzen dute. Mintz plasmatikoan dauden fosfolipidoak substratu gisa erabiliz, NAPE-PLD eta DAGL entzimek AEA eta 2-AG ekoizten dute hurrenez hurren. Behin sintetizaturik, atzerantz igarotzen dira eta CB1 hartzale presináptikoak kitzikatzen dituzte. Seinaleztapena AEA eta 2-AG endokannabinoideen degradazioaz bukatzen da. FAAH (*Fatty acid amide hydrolase*, gantz-azidoen hidrolasa) eta MAGL entzimek AEA eta 2-AG degradatzen dituzte hurrenez hurren.

Liposolugarriak direnez, behin sintetizaturik, AEA zein 2-AG mintz biologikoak zeharkatzen dituzte, eta jakin badakigu bi endokannabinoide hauek atzera-mezulari gisa jokatzen dutela sinapsian. Sistema endokannabinoidearen osagaien kokapena mota horretako seinaleztapenaren oinarrian dago (Katona eta Freund, 2012). Horrela, sintesirako makineria alde postsinaptikoan kokatzen da eta CB1 hartzalea, aldiz, alde presinaptikoan. Neurona postsinaptikoan zelula barneko kaltzio kontzentrazioa igotzen denean, AEA eta 2-AG askatzen dira, eta hauek neurona presinaptikoaren CB1 hartzaleak aktibatzen dituzte. Horren ondorioz, neurotransmisore presinaptikoaren askapena jaitsiko da. Hortik ondorioztatu da endokannabinoideen sintesia «*on-demand*» ekoizpen mekanismoaren bidez kontrolatzen dela. Hala, kitzikapen handiegia jasaten duenean, neurona postsinaptikoak endokannabinoideak erabiliko lituzke neurona presinaptikoaren aktibilitatea murrizteko.

Aipatutako atzera-mezulari mekanismoa dela medio, endokannabinoideek epe laburrerako eta epe luzerako aldaketak eragiten dituzte sinapsiaren eraginkortasunean. Zehazki, plastizitate fenomeno hauei epe laburrerako depresio (*short-term depression*, STD) eta epe luzerako depresio (*long-term depression*, LTD) deritze. G_{i/o} proteinei akoplaturik dagoenez, CB1 hartzalearen aktibazioak adenilato ziklasaren aktibilitatea murrizten du eta, aldi berean, kaltzio- eta potasio-erretenen itxiera eta irekiera eragiten du hurrenez hurren. Horrela, CB1 hartzalearen bidezko seinaleztapenak indar sinaptikoa gutxitzen du epe laburrean. Horrez gainera, CB1en estimulazioak beste seinaleztapen bide batzuk aktiba ditzake (esaterako, *mitogen-activated protein kinase*, mitogenoz aktibatutako proteina kinasen -MAPK- bidea) eta, horrela, sistema endokannabinoideak expresio genikoari eragin diezaioke. Beraz, CB1 hartzalearen bidezko seinaleztapenak epe luzerako aldaketak ere eragin ditzake.

2.2 DAGL Aktibilitatearen Menpeko Seinaleztapen Endokannabinoidea: DAGLa

Isozimaren Garrantzia

Anandamida eta 2-AG aurkitu ondoren, beste hainbat konposatu deskribatu dira balizko endokannabinoide gisa, baina bakoitzak tonu endokannabinoideari egiten dion ekarprena

zehazteke dago. Identifikatutako substantzien artean, noladin eterra (Hanus et al., 2001), virodhamina (Porter et al., 2002) eta N-arakidonildopamina (Bisogno et al., 2000) aipa daitezke. Edonola ere, 2-AG nabarmen ugariagoa da beste endokannabinoideak baino, eta azterketa farmakologikoetan lortutako emaitzen arabera endokannabinoide nagusia dela ondoriozta daiteke (Sugiura et al., 1999).

Egun, DAGL α eta DAGL β sn-1 isozima espezifikoek 2-AGren maila basala erregulatzen dutela jakin badakigu, «*on-demand*» mekanismoaren bidez estimulatutakoa. Izan ere, isozima horien aktibilitatea beharrezko da endokannabinoideek eragindako erantzun fisiologikoak antzeman ahal izateko (Chevaleyre eta Castillo, 2003; Williams et al., 2003; Szabo et al., 2006; Goncalves et al., 2008; Hashimotodani et al., 2008; Oudin et al., 2011). DAGL isozima bakoitzak ehun desberdinatan 2-AG emariari egiten dion ekarpena argitzeko, balio handikoak izan dira *Knockout* ereduak. Horrela, saguaren nerbio-sistema zentralean eta gibelean, DAGL α -ren ezabatze genikoak 2-AG mailaren %80 eta %60 murrizten du hurrenez hurren. Aitzitik, DAGL β -*knockout* saguen garunean, 2-AG mailaren murrizketa %50ekoa baino ez da, eta antzemanezina bizkar-muinean. Animali horien gibelean, ordez, 2-AG mailaren %90 murrizten da (Gao et al., 2010), DAGL β gibeleko 2-AG emariaren erantzule nagusia dela erakusten duena. Beste autore batzuek sortutako DAGL α -*knockout* saguen zerebeloan, hipokanpoan eta konplexu estriatuan %80eko murrizketa antzeman da 2-AG mailan, DAGL β -*knockout* saguen eremu berdinatan aldaketa nabarmenik detektatu ez den bitartean (Tanimura et al., 2010).

Laburbilduz, DAGL aktibilitatea 2-AG sintesiaren erantzulea da ehun guzietan eta, nerbio-sistema zentralean, DAGL α eta DAGL β isozima biak espresatzen badira ere, DAGL α da 2-AG emariaren erantzule nagusia. Are gehiago, DAGL α nerbio-sistema zentralean duen banaketa eta expresio maila altua ikusita, 2-AG bidezko atzera-seinaleztapen sinaptikoaren erantzule nagusia dela ondorioztatu da. Horrekin bat, DAGL α -ren (baina ez DAGL β -ren) ezabaketak CB1 hartzailearen menpeko plastikotasun sinaptikoa galarazten du (Gao et al., 2010; Tanimura et al., 2010).


3. DAGL ISOZIMEN EGITURA-EZAUGARRIAK

DAGL α eta DAGL β isozimak egitura-homologia handia dute. Biek, amino terminal sekuentzia zitosoliko labur baten ondoren, lau mintz-zeharreko domeinu dituzte eta, jarraian, domeinu katalitikoa. Bien arteko desberdintasun nagusia mutur karboxi terminalean aurki daiteke, DAGL β -k ez bezala, DAGL α -k 600 aminoazidoz osaturiko buztan luze samarra baitauka (Bisogno et al., 2003) domeinu katalitikoaren ostean.

3.1 Mintz-zeharreko Domeinuak

DAGL α -ren sekuentzian, lau mintz-zeharreko domeinuen aurrean dauden 22 aminoazidoek mutur amino terminal zitosolikoa osatzen dute. Sekuentzia labur honen funtsa ezezaguna bada ere, garrantzitsua omen da, oso kontserbatuta baitago filogenetikoki urrun dauden espezieetan (esaterako, *Drosophila* eta *Gizakia*). Aitzitik, DAGL α eta DAGL β proteinen arteko homologia askoz baxuagoa da, %63 ingurukoa.

Bi zelula kanpoko lakio daude mintz-zeharreko I-II eta III-IV helizeen artean, eta zelula barneko beste bat II-III helizeen artean. Sekuentzia-analisiak zelula kanpoko lakioetan glikosilazio lekuak egon litezkela iradokitzen du (<http://www.uniprot.org/uniprot/Q9Y4D2>). Mintz-zeharreko helizeek entzimaren mintz-paketatzea eta seinaleztapen-osagai desberdinez osaturiko mikrodomeinu zehatzetan kokatzea erraztu lezakete, tetraspanina proteinen kasuan gertatzen den bezala (Yáñez-Mó et al., 2009). Are gehiago, helize hauek euskarri moduan joka lezakete beste proteinen finkapenerako, konplexu funtzionalen eraketa ahalbidetuko lukeena. Era berean, mintz-zeharreko domeinuak erreten baten partaideak izan litezke, DAG substratuaren domeinu katalitikorako sarrera erregulatzeko edo 2-AG jariaketa kontrolpean mantentzeko (Reisenberg et al., 2012). Hala ere, domeinu horien ezabaketak ez du inpakturik aktibitate katalitikoan eta ezta 2-AG jariaketan ere (Won et al., 2009).




2. irudia. Ornodunen DAGL α eta DAGL β entzimen exoi-konposaketaren irudikapen eskematikoa. Marra bertikalek exoien arteko mugak adierazten dituzte. Marra beltz lodieki bi isozimetan kontserbatuta dauden sekuentziak adierazten dituzte. Mintz-zeharreko 4 domeinuak kodetzen dituen eremua urdinez ageri da, domeinu katalitikoak gorriz, eta DAGL α -ren buztan zitosolikoa grisez. Domeinu katalitikoaren baitan, zisteinetan aberatsa den sekuentzia horiz markatu da eta exoi bakar batek kodetutako erregulazio-bihurgunea berdez. Beheko irudian, DAGL α eta DAGL β entzimen egitura eskematikoki erakusten da. Proteinaren eremu desberdinei dagozkien exoien identifikazioa errazteko, gaineko marrazkian erabilitako kolore-kode bera erabili da. Irudiaren jatorria: Reisenberg et al., 2012.

3.2 Domeinu Katalitikoa

DAGL entzimak α/β hidrolasen superfamiliaren barnean kokatzen dira. Familia horretako entzima guztiak egitura-muin bat partekatzen dute eta, muin komun horretan, hidrogeno zubiz lotutako 8 β -xafla aurkitu ditzakegu. β -xafla horien artean, egitura desberdinako lotze sekuentziak kokatzen dira, α -helizeak gehienbat, baina baita β -xaflak edo egitura zehatzik gabeko lakioak ere. DAGL α eta DAGL β entzimek ondo karakterizatutako lipasen egitura-ezaugarriak kontserbatzen dituzte. Horien artean, serina/aspartiko/histidina hirukote katalitikoa aipagarria da, non hirukote hori osatzen duten aminoazidoen arteko distantzia kritikoa dirudien leku aktibo hidrofobikoa eratzeko (Bisogno et al., 2003; Pedicord et al., 2011). Beste ezaugarri bat hirukote katalitikotik gertu dagoen tamaina aldakorreko txertoa da (3. irudia). Txerto horrek konporta modura jokatzen omen du. Hala, hutsune katalitiko hidrofobikoa uretatik babestuko luke eta, entzimaren mintz-adsortzioaren ondorioz, lipidoen sarrera baimentzeko irekiko litzateke (Nardini eta Dijkstra, 1999; Miled et al., 2003).

DAGL α eta DAGL β entzimen hidrolasa domeinuak 50-60 aminoazidoz osaturiko txerto ezezagun bat du 7. eta 8. β xafla kanonikoen artean (3. irudia), zentru katalitikorako substratu sarrera kontrola dezakeen lakio erregulatzaila izan litekena (Reisenberg et al., 2012). Lakio erregulatzaila beste lipasa gehienena baino nabarmen handiagoa da DAGL α eta DAGL β isozimetan, irekitze edo ixte egoeraren erantzulea konformazio-aldaketa izan

litekeela iradokitzen duena (Reisenberg et al., 2012). Domeinu horren azterketa zehatzetik, mekanismo erregulatzailerik nagusiena fosforilazioa izan daitekeela ondoriozta daiteke. Izan ere, masa-espektrometria bidezko azterketek DAGL entzimen domeinu katalitikoan eta erregulatzailean fosforilazioaren ebidentziak aurkitu dituzte (Wang et al., 2006; Rikova et al., 2007; Dephoure et al., 2008; Brill et al., 2009; Huttlin et al., 2010; Hsu et al., 2011). Are gehiago, garun-mikrosometan eta behi-betsareko makiletan, PKA kinasaren menpeko gor-erregulazioa ikusi da DAGL aktibitatean (Pérez Roque et al., 1998; Rosenberger et al., 2007). Halaber, neurona sentsorialetan PKA eta PKC kinasek estimulatutako 2-AG emaria frogatu da, antza denez, DAGL aktibitateak zuzenduta (Vellani et al., 2008). Gainera, DAGL α eta DAGL β entzimek PKA, PKC, CaMKII eta src kinasen substratuak izan litezkeen kontsentsu-motiboak dituzte (Reisenberg et al., 2012). Beraz, badirudi domeinu katalitikoaren fosforilazioak (lakio erregulatzailea barne) DAGL isozimen aktibitatea erregula dezakeela.



3. irudia. A. α/β hidrolasa tolestura “kanonikoaren” egitura sekundarioaren diagrama. α -helizeak eta β -zuntzak zilindro zuri eta gezi gris bezala adierazten dira hurrenez hurren. Hirukote katalitikoaren lokalizazioa puntu beltzek adierazten dute. Marra etenek aminoazidoen txerto funtzional desberdinak adierazten dituzte. B. DAGL α/β hidrolasen domeinu katalitikoaren tolesturaren topologia. Domeinu katalitikoa egitura desberdinek (α -helizeak, gorri; β -xaflak, urdin argiz) lotzen dituzten 8 β -zuntzez (urdin ilunez) osatuta dago. Hirukote katalitikoa (serina, aspartato eta histidina) biribil laranjek adierazten dute. Zisteinetan aberatsa den eremua eta balizko erregulazio eremua elipse hori eta elipse berde bezala erakusten dira hurrenez hurren. Irudiaren iturriak: Nardini et al. 1999; Reisenberg et al. 2012.

DAGL α (Kang et al., 2008) eta DAGL β (Martin eta Cravatt, 2009; Yang et al., 2010) entzimen palmitoilaziaoa beste erregulazio mekanismo gisa proposatu da. Palmitoilaziaoa itzulpene osteko eraldaketa itzulgarria da eta, horretan, entzima palmitoilatzaileen familia handi batek hartzen du parte. Palmitoilazioaren bidez, kate luzeko gantz-azidoak mintz-proteinen zisteinei lotzen zaizkie. Hala, proteinen hidrofobizitatea handituz, mintz-finkapena indartuko litzateke. Baitere, palmitoilazioak proteinen arteko elkarrekintza, zelularen

zeharreko trafikoa eta substratuen sarrera (Smotrys eta Linder, 2004; Resh, 2006; Fukata eta Fukata, 2010) bezalako prozesuak modula ditzake. Garapenean, DAGL α eta DAGL β entzimez gain, axoi-hazkuntza eta gidatze prozesuetan parte hartzen duten hainbat proteina palmitoilatu egiten dira (esaterako, L1, NCAM eta GAP-43). Beraz, palmitoilazioak mintz-mikrodomeinuetara bidera ditzake proteinak, seinaleztapen-konplexu eraginkorren eraketa baimenduko lukeena (Resh, 2006; Rimmerman et al., 2008; Yáñez-Mó et al., 2009).

3.3 DAGL α -ren Karboxi Buztana

Egitura aldetik, DAGL α eta DAGL β entzimen arteko desberdintasunik nabarmenena karboxi muturrean aurkitzen da (2. irudia). Zehazki, domeinu katalitikoaren ondoren buztan luze bat dago DAGL α , baina ez DAGL β isoziman. Beste aldetik, atzeranzko seinaleztapen endokannabinoidean DAGL α , baina ez DAGL β , inplikaturik dago. Beraz, badirudi karboxi muturreko buztana 2-AG bidezko atzera-seinaleztapena ziurtatzeko beharrezkoa dela. Izen ere, buztan honetan Homer proteinak finkatzeko PPxxF kontsentsu-sekuentzia dago (Shiraishi-Yamaguchi eta Furuichi, 2007). Homer familiako euskarri-proteinek proteina desberdinaren kokapen postsinaptikoa bideratzen dute (Shiraishi-Yamaguchi eta Furuichi, 2007). Beraz, DAGL α eta Homer proteinen arteko elkarrekintza beharrezko omen da DAGL α dentsitate postsinaptikoan koka dadin. Zentzu horretan, MAGLuR5 hartzailak estimulatutako seinaleztapen endokannabinoidea neurona sinpatikoetan molekularki “berreraikitzeo”, DAGL α , CB1 hartzalea eta hartzale glutamatergikoarekin batera, Homer-2b espresatzea beharrezko dela frogatu da (Won et al., 2009).

4. DAGL α ISOZIMAREN MENPEKO 2-AG SINTESIA. FUNTZIO FISIOLOGIKOAK

Oro har, DAGL α -k eragindako 2-AG ekoizpenari esleitu zaizkion funtzio fisiologiko nagusienak bi dira: garun-garapenean, axoi-hazkuntza eta axoi-gidatze prozesuetan parte hartzea eta, garun helduan, neurogenesiaren eta plastikotasun sinaptikoaren erregulazioa dira. Erdibitzta laburra duenez, 2-AG bere itu biologikotik hurbil sintetizatu behar da

mintzean (Sugiura eta Waku, 2002) eta, beraz, CB1 edo CB2 hartzale kannabinoidetatik hurbil. Beraz, DAGL α kokatzen den tokietan 2-AGk funtzioren bat duela adieraziko luke.

4.1 DAGL Aktibitatearen Rola Axoien Hazkuntza eta Gidatze Prozesuetan

Garapenean, CB1 hartzaleak espresio zabala du nerbio-sistema zentralean: bizkar-muinean, zubian, goiko kolikuluan, hipokanpoan, hipotalamoan, usaimen-erraboilean eta neokortexean (Buckley et al., 1998). Honek CB1 hartzaleak garun garapenean garrantzi handia duela adierazten du. Horren ildotik, saguen garun garapenean, DAGL α eta DAGL β axoietan eta hazkuntza-konoetan CB1 hartzaillearekin batera espresatzen direla ikusi izan da (Bisogno et al., 2003; Berghuis et al., 2007; Mulder et al., 2008).

Inerbazio leku zuzenetara hel daitezen axoi-gidatzea oso zehatza izan behar da garun garapenean. Horretarako, jasotzen dituzten estimuluen arabera, axoien hazkuntza-konoetako hartzaleek hazkuntza bultzatu ala inhibitu egingo dute. Hazkuntza faszikulatuan, axoi taldeak batera hedatzen dira axoi-traktuak eratzeko. Prozesu honetan, zelula-atxikidura molekulek (*cell adhesion molecules*, CAM) parte hartzen dute, besteak beste, aipagarrienak NCAM, N-kaderina eta L1 dira. Hasieran, atxikidurak berak (alboz alboko CAM bitarteko elkarrekintzak) hazkuntza prozesua bideratzen zuela uste zen, baina egun badakigu bigarren mezulari bidezko ohiko seinaleztapen aktibazioa beharrezkoa dela (Doherty et al., 1991). Izan ere, egungo hipotesien arabera, CAM gisako zelula-atxikidura proteinek eragindako erantzun biologiko konplexuak (hala nola, axoi-hazkuntza edo zelulen migrazioa) bigarren mezulari klasikoaren aktibazioaren menpe daude, CAM horiek atxikidura bultzatzeko duten gaitasuna edozein izanik ere (Cavallaro eta Dejana, 2011). Izan ere, CAM proteinek fibroblastoen hazkuntza-faktorearen hartzaillearen (*Fibroblast growth factor receptors*, FGFR) ordezko estekatzale moduan jokatzen dute axoi-hazkuntza bultzatzeko (Doherty eta Walsh, 1996; Sanchez-Heras et al., 2006) eta prozesu horretan PLC γ eta DAGL entzimen aktibitateak inplikatuta daudela ikusi zen. Horrela, DAGL entzimak PLC γ -k sortutako DAGa degradatuko luke. Horrela ekoitzutako 2-AGak, CB1 hartzalea aktibatuz, hazkuntza-konoaren mugikortasuna bultzatuko luke (Williams et al., 2003).

Gorago aipatutako aurrekariek DAGL menpeko seinaleztapen endokannabinoideak garun garapena erregulatzen duela agerian jartzen dute. Testuinguru horretan, DAGL aktibitateak FGFR eta CB1 hartzaleen arteko komunikazioa zuzenduko luke, eta CB1 hartzalearen aktibazioa beharrezkoa eta nahikoa izango litzateke axoi-hazkuntza martxan jartzeko (Williams et al., 2003). Beraz, DAGL menpeko seinaleztapen endokannabinoideak garun-garapenean duen garrantzia zalantzak gabekoa da. Izan ere, DAGL aktibitatea edo CB1 bidezko seinaleztapena farmakologikoki inhibitzen edo genetikoki ezabatzen denean, garun konexioak asaldatzen direla ikusi da (Berghuis et al., 2007; Watson et al., 2008; Wu et al., 2010; Argaw et al., 2011). Dena den, ikerketa batzuren arabera CB1 hartzalearen agonistek axoi-hazkuntza bultzatzen dutela adierazi badute ere (Williams et al., 2003; Keimpema et al., 2010), beste batzuen arabera murriz dezakete (Zhou eta Song, 2001; Berghuis et al., 2007; Argaw et al., 2011). Kontraesan horren zergatia ezezaguna bada ere, axoi-hazkuntzaren gainean estimuluek duten eragina zelula-fenotipoaren araberakoa izan daitekeela frogatu da (Williams et al., 1995). Are gehiago, zelula barneko AMP ziklikoaren kontzentrazioak estimulu baten aurrean neuronen erantzuna baldintza dezakeela proposatu da (Cai et al., 2001). Beraz, CB1 hartzalearen menpeko erantzunen aldakortasuna testuinguru horretan aztertu beharko litzateke.

4.2 DAGLα Isozimaren Rola Garun Helduaren Neurogenesian

Garun helduaren neurogenesia zelula-plastikotasunaren alderdietako bat da eta depresioaren prebentzioan, funtzio kognitiboen hobekuntzan, eta garun erreparaziao areagotzean inplikaturik dago. Neurogenesia, batez ere, garapen embrionarioan gertatzen da, hots, gorputzeko neurona gehienak garatzen ari diren garaian. Egun, jakin badakigu neurogenesia garun helduaren bi eremu jakinetan mantentzen dela: eremu azpibentrikularra (*subventricular zone*, SVZ) eta hipokampoko hertz-bihurguneko geruza pikortsuaren azpialdean (*subgranular zone*, SGZ). Eremu horietan etengabeko neuroblastoen ekoizpena gertatzen da eta, ondoren, neuroblasto horien diferentiazioaz sortutako neurona berriak aurre-eratutako zirkuituetan integratzen dira.

Nitxo neurogeniko horiek zenbait funtzio kognitiborekin erlazionatuta daude. Adibidez, SGZ eremuko neurogenesiak garrantzi handia du memoria espazialean (Snyder et al., 2005; Deng et al., 2010; Sahay et al., 2011). Memorian ezezik, depresio gaixotasunarekin ere zerikusirik baduela ikusi egin da. Alde batetik, depresioa hipokanpoko neurogenesiaren murrizketarekin erlazionatu da. Bestetik, zenbait farmako antidepresibok SGZ eremuko neurogenesis berreskuratzen dute, eta kirol jardueraren eragin antidepresiboak SGZko neurogenesiaren areagotzearekin erlazionaturik daudela ikusi da (Sun et al., 2017). Horrez gain, neurogenesi hipokanpalak epe-luzerako potentziazioa eta depresioa gisako plastikotasun sinaptikoan eragiten du (Massa et al., 2011).


Garuneko nitxo neurogenetikorik handiena den SVZ eremua bentrikulu lateralaren kanpoko horman kokatzen da. Karraskari gazteen SVZn, milaka neuroblasto sortzen dira egunero, migrazio-korronte rostraletik (*rostral migratory stream*, RMS) usaimen-erraboilera joaten direnak. Han, neurona GABAergikotan desberdintzen dira, usaimen-erraboleko zirkuituetan integratzen direnak (Lois eta Alvarez-Buylla, 1994; Lledo et al., 2008). SVZko neurona aitzindarietan, DAGL α -ren expresioa altua da, entzima horren aktibitatea neurogenesian garrantzitsua izan litekeela iradokitzen duena. Izan ere, DAGL α -knockout saguen SVZ eremuan neurona aitzindarien proliferazioa erdira murriztuta dago. Aitzitik, DAGL β -knockout saguetan ez da horrelakorik ikusi. Berriz, DAGL α - zein DAGL β -knockout saguetan neurri bereko (%50) murrizketa antzeman da hipokanpoan (Gao et al., 2010). CB1 eta CB2 hartzaleen ezabaketa genikoak ere neurogenesis murrizten du (Jin et al., 2004; Aguado et al., 2006; Palazuelos et al., 2006), seinaleztapen endokannabinoidearen areagotzeak (degradazio entzimatikoaren inhibizioaren bidez) neurogenesis handitzen duen bitartean (Goncalves et al., 2008).

Laburbilduz, garapenean zein garun helduaren neurogenesian, seinaleztapen endokannabinoidea neurona zirkuituen eraketa zuzena ziurtatzeko beharrezkoa omen da eta, zeregin horretan, DAGL α ezinbesteko bitartekaria dela dirudi.

4.3 DAGL α Aktibitatearen Rola Plastikotasun Sinaptikoan

Askatutako neurotransmisore kantitatea eta sentikortasun postsinaptikoa epe luzera edo epe laburrera moldatzeko gertatzen den aldaketa multzoari plastikotasun sinaptiko deritzo. Plastikotasun sinaptikoa, seinaleztapen bide desberdinen aktibazioaren bidez edo/eta epe luzerako aldaketa estrukturalak eta biokimikoak direla medio, ezinbestekoa da sinapsiaren indarra gora ala behera zuzentzeko.

Asko dira plastikotasun sinaptikoa erregulatzen duten bideak eta, horien artean, seinaleztapen endokannabinoidearen menpekoek egundoko rola jokatzen dute (Harkany et al., 2008). Gorago azaldu den bezala (ikus 2.1 atala), atzera-mezulari gisa jokatuz, endokannabinoideek eraginkortasun sinaptikoa modulatzen dute. Zehazki, neurona postsinaptikoek kitizikapen handiegia jasaten dutenean, endokannabinoideek neurona presinaptikoaren aktibitatea murrizten dute. Horrela, endokannabinoideek epe laburrerako eta epe luzerako aldaketak eragin ditzakete indar sinaptikoan. Gertakari elektrofisiologiko nagusienak depolarizazioak eragindako inhibizioaren eta kitzikapenaren ezabatzea dira (*Depolarization-induced suppression of inhibition -DSI- eta Depolarization-induced suppression of excitation -DSE-* hurrenez hurren). Plastikotasun sinaptiko fenomeno horiek erregistro elektrofisiologikoetan jartzen dira agerian, sinapsi inhibitzaile batean (DSI) edo sinapsi kitzikatzaile batean (DSE) indar sinaptikoa behera erregulatzen denean (4. irudia).



4. irudia. Konplexu estriatuko neurona arantzadun ertainen (*medium spiny neuron, MSN*) sinapsian, 2-AG bidezko atzera-seinaleztapenaren menpeko epe laburrerako plastikotasun sinaptikoaren oinarri molekular, estruktural eta fisiologikoak erakusten dituen irudia. Sinapsi kitzikatzaileetan (eskuna), CB1 hartzale presinaptikoa oso urria denez, DSE eragiteko behar beste 2-AG (PLC β 1/DAGL α ardatzaren menpe) ekoiz dadin, beharrezkoa da depolarizazioa eta MAGLur5 hartzaleen aktibazioa aldi berean gertatzea. M1 hartzaleen aktibazioa lagungarria da DSE eragiteko, baina ez nahikoa. Sinapsi inhibitzaileetan (ezkerra), CB1 hartzalearen expresio presinaptikoa oso altua denez, depolarizazioa nahikoa da DSI eragiteko, horretan, MAGLur5 eta M1 hartzaleen aktibazioak lagundu badezake ere. Irudiaren iturria: Uchigashima et al., 2007.

Ikerketa askoren emaitzen arabera, sistema endokannabinoidearen menpeko plastikotasun sinaptikoaren erantzule nagusia 2-AG da (Straiker eta Mackie, 2009; Bin Pan et al., 2009; Kim eta Alger, 2010) eta, beraz, argi dago DAGL aktibilitatea ere funtsezkoa izan behar dela. Testuinguru horretan, garapen aldietan DAGL isozimen expresioaren erregulazioa aztertzen bideratutako ikerketak bereziki interesgarriak dira. Nabarmenki, garapen goiztiarrean, DAGL entzimen expresioa oso handia da hazkuntza-konoetan. Ordea, neurona helduetan, DAGL isozimen expresio maila handia da dendritetan, baina ezin antzeman daiteke axoietan eta terminal presinaptikoetan (Oudin et al., 2011). Fenomeno horrek, seguru asko, DAGL aktibilitatearen funtzio aldaketa adierazten du, axoi-hazkuntza/gidatze prozesuak erregulatzetik plastikotasun sinaptikoa erregulatzera. Izan ere, CB1 hartzalearen eta DAGL α -ren expresioa elektroi-mikroskopia bidez aztertu denean, sinapsietan duten isphilu-profila argi ikusi da, CB1 alde presinaptikoan eta DAGL α alde postsinaptikoan kokaturik (Katona et al., 2006; Yoshida et al., 2006). Seinaleztapen endokannabinoidearen menpeko plastikotasun sinaptikoan DAGL isozima bakoitzaren ekarpena aztertu denean, DAGL α -ren nagusitasuna agerian jarri da. Hala, DAGL α -knockout saguetan, CB1 hartzalearen menpeko plastikotasun sinaptikoa galtzen da, baina ez DAGL β -knockout saguetan (Gao et al., 2010; Tanimura et al., 2010).


5. 2-AG KONTZENTRAZIOAREN ERREGULAZIO MEKANISMOAK

2-AG sintesiaren eta degradazioaren arteko orekak DAGL menpeko seinaleztapen endokannabinoidea kontrolpean mantentzen du. 2-AG endokannabinoidea behin sintetizaturik, serina-hidrolasa bidezko degradazioa jasaten du. Horren entzima erantzule nagusiak MAGL, α/β hidrolasa domeinudun proteina 6 (ABHD6) eta α/β hidrolasa domeinudun proteina 12 (ABHD12) dira. Izan ere, entzima horiek 2-AG degradazioaren %99 eragiten dute (Savinainen et al., 2012).

Garunean, 2-AG hidrolisiaren %85 MAGLk egiten du eta, beraz, degradazioaren erantzule nagusia da. Entzima horren kokapena aztertu denean (ikus 2.1 atala), MAGL terminal presinaptikoetan eta CB1 hartzalearen ondoan kokatzen dela ikusi da (Dinh et al.,

2002b; Gulyas et al., 2004; Ludányi et al., 2011). Kokapen horrek, MAGLk endokannabinoido bitarteko CB1 hartzalearen estimulazioa erregulatzea ahalbidetuko luke eta, dentsitate postsinaptikoan, MAGL espresio gabeziak depolarizazioak eragindako 2-AG metaketa eta atzera-seinaleztapena posible egingo luke (5. irudia, A).

MAGL aktibitateak 2-AG degradazioan duen garrantzi handiaz gain, AA sorkuntza eta mantentze prozesuetan betetzen duen rola ez da arbuiatu behar. *Knockout* animalietan egindako entseguek DAGL/MAGL bideak AAren sintesian duen garrantzia berretsi dute (Gao et al., 2010). Testuinguru honetan, nerbio-sistema zentralean, MAGL menpeko 2-AG hidrolisiak prostaglandina proinflamatorioen sintesia bultzatzen dezakeela proposatu da (Nomura et al., 2011). Are gehiago, MAGL inhibitzaile batekin tratatutako Parkinson gaixoetan antzeman den hobekuntza AA menpeko erantzun inflamatorioen blokeoarekin eta 2-AG menpeko seinaleztapenaren areagotzearekin erlazionatu da (Nomura et al., 2011).



5. irudia. A. Presinapsian, CB1 hartzaleari lotutako 2-AGa disoziatzen denean, MAGL bidezko inaktibazioa gerta daiteke. Disoziatu ondoren, difusio lateralaz (gezi eten urdina), 2-AG molekulak MAGLren domeinu katalitikora gerturatzen dira, buru polarra domeinu katalitiko aldera orientaturik. B. ABHD6 entzima ekoizpen tokitik hurbil estrategikoki kokatua dago, sintetizatu berri den 2-AG maila erregulatzeko. Gune katalitikoa zitosol aldera orientatuta egonda sintetizatu berri den 2-AGa degrada dezake. C. Mikroglia zelularren, ABHD12 entzimak, zelula kanpoko 2-AG mailak kontrolatuz, CB2 hartzaleen bidezko seinaleztapenaren erregulazioan izan lezakeen funtzioa. Iridiaren iturria: Savinainen et al., 2012.

ABHD6 eta ABHD12 entzimei dagokienez, α/β hidrolasa lipasen superfamiliako kideak dira. Biak mintz-zeharreko proteinak izanik, ABHD6ren gune-katalitikoa zitosol aldera dagoen bitartean, ABHD12rena zelularen kanpoaldera dago (Savinainen et al., 2012) (5. irudia, B). ABHD6 entzima mintz postsinaptikoan kokatuta dagoenez, gehiegizko 2-AG emaria kontrola dezake. Izan ere, entzima honen inhibizio akutuak aktibitate sinaptikoaren menpeko 2-AG metaketa areagotzen du eta, garun-kortexeko xafletan, CB1 menpeko LTDa

errazten du. Garunean, ABHD12 entzima mikroglian espresatzen da gehienbat eta, han, CB2 hartzailen bidezko seinaleztapenaren erregulazioan parte hartzen omen du (Savinainen et al., 2012) (5. irudia, C).

Komentatu diren bide hidrolitikoez gain, 2-AG ziklooxigenasa-2 (Cyclooxygenase-2, COX2) entzimaren substratua da. Beherago azalduko den bezala, bide hori prostaglandina glizerol esterren iturria da, ondo karakterizatu gabeko erantzun farmakologikoen erantzule izan litezkeenak (Kozak et al., 2004).

6. PLCB/DAGL α SEINALEZTAPENA NUKLEOAN

Gorago azaldu den bezala, garunean, 2-AG endokannabinoideari esleitu zaizkion funtziogehien-gehienak seinaleztapen sinaptikoaren doitzearekin erlazionatuta daude, non 2-AGk atzera-mezulari gisa jokatzen duen. Mintz postsinaptikoan, 2-AG ekoizpena kontrolatzen duen makineria oso ondo deskribatu bada ere (Katona eta Freund, 2008), 2-AGren biosintesi-makineria bestelako konpartimentu zelularretan ere kokatzen dela frogatzen duten aurkikuntzak ugaritu dira azken urteotan (Farooqui eta Horrocks, 2005; Montana et al., 2012; García del Caño et al., 2014; García del Caño et al., 2015). 2-AGk erdibitzza laburra izanik, kokapen horietan sintesi-makineria osoa egoteak 2-AG bere ituetatik gertu sintetizatza ahalbidetuko luke.

Nukleoan, fosfoinositidoen sintesi- eta degradazio-makineria existitzen dela onartuta dago. Makineria hori zelula-mintzeko fosfoinositidoen ziklotik bereitztuta dago eta proliferazio eta diferentiazio zelularrean parte hartzen duela ikusi da (Kuriki et al., 1992; Divecha et al., 1995; Matteucci et al., 1998; Faenza et al., 2003; Fiume et al., 2005; Faenza et al., 2007; Ramazzotti et al., 2008; Faenza et al., 2012). Bestalde, fosfolipasa aktibilitatearen menpeko fosfoinositidoen biosintesi- eta degradazio-makineriaz gain, zenbait lerro zelularren nukleoan, DAGL aktibilitatea ere badagoela demonstratu da, esaterako, LA-N-1 neuroblastoma zelulen nukleoan. Zelula horietan, fosfolipasa familia desberdinako isozimen menpeko aktibilitatearen ondorioz ekoiztutako DAG espezieak DAGL bidez hidrolizatzen dira (Antony et al., 2001; Farooqui eta Horrocks, 2005). Aldi berean, DAG kinasa (*Diacylglycerol kinase*,

DAGK) aktibitatea frogatu da nukleoan (Martelli et al., 2002; Hozumi et al., 2003). Hala, DAGL eta DAGK aktibitate nuklearrek lekuko DAG kontzentrazioa eta, beraz, PKC entzimaren aktibazioa kontrola dezakete. Aurrekari hauek, fosfolipasen menpeko DAG ekoizpena eta DAGL aktibitateak bideratutako 2-AG biosintesia kateatuta egon litezkela iradokitzen dute.

Nukleoan, DAG emariaz arduratzen den entzima nagusia fosfatidil inositol PLC familiako PLC β 1 isozima da, eta bere aktibitateak ziklo zelularren efektore batzuren erregulazioan dituen eraginak ezagunak dira. PLC β 1 nuklearraren aktibazio eta inaktibazio-mekanismoak ondo bereizten dira mintz plasmatikoan dauden mekanismoetatik. Mintz plasmatikoan, aktibatutako G α_q subunitateak (G α_q -GTP) PLC β 1 aktibitatea suspertzen du eta horrek G $q/11$ proteinei akoplatutako mintz-hartziale metabotropikoen seinaleztapena inplikatzen du. Inaktibazioa, PLC β 1 berak duen GAP (*GTPase activating protein*, GTPasa aktibatzen duen proteina) aktibitateak bideratzen du (Wallace et al., 1991; Sallés et al., 1993a; Sallés et al., 1993b). Nukleoan, ordez, PLC β 1 entzimaren aktibazioa MAPK menpeko fosforilazioak bideratzen du (Xu et al., 2001b; Martelli et al., 2002) eta inaktibazioa PKC α -k katalizatutako fosforilazioaren menpekoa da (Xu et al., 2001a).

Nolanahi ere, PLC β 1 nuklearra ziklo zelularrean inplikatuta dagoela ikusi da eta, testuinguru zelularren arabera, proliferazioa ala diferentiazioa bultz dezake. Esaterako, sagu-eritroleuzemia (MEL) zeluletan, PLC β 1 nuklearrak hazkuntza-faktoreek estimulatutako proliferazioa bultzatzen du eta DMSOk eragindako diferentiazioa geldotzen du (Kim et al., 1996; Matteucci et al., 1998). Ordez, PLC β 1 nuklearraren aktibitate katalitikoa ezinbesteko da IGF-1 (*insuline-like growth factor*, intsulina bezalako hazkuntza faktorea) bidez bultzatutako 3T3-L1 pre-adipozitoen (O'Carroll et al., 2009) eta C2C12 sagu mioblastoen diferentiaziorako (Faenza et al., 2003). Lan honekin erlazionatuago, gure aurretiko emaitzek PLC β 1 isozimak zelulen diferentiazio neuronalean parte hartzen duela iradokitzen dute, PLC β 1 espresioaren ezabaketak eta haren gainespresioak NT2 zelulen diferentiazio

neuronala erabat galarazten eta bultzatzen baitute hurrenez hurren (González-Burguera et al., 2015).

PLC β 1 nuklearrak bultzatutako proliferazio eta diferenziazio erantzunetan, ziklinen menpeko kinasek (*Cyclin-dependent kinase*, Cdk), ziklinek, E2F familiako transkripzio faktoreek eta retinoblastomak (Rb) osatzen duten seinaleztapen-ardatzak giltza moduan jokatzen du ziklo zelulararen efektoreak erregulatzeko (Faenza et al., 2000b; Faenza et al., 2003; O'Carroll et al., 2009). Efektore horien artean, garrantzitsuenetako bat peroxisomen proliferaziorako aktibatutako gamma hartzalea (*Peroxisome proliferator-activated receptor gamma*, PPAR γ) da (Fajas et al., 2002; Abella et al., 2005; Sarruf et al., 2005). Nabarmenki, 2-AG PPAR γ -ren agonista endogenoa dela ikusi da (Raman et al., 2011) eta, beraz, PLC β 1 nuklearren aktibitatea eta PPAR γ -k bultzatutako diferenziazio neuronala lotzen dituen mezularia 2-AG izan litekeela plantea daiteke, eta baita ere 2-AG nuklearren degradazio oxidatiboz sor litezkeen ziklopentenona glizerol esterrak (bereziki, 15-deoxi- $\Delta^{12,14}$ -J2 prostaglandinaren glizerol esterra; 15d-PGJ2-G). Aipatzekoa da PLC β 1 bidezko PPAR γ aktibazioak 3T3-L1 adipozitoen diferenziazioa mantentzen duela (O'Carroll et al., 2009). Oso espekulatiboa bada ere, beharbada, 2-AG nuklearra edo bere oxidaziotik sortutako metabolitoek bitartekari gisa joka lezakete adipozitoen eta neurona helduen egoera postmitotikoa mantentzen. Baitere, PPAR γ hartzalearen aktibazioaren bidez, 2-AGk neurona helduen babesle gisa joka lezake. Izan ere, PPAR γ agonistek neuronen biziraupena faboratzen dutela ikusi da (Sun et al., 2008; Zhao et al., 2011; Gray et al., 2012; Corona eta Duchen, 2016; Díaz-Alonso et al., 2016).

Aurrekari bibliografikoetan oinarritutako ideia hauek oso interesgarriak izanik ere, PLC β 1/DAGL α /2-AG seinaleztapen-ardatza nukleo neuronalean egon badagoela egiaztatzea ezinbesteko aurrebaldintza da hipotesi sendoak planteatu ahal izateko.

II. HELBURUAK

1. DAGL α ENTZIMAREN ESPRESIOA ARRATOI HELDUAREN GARUN-KORTEXEAN AZTERTZEA.

1.1 DAGL α -ren aurkako antigorputzen espezifikotasunaren balioestea.

- Antigorputzen karakterizazioa immunohistokimia eta immunofluoreszentzia bidez.
- Antigorputzen espezifikotasunaren karakterizazioa HEK293 zeluletan.
- Antigorputzen karakterizazioa *Western blot* teknikaren bidez.

1.2 Immunohistokimia- eta immunofluoreszentzia-tekniken bidez, DAGL α -ren banaketa garun-kortexean aztertzeara.

2. DAGL α ENTZIMAREN ESPRESIOA GARUN-KORTEXEKO MINTZ ZELULARRETAN ETA NUKLEO OSOETAN AZTERTZEA.

2.1 DAGL α -ren konpartimentazioaren azterketa garun-kortexetik isolatutako mintz zelularretan.

- Garun-kortexeko frakzio azpizelularrak isolatzeko prozeduraren balioestea.
- DAGL α -ren banaketa garun-kortexetik isolatutako frakzio azpizelularretan *Western blot* bidez aztertzeara.

2.2 DAGL α -ren expresioa garun-kortexeko nukleo neuronaletan aztertzeara.

- Garun-kortexeko nukleo osoak isolatzeko procedura balioestea.
- Garun-kortexeko nukleo osoetan, DAGL α -ren expresioa frogatzea.
- Garun-kortexeko nukleo osoetan, PLC β isozimen expresioa aztertzeara.

3. DAGL α -REN KONPARTIMENTAZIO AZPINUKLEARRA GARUN-KORTEXEKO NUKLEO NEURONALETAN AZTERTZEA.

3.1 DAGL α -ren konpartimentazioa garun-kortexeko nukleoazpifrkzioetan aztertzeara.

- Garun-kortexeko frakzio azpizelularrak isolatzeko prozeduraren balioestea.
- DAGL α -ren banaketa garun-kortexeko nukleoazpifrkzioetan *Western blot* bidez aztertzeara.

- 3.2 DAGL α -ren konpartimentazioa nukleo osoetan immunofluoreszentzia bidez aztertzea.
- 3.3 DAGL α -ren eta PLC β izozimen ko-konpartimentazioa nukleo osoetan aztertza.
4. **PLC β ETA DAGL α AKTIBITATEEN MENPEKO 2-AG EKOIZPEN ENDOGENOA GARUN-KORTEXEKO NUKLEO OSOETAN AZTERZEA.**
 - 4.1 m-3M3FBS konposatuak estimulatutako 2-AG ekoizpen endogenoa nukleo osoetan aztertza.
 - 4.2 Kaltzioak bultzatutako 2-AG ekoizpen endogenoa nukleo osoetan aztertza.
5. **DAGL AKTIBITATEAREN MENPEKO 2-AGREN EKOIZPEN-ZINETIKA GARUN-KORTEXEKO NUKLEOEN MATRIZEAN AZTERZEA.**
6. **2-AG DEGRADAZIO ENTZIMATIKOA GARUN-KORTEXEKO NUKLEOEN MATRIZEAN AZTERZEA.**
 - 6.1 2-AG degradazioan implikaturiko entzimen expresio eta konpartimentazio nuklearra aztertza.
 - 6.2 2-AG degradazioan implikaturiko entzimen aktibilitatea matrize nuklearrean aztertza.

III. MATERIALAK

1. LAGIN BIOLOGIKOAK

1.1 Immunohistokimia eta Immunofluoreszentziarako Laginak

Imunohistokimiarako laginak lortzeko, 200-250 g eta 8-10 aste artean zituzten arratoi arrak kloral hidrato gaindosi batekin (1 g/kg i.p.; Panreac Química S.A. Bartzelona) anestesiatu genituen. Lo zeuden bitartean, bihotzetik %0,37 sodio sulfuro (p/b) soluzio batekin perfunditu genituen 4 minutuz ehunak odolez garbitzeko. Ondoren, %4 paraformaldehido soluzioa (0.1 M fosfato tanpoian -PB-, pH 7.4) perfunditu genien beste 4 minutuz ehunak fixatzeko. Ehunak behin fixatuta, garunak garezurretik atera eta fixapen-tanpoi berdinean sartu genituen 4 orduz 20-25°C tenperaturan. Ondoren sakarosa %30 zeukan PB tanpoian sartu eta 4°C-tan mantendu genituen hondoratu arte. Jarraian, kontrol-sentsore batez (5MP BFS-Physitemp Controller) hornitutako mikrotomo bat (Leitz-Wetzlar 1310; Ernst Leitz GmbH, Wetzlar, Germany) erabiliz, garunaren 40 µm lodierako ebaketa koronalak egin genituen. Moztutako ebaketak iragazkortzeko eta babestuta mantentzeko, DMSO kontzentrazio gorakorretan (%5, %10, eta %20 PBS tanpoian) sekuentzialki inkubatu genituen. 10 minutuz mantendu genituen DMSO kontzentrazio bakoitzean konstanteki irabiatzen genituen bitartean. Azkenengo inkubaketaren ostean, ahalik eta likido bolumenik handiena kenduta, pintzel batekin arretaz batu eta eppendorf hodietan bildu genituen. Bukatzeko, hodiak hiru aldiz sartu eta atera genituen arinki -80°C-tan zegoen isopentanoan horrela ebaketei izozte ziklo azkarrak aplikatzeko. Azkenik, laginak -80°C-tan gorde ziren.

1.2 Immunoblot eta Kromatografia Likidoari Lotutako Masa Espektrometria (LC/MS)

Immunoblot eta LC/MS esperimentuetarako adin eta pisu berdineko anestesiaturako arratoi arrak 0,1 M, pH 7.4 fosfato gatz tanpoiarekin (PBS) bihotzetik perfunditu genituen. Ondoren, garuna garezurretik azkar atera eta kortexa garunetik banandu genuen. Aurrerantzean, kortex laginak une oro izotzaren gainean manipulatu ziren. Banandutako kortexak jarraian prozesatu genituen “Metodoak” ataleko 1. Atalburuan deskribatutako prozedurekin edo -80°C-tan gorde ziren prozesatu genituen arte.

MATERIALAK

1.3 Zelulen Kultura eta Transfekzioa

Giza teratokartzinomatik eratorritako NT2 zelulak (NTERA-2 cl.D1 [NT2/D1], ATCC® CRL-1973™) 75 cm²-ko plastikozko kultura-flaskoetan (frakzionamendu zelularrerako) edo poli-D-lisinaz tratatutako estalkien gainean (immunofloreszentzia entseguetarako) erein genituen, EMEM (*Eagle's Minimum Essential Medium* -ATCC® 30-2003™) kultura-medio osoan (% 10 behi-sueroa eta % 1 penizilina-estreptomizina). Zelulak %80ko konfluentziara heldu zirenean, transfekzioa egin genuen DAGLa-HA (*Hemagglutinin*, hemaglutinina -HA-epitopoa, giza DAGLa proteinaren karboxilo muturrean fusionaturik) proteina errekonbinantearen adierazpena bultzatzeko. Horretarako, DAGLa-ren cDNA sekuentzia txertaturik zuen pPM-C-HA bektorea (Applied Biological Materials Inc., Richmond, BC, Canada) erabili genuen. Aurretiazko entseguetan, Lipofectamine® 2000 (Life technologies) eta Xfect™ (Clontech) transfekzio medioak probatu genituen ondorengo esperimentuetan eraginkorrena aukeratzeko. Transfekzioa hornitzalearen gomendioak jarraituz burutu genuen. Kasu guztietan, erabilitako DNA plasmidiko kantitatea 0.5 µg/cm²-koa izan zen. Transfekziotik 24 ala 48 ordu igaro ondoren, zelulak frakzionamendurako edo immunofluoreszentziarako prozesatu ziren (ikus “Metodoak” atala).

2. MATERIAL FUNGIBLEA

2.1 Erreaktibo Orokorrak

- Azida Sodikoa (Panreac, 122712).
- Azido Klorhidriko %37 (Panreac).
- Behi albumina serikoa (Sigma, A3608).
- Bradford Erreaktiboa (Bio-Rad, 500-0006) eta γ-Globulina estandarra (Bio-Rad, 500-0208).
- Bromofenol Urdina (Sigma, 11,439-1).
- DL-Dithiothreitol (DTT) (Sigma-Aldrich, 43815).
- EDTA (Sigma, ED).
- EGTA (Sigma-Aldrich, E4378).
- Filtro-Papera (Bio-Rad, 165-0962).

MATERIALAK

- Glizerola (Sigma-Aldrich, G8773).
- Glizina (Bio-Rad, 161-0724).
- Isopentanoa.
- Kloral hidratoa (Panreac Química).
- Magnesio Kloruro Hexahidratoa (Panreac, 131396).
- Metanol Absolutua (Sigma-Aldrich, 32213).
- Mowiola (Calbiochem, 17951).
- Paraformaldehidoa (Panreac, 141451).
- Potasio Kloruroa (Sigma-Aldrich, P5405).
- PPD (Sigma-Aldrich, P1519).
- Sakarosa (Sigma-Aldrich, S0389).
- Sodio Fosfato dibasikoa ($\text{PO}_4\text{Na}_2\text{H}$, Sigma-Aldrich, S0876).
- Sodio Fosfato monobasikoa (PO_4NaH_2 , Sigma, S0751).
- Sodio Hidroxidoa (Probus, 131687).
- Sodio Kloruroa (Sigma-Aldrich, S7653).
- Sodio Sulfuro .
- Tris[Hidroximetil]aminometanoa (Trizma® Base, Sigma-Aldrich, T1503).
- Triton X-100 (Sigma-Aldrich, T8787).
- Tween-20 (Bio-Rad, 170-6531).
- Urea (Sigma-Aldrich, U5378).
- 96 putzutako EIA/RIA Plakak (Corning, 3590).

2.2 Erreaktibo eta Material Espezifikoak

2.2.1 Immunohistokimia

- ABC (Abidina-Biotina konplexua).
- Diaminobenzidina (DAB).
- Hidrogeno Peroxidoa (H_2O_2).
- DPX (Fluka).

2.2.2 LC-MS/MS

- Hidrogeno Peroxidoa (H_2O_2).
- 1-AG (Cayman Chemicals, 62150).
- 1-AG-d5 (Cayman Chemicals, 362152).
- 2-AG (Cayman Chemicals, 62160).
- 2-AG-d5 (Cayman Chemicals, 362162).
- AA (Cayman Chemicals, 10007278).
- AA-d8 (Cayman Chemicals, 390010).
- Acetonitrilo Multisolvent® (Scharlab, AC03332500).
- Azetonitrilo isokratikoa (Panreac, 263092).
- Azido formikoa (Sigma-Aldrich, 33015).
- D609 (Tocris Bioscience, 1437).
- DAG (1-stearoyl-2-arachidonoyl-sn-glycerol; Cayman Chemicals 10008650).
- Ditiotreitol (DTT).
- Edelfosina (Tocris Bioscience, 3022).
- Hexanoa (Sigma-Aldrich, St Louis, MO, USA).
- JZL184 (4-[Bis(1,3-benodioxol-5-yl)hydroxymethyl]-1-piperidinecarboxilic acid 4 nitrophenyl ester; Tocris Bioscience 3836).
- m-3M3FBS (Tocris Bioscience, 1941).
- N-arakidonilmaleimida (NAM) (Tocris Bioscience, 3329).
- o-3M3FBS (Tocris Bioscience, 1942).
- R59949 (Merck, 266788).
- R-flurbiprofenoa (R-2-fluoro-alpha-methyl-4-biphenylacetic acid; SIGMA, 545740).
- Tetrahidrolipstatina (THA) (Tocris Bioscience, 3540).
- WWL70 (N-methyl-N-[[3-4(4-pyridinyl)phenyl]methyl]-4'-(aminocarbonyl)[1,1'-biphenyl]-4-yl carbamic acid ester; Tocris Bioscience, 3252).

2.2.3 Western Blot

- Acrilamida/Bis-acrilamida, %40ko soluzioa (Bio-Rad, 161-0148).
- Amonio persulfatoa (Bio-Rad, 161-0700).
- BCA proteina-kuantifikazio *kit-a* (abcam, ab102536).
- Esne Gaingabetu Hautsa (Bio-Rad, 170-6404).
- Bromofenol Urdina (Sigma-Aldrich, 11439).
- CL-Xposure Film Fotosentikorra (Thermo Scientific, 34089).
- Coomassie Urdina (Bio-Rad, 161-0400).
- ECL Clarity™ Western Sustratua (Bio-Rad, 170-5060).
- Errebelatzaila (Sigma-Aldrich, 7042).
- Filme fotosentikorren fixatzailea (Sigma-Aldrich, P7167).
- Fenilmetsulfonilo fluoruroa (PMSF, Sigma-Aldrich, P7626).
- Iodoazetamida (Sigma-Aldrich, I1149).
- Laemmli Tanpoia (Bio-Rad, 161-0737).
- Precision Plus Protein™ kolore-estandarrak (Bio-Rad, 161-0374).
- PVDF Immun-Blot® Mintza (Bio-Rad, 162-0177).
- RNasarik gabeko DNasa I errekonbinantea (TaKaRa, TB 2270A).
- TEMED (Bio-Rad, 161-0800).

MATERIALAK

2.3 Antigorputz Primarioak

Itua IF/IHC	Diluzioa WB	Hostalaria Klonalitatea	Isotipoa	Antigenoa	Erreferentzia	
ABHD12	1:2500	Ahantz-poliklonala		C-REFLGKSEPEHQH peptidoa	Sigma-Aldrich, SAB2500016	
COX2	1:2500	Ahantz-poliklonala	IgG	Giza jatorrizko COX2 entzimaren karboxi muturrean kokatutako peptidoa	Santa Cruz Biotechnology, sc-1745	
DAGL α (Af1080)	1:250	Ahantz-poliklonala	Sueroa	Sagu DAGL α entzimaren karboxi muturraren 42 aminoazidoei dagokien peptidoa (NM198114)	Frontier Science, DGL α -Go-Af1080-1	
DAGL α (Af380)	1:250	1:1000	Untxi-poliklonala	Sueroa	Sagu DAGL α karboxi muturraren 42 aminoazido (NM198114)	Frontier Science, DGL α -Rb-Af380-1
DAGL α (C-14)	1:250		Untxi-poliklonala	Sueroa	Giza DAGL α -ren domeinu zitoplasmatikoko karboxi muturra	S α Cruz Biotech., sc-133307
DAGL α (N-13)	1:250		Untxi-poliklonala	Sueroa	Giza DAGL α -ren zelulaz kanpoko domeinuetako batean kokatzen den sekuentzia peptidikoa	S α Cruz Biotech., sc-133308
Golgi 58K	1:1000	Sagu-monoklonala	IgG ₁	Arratoi gibeletik isolatutako Golgi 58K proteina	Abcam, ab21685	
GRP78/BiP	1:2000		Untxi-poliklonala	IgG	Sagu GRP78/BiP proteinaren karboxi muturreko azken 55 aminoazidoei dagokien peptidoa	Abcam, ab21685
HA	1:1000	Sagu-monoklonala	IgG ₁	CYPYDVPDYASL peptidoa	Covance, Cod. MMS-101P, 16B12 klona	
Histona H3	1:500	Untxi-poliklonala	IgG	H3 histonaren 1-20 bitarteko aminoazidoei dagokien peptido sintetikoa	Chemicon, 382157	
Lamina B1	1:100	Sagu-monoklonala	IgG ₁	Giza epitelio kartzinoma HeLa zeluletan purifikatutako nukleo zelularrak	S α Cruz Biotech, sc-56144, 8D1 klona	
MAGL	1:1000	Ahantz-poliklonala	IgG	Giza MAGL entzimaren 17-29 bitarteko aminoazidoei dagokien peptido sintetikoa	Abcam, ab77398	
Na ⁺ /K ⁺ ATPasa	1:5000/1:2000	Sagu-monoklonala	IgG ₁	Arkume gibeletik purifikatutako Na ⁺ /K ⁺ ATPasa-ren α1 azpiunitatea	Sigma-Aldrich, A-277, M8-P1-A3 klona	
NeuN/Fox-3	1:1000	1:2000/1:4000	Sagu-monoklonala	IgG ₁	Sagu garunetik purifikatutako nukleoak	Chemicon (Milipore), MAB377, A6 klona
NMDAR1	1:1000	Untxi-poliklonala	IgG	Giza NMDAR1 hartzialearen 897. serina hondarraren inguruko peptidoa	Abcam, ab52177	
NPCx	1:5000	Sagu-monoklonala	IgG ₁	Poro nuklear konplexuen nahasketa	Abcam, ab24609, Mab414 klona	
PLC β 1 (N-ter)	1:8000	Sagu-monoklonala	IgG ₁	Giza PLC β 1ren 4-159 aminoazidoen bitarteko peptido sintetikoa	BD Transduction Labs., 610924, 16/Phospholipase C β 1 klona	
PLC β 1 (R233)	1:250		Untxi-poliklonala	IgG	Giza PLC β 1ren 831-1063 aminoazidoaren bitartearen kokatzen den peptido sintetikoa	S α Cruz Biotech., sc-9050
PLC β 2	1:100	1:500	Untxi-poliklonala	IgG	Giza PLC β 2ren karboxi muturretik gertu kokatzen den epitopoa	S α Cruz Biotech., sc-206
PLC β 4	1:100	1:500	Untxi-poliklonala	IgG	Sagu PLC β 4ren karboxi muturrean kokatutako epitopoa	S α Cruz Biotech., sc-404

MATERIALAK

SNAP-25	1:40000	Sagu-monoklonala	IgG1	Giza <i>post-mortem</i> garuneko prestakin sinaptiko gordina	Abcam, SP12: ab24732
SC35	1:500	Untxi-monoklonala	IgG1	Partzialki purifikatutako spliceosomak	Abcam, ab11826, SC-35 klona
CD90/Thy1	1:6000	Untxi-monoklonala	IgG	Giza CD90/Thy1 proteinaren N-terminalen gertu kokatzen den epitopoa	Abcam, ab92574 , EPR3132 klona
β-tubulina	1:1000	Sagu-monoklonala	IgG1	β-tubulinaren bost isoformen karboxilo muturrean, 281-446 aminoazidoen bitartean aurki daitekeen epitopoa	Sigma-Aldrich, T4026, TUB 2.1 klona

1. taula. Erabilitako antigorputz primarioak

2.4 Antigorputz Sekundarioak

- Biotinylated rabbit anti-goat IgG (H+L) affinity purified (Vector Laboratories, BA-5000).
- Alexa Fluor 568 Goat anti-Mouse (Invitrogen, A11031).
- Alexa Fluor 488 Donkey anti-Goat (Invitrogen, A11055).
- Alexa Fluor 488 Goat anti-Rabbit (Invitrogen, A11034).
- DyLight 549 Donkey anti-Rabbit (Jackson Immuno Research, 711-506-152).
- Anti-rabbit IgG HRP conjugate (Amersham, NA934).
- Anti-goat IgG HRP conjugate (Sigma-Aldrich, A5420).

2.5 Suero Normalak

- Ahuntz-suero normala (*normal goat serum* -NGS-, Vector Laboratories, U0328).
- Untxi-suero normala (*normal rabbit serum* -NRS-, Vector Laboratories, T1127).
- Asto-suero normala (*normal donkey serum* -NDS-, Vector Laboratories, U0111).


MATERIALAK

IV. METODOAK

1. GARUN-KORTEXAREN FRAKZIONAMENDU PROZEDURAK

1.1 Mintz Gordin (P2), Nukleo Gordin (P1) eta Zitoplasma (Cyt) Frakzioak Garun-Kortexetik Isolatzeko prozedura

- **Homogeneizazio Tanpoia:** 20 mM Tris-HCl + 1 mM EGTA (+ proteasa inhibitzaileak)
- **0,32 M Sakarosa Tanpoia :** 0,25 M sakarosa, 15 mM Tris-HCl, 15 mM NaCl, 60 mM KCl, 5 mM EGTA, pH 7,9 (+ proteasa eta fosfatasa inhibitzaileak)



6. irudia. Mintz gordinak (P2), nukleo gordinak (P1) eta zitoplasma (Cyt) frakzioak prestatzeko prozeduraren eskema.

Frakzionamenduarekin hasi ahal izateko, lehenik eta behin -80°C-tara biltegiratutako arratoien garuneko kortexak desizoztu genituen. Horretarako, laginak proteasa inhibitzailez

METODOAK

osatutako homogenizazio tanpoi batean (20 mM Tris-HCl; 1 mM EGTA; 1 mM PMSF; iodoazetamida 50 µM; pH 7,5) desizoztu arte murgildu genituen. Ondoren, kortexak xafla metaliko hotz baten gainean jarri (4°C-tara izotz gainean mantenduz) eta iragaz paperaren laguntzarekin odolbildua kendu eta siku genituen. Artazi batzuen laguntzaz materia zuria erauzi genuen eta gelditzen zen ehuna pisatu eta balioa apuntatu genuen.

Kortexak eta homogenizazio tanpoia beirazko Potter-Evelhem batean 1:4 (p/b) proportzioan jarri eta irabiagailu elektriko (RSLAB 13/20) batera akoplatutako teflonezko enbolo batekin homogeneizatu genuen. Enbolo eta Potter-Eveljemaren hormaren arteko hutsunearen neurria 0.15 - 0.20 milimetrokoa da eta ehuna txikitu zedin, hutsune honetan zehar hamar aldiz pasarazi genuen enboloa, 800 rpm-ko abiadurara biratzen zuen bitartean igo eta jaitsiz. Prozesu guztian zehar muntaia 4°C-tara hoztuta mantendu behar da eta hau lortzeko, Poterra txikitutako izotzez inguratu genuen. Esekidura homogeneoa lortutakoan, 1:10 (p/b) erlaziona lortu arte esekidurari homogenizazio tanpoia gehitu genion tefloizko enboloarekin leunki eragiten genuen bitartean. Esekidura hau, 16 ml-tako zentrifuga hodietan banandu eta hauek, balantza bidez orekatu eta gero, hoztutako abiadura handiko zentrifugadorearen (Kontron, Centrikon T-42K) A-19C errotorean sartu eta 3400 rpm-tara (~1100 xg), 4°C-tan eta 30 minutuz zentrifugatu genituen. Zentrifugazioa bukatutakoan, gainjalkinak pelletetatik banandu genituen eta azken hauek, gerora Frakzio nuklear gordina (P1 frakzioa) osatuko zutenak, 4°C-tan gorde genituen. Gainjalkin guztiak batu eta 18500 rpm-tara (~ 40000 xg) 10 minutuz zentrifugatu genituen. Lortutako gainjalkina, Zitosola (Cyt) alegia, 4°C-tan gorde zen eta pelleta, 1:10 (p/b) proportzioan homogeneizazio tanpoiarekin berreseki genuen. Esekidura hau, berriro ere 18500 rpm-tara zentrifugatu genuen. Prozedura hau hiru aldiz errepikatu eta lortutako pellet garbia (Mintz gordinen frakzioa -P2-) - 80°C-tara gorde egin genuen. Lehenengo zentrifugazioan lortutako bi pelletak, bestalde, sakarosa 0,25 M tanpoi batetan (0,25 M sakarosa, 15 mM Tris-HCl, 15 mM NaCl, 60 mM KCl, 5 mM EGTA, 1 mM PMSF, 50 µM iodoazetamida, pH 7,9) 1:4 (p/b) proportzioan berreseki eta bateratu genituen. Izotzetan 10 minutuz inkubatu ostean berriro zentrifugatu

METODOAK


genituen 10 minutuz 4°C-tan. Kasu honetan, 6000 rpm (~ 2000 xg) abiadurara egin zen zentrifugazioa bakarrik partikula pisutsuenak hauspeatu eta baztertu ahal izateko. Lortutako azken pellet hau, P1 frakzioa da.

1.2 Garun-Kortexeko Mintzak Frakzionatzeko Prozedura.

Zelulen frakcionamendua burutzeko, Yang eta kolaboratzaileek (Yang et al., 2009) argitaratutako prozedimendua egokitzapen batzuekin jarraitu genuen. Izotutako kortexak proteasa inhibitzaile nahaste bat (Sigma-Aldrich, P8340) zeraman lisi tanpoi hotz batetan (10 mM Tris-HCl; pH 7,6; 5 mM EDTA; 0,32 M sakarosa) desizoztu genuen. Ondoren, 1:10 (p/b) proportzioa lortu arte lisi tanpoi gehiago gehitu genuen eta beirazko Potter-Evelhem batean, irabiagailu elektriko (RSLAB 13/20) batera akoplatutako teflonezko enbolo batekin 800 rpm-tara homogenizatu genuen. Laginaren zati bat homogenatu oso (WH) bezala gorde eta gainontzekoa frakzionatzen jarraitu genuen. Lehenik eta behin, homogenatu osoa 1000 xg-tara 10 minutuz eta 4°C-tan zentrifugatu genuen. Lortutako P1 pelletea (zelula gorpuzkiak, nukleoak, mitokondriak etab.), baztertu eta gainjalkina (S1) berreskuratu genuen. Gainjalkin hau, 10000 xg-tara 5 minutuz eta 4°C-tan zentrifugatu genuen eta pellet (mintz plasmatikoak, P2) eta gainjalkin bat (mikrosomak dauzkan frakzio zitosolikoa, S2) lortu genituen. P2 frakzioa, %0,5 Tritoi X-100 (TX-100) detergentea zeukan lisi tanpoian berreseki eta kulunka-irabiagailu batean 4°C-tan 30 minutuz inkubatu genuen. Inkubatu eta gero, volumen osoa eppendorf hodietan banatu genuen 32000 xg-tara 20 minutuz eta 4°C-tan zentrifugatzeko. Prozedura honekin, eppendorff bakotzean mintz sinaptikoz (P3) eta TX-100ean solugarriak diren mintzez (S3) osatutako pellet eta gainjalkin bana lortzen dira hurrenez hurren. Bi faseak banatu eta aliquota guztiak -80°C-tan biltegiratu genituen erabiliak izan arte. Mikrosomak dauzkan S2 frakzio zitosolikoa bestalde, ordubetez 140000 xg-tara SW40Ti (331302, Beckman) errore batean zentrifugatu genituen. Horrela, pellet bat (Mikrosomak, P4) eta gainjalkin bat (zitosola, S4) lortu genituen eta, erabili artean, -80°C-tara gorde genituen.

METODOAK

- **Lisi Tanpoia:** 10 mM Tris-HCl, pH 7.6, 0,32 M sakarosa, 5 mM EDTA (+ proteasa eta fosfatasa inhibitzaileak)
- **Garbiketa Tanpoi Isotonikoa:** 5 mM Tris-HCl, pH 7.6, 135 mM NaCl, 5 mM EDTA (+ proteasa eta fosfatasa inhibitzaileak)




7. irudia. Arratoi helduaren garun-kortexetik abiatuta, mintzen azpifrakzioak isolatzeko prozeduraren eskema.

1.3 Garun-Kortexeko Nukleo Osoak Isolatzeko Prozedura

Nukleo osoen lorpenerako erabilitako Sprague-Dawley arratoien kortexak, zuzenean eskuratuak izan eta gero edo -80°C-tara izoztuak eta biltegiratuak izan eta gero prozesatu genituen. Bi kasuetan, ehuna, proteasa inhibitzaile eta 0,32 M sakarosa soluzio nukleobabesle batean (0,32 M sakarosa; 0,5 µM PMSF; 50 µM iodoazetamida; 1 mM MgCl₂) sartu genituen desizoztu eta pisatu ahal izateko. Ehuna pisatu ondoren, proteasa inhibitzaile eta 2 M sakarosa soluzio (2 M sakarosa; 0,5 µM PMSF; 50 µM iodoazetamida; 1 mM MgCl₂) batera pasatu genuen (1:5 p/b gutxi gorabehera) txikitu eta homogeneizatu ahal izateko. Prozesu hau, irabiagailu elektriko (RSLAB 13/20) batera akoplatutako teflonezko enbolo batekin beirazko Potter-Elvejem batean egin genuen (aparailu honen ezaugarriak gorago aipatuak izan dira). Ehuna ondo txikitu zedin, Poterraren eta enboloaren arteko hutsunean zehar hamar aldiz pasarazi genuen, enboloa 800 rpm-ko abiadurara biratzen zuen bitartean igo eta jaitsiz. Esekidura homogeneo bat lortu genuenean, 2 M sakarosa soluzioaren beste 24 ml gehitu genizkion, eta ondoren, mintz meningeoen aztarnak eta homogenizatu gabeko agregatuak kentzeko, gaza batean zehar iragazi genuen. Lortutako iragaziari 50 mililitroko bolumen finala lortzeko beharrezko 2 M sakarosa soluzioa gehitu genion (guztira 1:10 p/b) eta homogeneizadore berdinarekin berriro nahasi zen. Ondoren, bolumen guztia plastikozko 4 zentrifuga-hodietan banatu eta 64000 xg-tara (22500 rpm), ordubetez eta 4°C-tan ultrazentrifugadore batean (XL-90, Beckman Coulter; SW40Ti errotorea; 331302, Beckman) zentrifugatu genuen. Prozesuarekin lortutako lau pelletak, (nukleo osoen frakzioa -N frakzioa-), sikatu eta TM-2 + 0,32 M sakarosa (0,32 M sakarosa; 10 mM Tris-HCl; pH 7,4; 2 mM MgCl₂; 0,5 mM PMSF; 50 µM iodoazetamida) tanpoian berreseki ziren nukleo guztiak elkartu ahal izateko. Ondoren, lortutako nukleoekin esekidura 20 G- eta 21 G-tako xiringa-orratzetatik 10 aldiz astiro-astiro pasatu genuen nukleo-agregatuak askatzeko eta 15000 xg-tara, 5 minutuz eta 4°C-tan zentrifugatu genituen. Zentrifugazio honekin, nukleoekin frakzioa garbitu eta purifikatu egiten dugu. Azkenik, gainjalkina baztertu eta nukleoak pellet siku bezala -80°C-tan gorde genituen.

METODOAK


TM2 Tanpoia: 10 mM Tris-HCl, pH7,4; 2 mM MgCl₂; 0,5 mM PMSF; 50 µM iodoazetamida (+ proteasa eta fosfatasa inhibitzaileak)



8. irudia. Arratoi helduaren garun-kortexetik abiatuta, nukleo osoen purifikazioaren eskema.

METODOAK

1.4 Garun-Kortexeko Nukleo Osoen Azpifrakzioen Banaketa



9. irudia. Arratoi helduaren garun-kortexetik isolatutako nukleoien azpifrakzionamendua erakusten duen eskema.

METODOAK

Nukleo osoak sekuentzialki frakzionatzeko, Payrastre eta kolaboratzaileek deskribatutako metodoa eraldaketa txiki batzuekin burutu genuen (Payrastre et al., 1992). 30 arratoien garunetatik eratorritako nukleo osoak (~ 15 mg prot.) TM2 0,32 M sakarosa tanpoiaren (0,32 M sakarosa; 10 mM Tris-HCl, pH 7,4; 2 mM MgCl₂; 0,5 mM PMSF; 50 µM iodoazetamida; 1 µM mikrozistina) 15 ml-tan berreseki genituen. Behin esekita, 3 ml hartu (~ 3 mg prot.) eta 15 eppendorf hodietan banatu genituen. Soberako 12 ml, ordea, 12 ml-ko bi zentrifuga-hodietan banatu genituen eta ondoren 1500 xg-tara, 4°C-tan eta 5 minutuz (eppendorffen errotorearen kasuan 4000 rpm eta 12 ml-ko hodien errotorearen kasuan 3800 rpm) zentrifugatu genituen. Lortutako gainjalkina baztertu genuen. Zentrifugaziorako erabilitako zentrifugadorea, hoztutako abiadura handiko zentrifugadorea (Centrikon T-42K; Kontron) A-21C errotorearekin eppendorffen kasurako eta A-19C errotorerekin 12 ml-ko hodien kasurako izan zen. 15 eppendorffetan lortutako pelletak (~ 200 µg/eppendorf), N frakzia alegia, BCA bidezko proteina determinazioa, *Western Blot* entseguak eta aktibilitate entzimatikoko entseguak burutzeko -80°C-tara gorde genuen. 12 ml-ko hodietan lortutako pelletak bestalde (hasierako nukleoentzako 4/5), CSK 100 + %0,5 TX-100 pH 6,8 (100 mM NaCl; 0,3 M sakarosa; 3 mM MgCl₂; %0,5 TX-100 (b/b); 0,5 mM CaCl₂; 10 mM PIPES; 50 µM iodoazetamida; 1 µM mikrozistina) tanpoiaren 1400 µl-tan berreseki genituen ondoren esekidurak batzeko. Esekidura, pipeta batetik lehenengo eta ondoren 20 G- eta 21 G-tako xiringa-orratzetatik 5 aldiz pasarazi genuen agregatuak desegiteko. Ondoren, 7 minutuz izotzeta inkubatu genuen tritoiak eragin zezan. Inkubatu eta gero, 800 xg-tara zentrifugatu genuen lagina eta lortutako gainjalkinak (TX-100ean solugarriak diren proteinak -S1/TX-100 frakzia-), bateratu eta gorde genuen. Pelleta, 1400 µl CSK 100 tanpoiarekin berreseki eta 7 minutuz izotzeta inkubatu genuen berriro ere. 800 xg-ko bigarren zentrifugazio baten ostean, lortutako gainjalkina, lehen lortutako S1/TX-100 frakziaarekin batu genuen. S1/TX-100 gainjalkin guztia alikuotatu eta gorde egin genuen. Prozedimenduan berreskuratutako pelleta, nukleoideen pelleta (Nu frakzia), alegia, CSK 50 pH 6,8 tanpoiaren (0,3 M sakarosa; 50 mM NaCl; 3 mM MgCl₂; 10 mM PIPES; 0,5 mM PMSF; 50 µM iodoazetamida; 1 µM mikrozistina) 2800 µl-tan berreseki genuen, 20G- eta 21 G-tako xiringa-orratzetatik 5

METODOAK

aldiz pasatu eta bolumen final zehatz batera eraman genuen (3300 µl). Nukleoide esekiduraren bolumen honetatik, 600 µl (~ 1,9 mg) hartu eta 1500 µl-ko bolumen final batera diluitu genituen CSK 50 tanpoi gehiago erabiliz. Bolumen hau, 15 hoditan banatu eta 10000 xg-tara 5 minutuz eta 4°C-tan zentrifugatu zen. Gainjalkina baztertu eta pelletak (Nu frakzioa) *Western Blot*-erako, BCA bidezko proteina determinaziorako eta aktibitate entzimatikoko entseguetarako gorde genituen. Gelditzen ziren nukleoideak (2730 µl; ~ 8,4 mg), DNAsa I 350 UI-ekin (70 µl) 30 minutuz eta 37°C-tan inkubatu genituen. Ondoren, esekidurari, 2 M (NH)₂SO₄ soluzioaren 410 µl tantaka gehitu genizkion (bukaerako kontzentrazioa ~ 0,25 M) eta izotzetan 15 minutuz inkubatu genuen (bolumen totala ~ 3210 µl). Bolumen guztia, 20 eppendorff hoditan banatu (~ 152 µl/hodi) eta 2000 xg-tara, 10 minutuz eta 4°C-tan zentrifugatu genuen. Lortutako gainjalkina (DNArri lotutako proteinen frakzioa, S2/DNAsa) berreskuratu, elkartu eta 20 eppendorffetan aliquotatu genuen. Alikuota hauek -80°C-tara gorde ziren. Zentrifugazio honetan lortutako pelletak, Matrize Nuklearra (NM frakzioa; ~ 220 µg/eppendorf), alegia, Masa Espektrometria eta *Western Blot*-erako -80°C-tara biltegiratu genituen ere.

2. PROTEINA KONTZENTRAZIOAREN ESTIMAZIOA GARUNEKO LAGINETAN

2.1 Proteina Kontzentrazioaren Estimazioa: Bradford Metodoa

Frakzionamendu ezberdinen bidez lortutako laginen proteina-kontzentrazioa zehazteko, Bradford Mikrometodoa erabili genuen (Bradford, 1976). Kontzentrazio ezaguneko (2 mg/ml) γ -globulina proteinaren soluzio komertzialetik abiatuta diluzio ezberdinak egin eta patroizuzen bat eraiki genuen. γ -globulinaren soluzio komertziala 80 aldiz diluituz, 25 µg/ml kontzentrazioa daukan ama-soluzio bat lortzen da. Ama-soluzio honetatik, 4 diluzio seriatu (10; 7,5; 5 eta 2,5 µg/ml) burutu genituen eta zuria izango den saiodi bat disolbatzailearekin uzten da (2. Taula). Bestalde, lagin esperimentalaren ama-soluzioa estandar zuzenak barne hartzen duen linearitate tartean egon dadin eta beraz, lortutako absorbantzien erlazio lineala konparagarria izan dadin, estandar zuzenaren kontzentraziotik hurbil egon beharko da. Hau lortzeko, bere hasierako kontzentrazioa estimatu eta 25 µg/ml kontzentrazioa lortzeko diluzioa egin genuen. Ondoren, estandarrarekin bezala, laginaren diluzio seriatuak egin genituen. Absorbantziak neurtu ahal izateko, saiodi guztiei 200 µl Bradford erreaktibo gehitu genizkien eta 5 segundutan zehar bortxatu genituen. Erreaktiboa proteinekin erreakzionatu zezan 10 minutuz ingurune tenperaturan inkubatu genuen. Ondoren, espektrofotometro batekin 595 nm-ko uhin luzeeran saiodien absorbantziak neurtu genituen. Lortutako absorbantzia baloreei zuriaren balorea kentzen zaie eta absorbantzia vs. kontzentrazioa grafiko batean errepresentatu egiten dira. Lortutako puntu esperimentalekin, erregresio lineal zuen bat eraiki genuen. Laginarekin prozedura berdina errepikatu genuen. Estandarraren eta laginen puntu esperimentalen erlazio lineala azaltzen dituzten ekuazioak lortu genituenean, laginaren kontzentrazioa ondoko formularen bitartez kalkulatu genuen:

$$[\text{Proteina}]_{\text{lagin}} = m'/m \times 80 \times 25 \mu\text{g/ml}$$

Non m' eta m lagina eta estandarraren erregresio linealaren bidez lortutako zuzenen maldak diren hurrenez hurren, 80 zenbakia, γ -globulina soluzio komertzialaren diluzio heina

METODOAK

den eta $25 \mu\text{g/ml}$ kontzentrazioa, γ -globulina soluzio komertziala 80 aldiz diluitzearen ondorioz lortutako ama-soluzioaren kontzentrazioa den.


γ-globulina estandarra ($25 \mu\text{g/ml}$)			Lagin esperimentalak	
[γ-globulina]= $\mu\text{g/ml}$	γ-globulina estandarra (μl)	$\text{H}_2\text{O} (\mu\text{l})$	Lagin esperimentalak (μl)	$\text{H}_2\text{O} (\mu\text{l})$
0	0	1000		
2,5	100	900	100	900
	200	800	200	800
7,5	300	700	300	700
10	400	600	400	600

2. taula. Bradford mikrometodoan erregresio linealen zuzenak eraikitzeko sortu beharreko diluzioen osagaiak. Ezkerreko zutabeen adierazitako kontzentrazioak X ardatzeko puntuak dagokie. Kontzentrazio horien Y ardatzeko puntuak lortzeko, diluzioak ondoko zutabeek adierazi bezala egin beharko dira.

2.2 Proteina Kontzentrazioaren Estimazioa: Azido Bizinkonnikoaren Entsegua

Azido bizinkonnikoa (*Bicinchoninic Acid*, BCA), gatz sodiko eran dagoenean, ingurune alkalinoan ioi kuprosoekin (Cu^{1+}) konplexu ubel-bizia eratzeko gai da. Konplexu honen absorbantzia maxima 562 nm-tan ematen da. Ingurune alkalinoan baita ere, ioi kuprikoen (Cu^{2+}) eta proteinen arteko erreakzioaren ondorioz (Biuret erreakzioa), Cu^{1+} ioia eratzen da. Ingurune alkalinoan beraz, bi erreakzio hauek emango dira eta ondorioz, proteina kantitatearen araberako tonalitatea hartuko du soluzioak. Guk, soluzio honen absorbantzia 562 nm-tan neurtu ahal izango dugu. Hau da funtsean metodo analitiko honen oinarria. Erreaktiboaren egonkortasunak eta kromoforoak, proteinen kuantifikaziorako erraza, azkarra eta oso sentikorra den metodo hau ahalbidetzen dute (0.5-30 μg -ko proteina tarteak edo 0.01-0.6 mg/ml). Gainera, beste kuantifikazio metodoetan eragina duten konposatuekiko tolerantzia erakusten du.

METODOAK



Metodo honen bitartez proteina kantitateak determinatu ahal izateko abcam-en BCA proteina-kuantifikazio *kit*-a (abcam, ab102536) erabili genuen. Kitak dakarren BSA (*Bovine Sero Albumin*, Behi Albumina Serikoa) soluzio komertzial batetik abiatuta “stock soluzio” delakoa eratzen da. Honetatik abiatuta, BSA patroi-zuzena eraiki genuen. Soluzio komertzialaren kontzentrazioa 10 mg/ml da eta “stock soluzioa” lortzeko, 0,64 mg/ml kontzentraziora arte diluitu genuen. Kontzentrazioa hau, sentikortasun-tartearen disoluziorik kontzentratuena da (8. saiodia) eta honetatik abiatuta, diluzio seriatuak egin genituen. Zuria eta beste 7 diluzio seriatu egiten dira guztira, bakoitzean kontzentrazioa erdira diluitzen delarik (1:2) (ikus 3. taula). Puntu bakoitzeko 2 duplika egiten dira baloreen batezbestekoa lortu ahal izateko. Lagin problemaren kasuan, kontzentrazioaren estimazio bat egin genuen eta 0,6-0,01 mg/ml tartean sartzeko behar haina diluitu genuen. Disoluzio hau abiapuntutzat

Saiodia	Abiatze disoluzioa	Buffer (μl)	Kontzentrazioa (mg/ml)
8	256 μl Stock Sol.	144	0,64
7	8 (200 μl)	200	0,32
6	7 (200 μl)	200	0,16
5	6 (200 μl)	200	0,08
4	5 (200 μl)	200	0,04
3	4 (200 μl)	200	0,02
2	3 (200 μl)	200	0,01
1		200	0

3. taula. BCA metodoaren bitartez BSA (Behi Sero Albumina) estandarraren zuzena eraikitzeo beharrezko puntuak lortzeko egin beharreko diluzioak zehazten dituen taula. Erregresio lineala aztertu beharreko puntuak, diluzio hauek emandako absorbantziaz izan ziren.

hartuta, hiru diluzio seriatu egin genituen, bakoitza aurrekoaren erdira diluituz (1:2). Kasu honetan ere, puntu bakoitzeko bi duplika egin genituen. ELISA plaka baten putzu bakoitzean, BSA disoluzio estandarraren edo laginaren 50 μl eta kitak dakartzan agente kupriko eta BCA

METODOAK

(1:50) nahasketa baten 100 µl gehitu genituen. Nahasketa hauek astiro eraginez ordubetez 37°C-tara inkubatu genituen. Ondoren, absorbantziak, mikroplaka-neurgailu (Tecan®, Sunrise) batekin neurtu genituen. Lortutako absorbantzien baloreak (duplicen batazbestekoak) absorbantzia vs. kontzentrazio grafikoa batean irudikatzen dira. Puntuen erregresio linealaren bitartez zuzenak kalkulatu eta laginaren hasierako proteina kantitatea horrela kalkulatu genuen:

$$[\text{Proteina}]_{\text{lgin}} = m'/m \times n \times 0,64 \text{ mg/ml}$$

Non m' eta m laginaren malda eta estandarraren maldak diren hurrenez hurren, n , hasierako laginaren diluzio-heina den eta $0,64 \text{ mg/ml}$ estandar soluzioaren hasierako kontzentrazioa den.

3. IMMUNOHISTOKIMIA ARRATOIAREN GARUN-KORTEXEKO EBAKETA HISTOLOGIKOETAN

Ebaketa histologikoak desizotterakoan DMSO guztiz kentzeko, PBS tanpoian garbitu genituen 30 minutuko bi garbiketa eginez. Ebaketak, flotazio askean eta agitazio arinarekin mantendu behar dira prozesu osoan zehar. Ondoren, izan zezaketen peroxidasa endogeno aktibitatea inhibitzeko, H₂O₂ %1 (b/b) soluzioan 20-30 minutuz inkubatu genituen. Jarraian, antigorputzen lotura-toki inespezifikoak blokeatzeko, ebaketak, ordubetez blokeo tanpoian eta ingurune tenperaturan inkubatu genituen. Blokeo tanpoia, serum normalez %1 (b/b) (antigorputz sekundarioa sortu zeneko espeziearena -Vector Laboratories-) eta BSAz %1 (p/b) osatuta zegoen PBS tanpoian. Jarraian, ebaketak gau osoan zehar 4°C-tan blokeo tanpoian esekitako antigorputz primarioarekin (urreko esperimentuetan optimizatutako kontzentrazioan) inkubatu genituen. Antigorputz primarioen markaketaren espezifikotasuna ikertu zeneko kasuan, ebaketak hauekin inkubatu aurretik, antigorputz primarioa eta zegokion peptido blokeatzailea (1:5) 2 orduz inkubatu genituen ingurune tenperaturara. Hurrengo egunean, antigorputz primario askeak edo inespezifikoki lotutakoak ezabatzeko, 10 minutuko 3 PBS garbiketa egin genituen. Ondoren, ebaketak biotinilatutako antigorputz

METODOAK

sekundarioarekin (Vector Laboratories) inkubatu genituen (1:200) blokeo tanpoian, Ordubetez eta ingurune tenperaturara. Ordua pasata, ebaketak berriz garbitu genituen 10 minutuko 3 zikloetan zehar eta ABC-rekin (Avidina-biotina konplexua) (1:200) PBS tanpoian ordubetez inkubatu genituen. Errebelatu aurretik, beste 10 minutuko 3 garbiketa egin genituen. Lehenengo biak PBSan eta hirugarrena 0,05 M Tris-HCl; pH 7,4 tanpoian. Erreakzio immunohistokimikoa ikusi ahal izateko, antigorputz sekundarioak buztanean daramaten biotinaz baliatuz kolore arrea hartzen duen erreakzioa bultzatu beharra dago. Horretarako, ebaketak errebelaketa medioan (0,05 M Tris-HCl; pH 7,5; %0,05 DAB (p/b); %0,01 H₂O₂ (b/b)), ingurune tenperaturara eta 5 minututan zehar inkubatu genituen. Azkenik, 10 minutuko 3 PBS garbiketa egin genizkien ebaketei DAB eta H₂O₂ guztia kentzeko eta era horretan erreakzioa gelditzeko. Tindatutako ebaketak, gelatinizatutako portetan muntatu genituen, guztiz sikatu arte utzi eta graduazio gorakorreko alkohol ezberdinekin eta azkenik xilenoarekin deshidratatu genituen. Bukatzeko, erretxina (DPX, Fluka) eta estalkiekin estaldu ziren mikroskopioan behatu ahal izateko.

4. WESTERN BLOT PROTOKOLOA

Lan honetarako burututako *Western blot*-ak aldez aurretik deskribatuta izan den erara (Garro et al., 2001; López de Jesús et al., 2006; Montana et al., 2012) aldaketa txiki batzuekin burutu genituen. Leginak bi modutara tratatu genituen. Alde batetik, legina eta UREA 4X desnaturizazio tanpoia (300 mg urea; 50 mg SDS; 120 mg DTT; 500 µl 100 mM Tris-HCl; pH 8,0; 6 µl bromofenol urdina %1 (p/b)) (3:1) proportzioan nahastu genituen eta 5 minutuz 60°C-tara irakin. Bestetik, legina eta UREA 1X desnaturizazio tanpoia (500 µl UREA 4X, 200 µl Glizerol, 1300 µl H₂O) (1:1) proportzioan nahastu eta 60°C-tara irakin genuen. Desnaturalizatutako proteinak, elektroforesi bidez poliakrilamida %10 gel batean zehar korritu genituen. Teknika hau, SDS-PAGE izenez ezagutzen da. Horretarako, Mini Protean II (BioRad, Hércules, CA, USA) ekipoa, 100 V-tara, izotzarekin inguratuta hoztua eta proteina frontea gel guztia zeharkatzeko behar haina denbora utziaz erabili genuen. Proteina gelean zehar pisu molekularren arabera banatutakoan, oreka handiagoa lortzeko asmoz, metanol

METODOAK

puruarekin aktibatutako PVDF (*polyvinylidene fluoride*, polibinilideno fluoruroa) mintz batera transferitu genituen. Horretarako, gau osoa 4°C-tan eta 30 V-tara Mini TransBlot (BioRad, Hércules, CA, USA) ekipoa erabili genuen. Hurrengo egunean, mintzak ur distilatuarekin garbitu eta guztiz lehortu genituen. Orduan, metanol puruarekin berhidratatu eta azido azetiko %7 (b/b) eta metanol %10 (b/b) zeukan disoluzio batean 15 minutuz, ingurune tenperaturara eta agitazioan inkubatu genituen. Behin inkubatuta, PBS-T garbiketa tanpoiarekin (0,2 M PB; pH 7,5; Tween-20 %0,1 (b/b)) garbitu genituen ingurune tenperaturan. Egon zitezkeen lotura-toki inespesifikoak blokeo tanpoiarekin (0,2 M PB, pH 7,5; %0,2 Tween-20 (b/b), esne-hauts gaingabetua %5 (p/b), BSA %0,5 (p/b) ordu betez eta ingurune tenperaturara agitazioan inkubatuz blokeatu genituen. Ostean, antigorputz primarioak gau osoan zehar 4°C-tara beharrezko kontzentrazioetan eta agitazio arinean inkubatu genituen esne-hautsik gabeko blokeo tanpoian. Hurrengo goizean, mintz bakoitzari PBS-T tanpoiarekin 10 minutuko 3 garbiketa egin genituen eta ondoren, (1:10000) edo (1:15000) diluitutako errefau-peroxidasaarekin (HRP) konjokatutako antigorputz sekundarioak (antigorputz primarioen espeziekiko espezifikoak) inkubatu genituen, 90 minutuz eta inguruneko tenperaturara esne-hautsarekin eginiko blokeo tanpoian. Lortutako immunomarkaketaren errebelaketarako, Clarity Western ECL sistema (BioRad) fabrikatzailaren argibideen arabera erabili genuen. Sortutako kemiluminiszentzia seinalea X-izpi filmean zuzenean eskuratu edota ImageQuant 350 (GE Healthcare) sistemaren bitartez eskuratu eta digitalizatu genuen.

5. IMMUNOFLUORESZENTZIA ETA MIKROSKOPIA

5.1 Immunofluoreszentzia Arratoien Garun-Kortexeko Nukleo Osoetan

5.1.1 Nukleozen Zenbaketa eta Ereinketa

Nukleoak zenbatu ahal izateko, “Metodoak” kapituluan azaldutako protokoloaren bitartez nukleo osoak lortu genituen. Gordetako azken esekidura horretatik 10 µl hartu eta TM2 tanpoiaren (10 mM Tris-HCl; pH 7,4; 2 mM MgCl₂; 0,5 mM PMSF; 50 µM iodoacetamida) 90 µl-rekin nahastu genituen, horrela lagina diluituz. Diluzio honen bolumen bat Neubauer

METODOAK

ganberara eraman eta 5 zeldatan kontatutako (ganberaren alde bietan) nukleo kopuruaren batazbestekoa (n) kalkulatu genuen. Mililitroko nukleo kopurua kalkulatzeko, ondorengo formula aplikatu genuen:

$$\boxed{Nukleo/ml = \left(\frac{Nukleo\ Kop.}{0,004 * n} \right) x 1000 x 10}$$

Non 1000 eta 10 biderketa faktoreak, 1 ml esekidura bolumen batetik abiatu izanagatik eta kontaketa egiteko erabilitako diluzio faktorea izanagatik diren hurrenez hurren.

Nukleo kopurua behin kalkulatuta, mililitro bateko esekidura bat egin genuen zeinaren kontzentrazioa 2×10^6 zel./ml zen. Hemendik abiatuta, nukleoak gelatinizatutako portetan erein genituen esekiduraren 25 µl bakoitzean sakabanatuz. Portak ingurune tenperaturan guztiz lehortzen utzi eta -80°C-tan biltegiratu genituen erabiliak izan arte.

5.1.2 Immunofluoreszentzia Prozedura

Lehenik, nukleoekin ereindako gelatinizatutako portak tarte batez ingurune tenperaturara atera genituen nukleoak desizoztu zitezenean. Sakarosa guzia kentzeko, kontu handiz TM2 tanpoian lau aldiz murgildu genituen. Behin sakarosaz garbi egonda, immunofluoreszentzia egiteko eremurik egokiena aukeratu eta laka komertzialarekin mugatu genuen. Sikatutakoan, nukleoak %4 paraformaldehido soluzioarekin inkubatu genituen 5 minutuz eta ingurune tenperaturara. 10 minutuko 3 garbiketa egin genituen garbiketa tanpoiarekin (0.1 M PB, pH 7,4). Ondoren, nukleoek izan zitzaketen lotura-toki inespezifikoak gelatinazko tanpoi histologiko batekin (%0,22 gelatina (p/b); 0,1 M PBS, pH 7,4; BSA %1 (p/b); animali serum normala %1 (b/b); espeziea, antigorputz sekundarioak sortu zireneko espeziearen berdinekoak) blokeatu genituen ordubetez eta inguruneko tenperaturan. Antigorputzen diluzioak eta inkubazio osteko garbiketak ere gelatinadun tanpoi histologiko berberarekin egin genituen. Lotura-toki inespezifikoak blokeatu eta gero, nukleoak gau osoan zehar antigorputz primarioen diluzio egokiekin (ikus 1. taula) eta 4°C-tan inkubatu genituen. Hurrengo goizean, nukleoei, 10 minutuko 3 garbiketa egin eta buztanean fluoroforoa

METODOAK

zeukaten antigorputz sekundarioekin inkubatu genituen (1:400) 90 minututan zehar ingurune tenperaturan. Inkubaketa hau iluntasunean egin genuen floroforoak ahalik eta gutxien kitzikatzeko.

Immunomarkaketa bikoitza era berdinean burutu genuen baina kasu honetan, antigorputzak banaka jarri beharrean, epitopo ezberdinaren aurkako antigorputz primarioen nahasketak eta fluoroforoekin konjokatutako antigorputz sekundario espezie-espezifikoen nahasketak inkubatu genituen.

Nukleo zelular guztiak Hoechst 33342 kromatina markatzailearekin kontratindatu genituen. Azkenik, mikroskopioaren bidez aztertu ahal izateko, Mowiol muntai-medioarekin beirazko portetan muntatu genituen estalkiak.

5.2 Immunofluoreszentzia Arratoien Garun-Kortexeko Ebaketa Histologikoetan

Ebaketak immunotindatzeko lehenengo ingurune tenperaturan desizoztu genituen. Kortex, hipokanpo eta zerebeloko eremuetako ebaketak aukeratu ondoren DMSO aztarnak PBS-T tanpoiarekin garbituz kendu genizkien. 10 minutuko 3 garbiketa egin eta gero, ebaketetako lotura-toki inespezifikoak blokeo tanpoian (%0,22 gelatina (p/b); 0,1 M PBS, pH 7,4; BSA %1 (p/b); animali serum normala %1 (b/b)) ordu betez, inguruneko tenperaturara eta agitazio arinean inkubatuz estali genituen. Hemendik aurrerako prozedura esperimentalak nukleoetako immunofluoreszentzia esperimentuetan erabilitako prozedura berdina izan zen. Kasu honetan, ebaketak emeki eragin ziren uneoro.

5.3 Immunofluoreszentzia Transfektatutako Zeluletan

Zelulak %4 paraformaldehidoan fixatu genituen, 10 minutuz giro tenperaturan. Ondoren, 10 minutuko hiru garbiketa egin genuen garbiketa tanpoian (0,1 M PBS pH 7,4; %0,22 gelatina (p/b)). Ostean, mintzen permeabilizazioa eta lotura inespezifikoen blokeoa lortzeko, zelulak ordubetez inkubatu ziren TX-100 %0,2an, blokeo tanpoian (garbiketa tanpoia, ahuntz suero normala % 1 (b/b) -NGS-) disolbatuta. Jarraian, zelulak antigorputz primario bikoteekin (mouse anti-HA/rabbit anti-DAGL α , mouse anti-NPCx/rabbit anti-DAGL α , blokeo tanpoian

METODOAK

diluituta, aldez aurretik finkatutako kontzentrazioak erabiliz -ikus 1. taula-) inkubatu genituen gau osoan zehar 4°C-tan. Hurrengo egunean, zelulak 3 aldiz garbitu genituen (10 min bakoitzeko) garbiketa tanpoian. Antigorputz sekundarioekin (anti-mouse Alexa Fluor 488/anti-rabbit Alexa Fluor 568, blokeo tanpoian 1:400 diluituta) ordubetez inkubatu ondoren, zelulak 2 aldiz garbitu genituen. Azkenik, Hoescht 33342 kromatina markatzailearekin inkubatu genituen 10 minutuz eta, bi garbiketa gehiago burutu ondoren, Mowiol medioarekin estali genituen, polimerizazioa gerta zedin.

5.4 Immunofluoreszentzia-Markaketaren Azterketa

Mikroskopia irudi guztiak Carl Zeiss Axio Observer.Z1 epifluoreszentzia mikroskopioarekin lortu genituen. Aparatua, HXP120C haluro metalikoko lanpara eta erresoluzio handiko AxioCam MRm (1388 X 1040 pixel) kamera monokromatikoarekin hornitua dago, biak Carl Zeiss Microimaging, Inc. (Gottingen, Alemania) enpresarenak.

Ohiko epifluoreszentzia-irudiak 20x Plan-Apochromat (NA 0,8) objektiboarekin egin genituen. Erresoluzio handiagokoak aldiz, ApoTome argiztapen estrukturatuko moduluarekin eta XYZ-n motorizatutako plataforma batekin (Carl Zeiss Microimaging, Inc.) 63x Plan-Apocromat (NA 1,4) objektiboarekin egin genituen. Sekzio optikoak (Z ardatzean 0,24 µm-ko tarteak) Zeiss ApoTome aparatuarekin lortu genituen. Honetarako, kameraren konfiguraziora, 0,01 µm²-ko pixel tamaina lortzeko prestatu genuen. Erabili genituen argi-filtroak 49 DAPI (Ex G 365/Em 445/50) Hoechst tindaketarako, 38 He eGFP (Ex 470/40. Em 525/50) Alexa Fluor 488 fluoroforoarentzako eta 43 HE Cy3 estatikoa (Ex 550/25, Em 605/70) Alexa Fluor 568 fluoroforoarentzako izan ziren. Lortutako irudiak digitalizatzeko Zeiss Axiovision 4,8 (Carl Zeiss Microimaging, Inc.) softwarea erabili genuen. Kanal bakoitzari pseudokolore bat egokitutzen eta ebaketa optiko gainjartzea eta irudiaren baloreen egokitzapena ImageJ softwarearekin (NIH, Bethesda, MD, USA) burutu genuen. Ilustraziorako, irudiak TIFF formatura esportatu eta Adobe Photoshop Cs6 (San José, CA, USA) programarekin etiketatu genituen.

6. LC-MS BIDEZKO 2-AG METAKETAREN NEURKETA

6.1 Baldintza Esperimentalak

2-AGaren ekoizpen eta degradazio prozesuetan parte hartzen duten entzimen funtzionaltasuna ikertzeko, honen metaketa arratoi garun kortexeko nukleo osoetan eta matrize nuklearrean neurtu egin genuen. Honetarako, bi prozedura esperimental ezberdin jarraitu genituen. Bi kasuetan, Shoney eta kolaboratzaileek (Shonesy et al., 2013) sagu estriatuko mintz plasmatikoen prestakinetan proposatutako entseguia jarraitu egin genuen aldaketa batzuekin.

Nukleo osoetan DAGLaren menpeko 2-AGaren ekoizpena neurtu genueneko kasuan, entsegu-tanpoi bezala 50 mM Tris-maleato, pH 7,4; 100 mM NaCl eta 0.32 M sakarosa erabili genituen. Medio honetara, hau 37°C-tara epelduta egonik, aldez aurretik aukeratutako PLC β eta DAGL α aktibatzairen eta inhibitzaileen kontzentrazio egokiak gehitu genizkion. Erreakzio-produktu zein substratuen adizio inespezifikoak ekiditeko, entseguak silikonatutako eppendorffetan egin genituen. Eppendorff bakoitzeko 200 μ g proteina nuklear gehitu genuen, eta guztira, 500 μ l-ko bolumena lortu zen. Ca²⁺ ioiaren efektuak ikertu genitueneko kasuan, entsegu tanpoira 3 mM EGTA eta Ca²⁺ askea lortzeko behar haina CaCl₂ gehitu genuen. Inkubazioak, 30 minutuz 37°C-tara egin genituen. Erreakzioak gelditzeko, saiodiok izotzetan murgildu genituen. 50 nM estandar (2-AG-d5) eta beharrezko kontzentraziora zegoen 2-AGaren forma naturala 20 μ l azetonitrilotan disolbatu egin genituen. Disoluzio hau, saiodi bakoitzera gehitu genuen. Frakzio nuklearra, TissueLyser II (Qiagen, Valencia, CA, USA) aparatuaren laguntzarekin homogeneizatu genuen. Nukleo osoen homogeneizazioa Etilazetato/hexanotan (9:1, b/b) disolbatu eta 10 segunduz sonikatu genuen (5 mm-tako altzairuzko bolatxoak 30 Hz-etako frekuentzian). Ondoren, saiodiak 10000 xg-tara 10 minutuz eta 4°C-tan zentrifugatu genituen. Lortutako fase organikoa berreskuratu eta N₂ iturri bat erabilita sikatu egin genuen. Azkenik, sikatutako lagina azetonitrilo 500 μ l-rekin berdisolbatu genuen. Berriro sonikatu eta bortexatu eta gero, analisia, LC-MS/MS sisteman oinarrituta Schultek deskribatutako (Schulte et al., 2012) erara burutu genuen. Sistema hau,

METODOAK

6410 Triple Quad masa espektrometroak (Agilent Technologies; Wilmington, DE, USA) osatzen du. Triple Quad hau, ioi-positibo eran jarduten duen ionizazio-elektrospray batekin eta “1200-series” ponpa binarioarekin ekipatuta dago. 2-AGa, Phenomenex Luna 2.5 µm C18 (2)-HST (High Speed Technology) 100 9 2 mm-ko zutabearekin banatu genuen. Zutabe hau, Security Guard aurrezutabe bati (C18, 4 9 2 mm; Phenomenex; Torrance, CA, USA) bateratua dago eta berton, A (%0.1 20:80 azetonitrilo/ura, b/b) eta B disolbatzaileak (%0,1 azido formiko azetonitrilotan) gradiente hauetan erabili genituen: %55–90 B (0-2 min), ondoren %90 B (2-7.5 min) eta azkenik %55 B (7.5-10 min). Zutabearen temperatura 25°C, 0,3 ml/minutuko lagin fluxua eta injekzio bolumena 10 µl izan ziren. Zutabeko orratza, injekzio bat eta hurrengoaren artean, ura/azetonitrilo (80:20) eluente bezala zeukan “flushport”-arekin 60 segunduz garbitu genuen. Elektrospray ionizatzailaren interfasean, nebulizadore gisa eta gas-disolbatzaile gisa nitrogenoa erabili zen horrela konfiguratuta: 350°C-tako temperatura, nebulizadorearen presioa 40 psi, eta kapilarraren boltaia +4800 V. Erreakzio anizkunen monitorizazioan (MRM) ondorengo ioi trantsizioak erabili genituen (nukleo osoetako zein NMko kasuetan): 2-AG m/z 379,287tik 287ra (2-AG-d5 m/z 384,2287), AA m/z 305etik 91ra (AA-d8 m/z 313tik 126ra).

DAGLaren aktibilitate entzimatikoa NMan aztertu zeneko kasuan, laginaren prestaketari dagokionez, aldaketa txiki batzuk egin genituen eta, LC-MS/MS prozedimendua aldiz, berdin mantendu genuen. Kasu honetan ere, erreakzioen produktu zein substratuen adizio inespezifika ekiditeko, entseguak silikonatutako eppendorfftan egin genituen. Tanpoi bezala 20 mM HEPES, pH 7,5; 10 mM DTT erabili genuen eta substratu bezala 1-estearoil-2-arakidonoilgizerol (DAG) beharrezko kontzentrazioan. Bolumen totala 50 µl izan ziren eta gorago azaldutako kasuan bezala erreakzioa 37°C-tan 15 minutuz inkubatu genuen agitazio leunean. Gehitutako NM proteina kantitatea 10 µg izan ziren (ikus “Emaitzak” atala). Erreakzioak 50 µl azido formiko 0,1 M-ekin gelditu genituen eta deuteratutako barne patroien 10 µl (2-AG-d5 25 pikomol eta AA-d8 100 pikomol) gehitu ondoren, izotz erretillu baten gainean jarri genituen. Ondoren, saiodi bakoitzari 1 ml etilazetato:hexano (9:1 b/b) jarri

METODOAK

genion eta aurrerantzean egindako LC-MS/MS prozedura guztia gorago azaldu den bezala burutu genuen.

6.2 Metabolito Lipidikoen Detekzio eta Kuantifikazioa

6.2.1 Diluzio Isotopikoa Adizioarekin

Teknika analitiko honekin, LC/MS teknikaren bitartez neurtutako konposatu baten seinalea konposatu beraren zenbat kantitatueri dagokion kalkulatu ahal dugu. Aztergai den sisteman ikertu beharreko metabolitoa hasieratik espresatzen deneko kasuetan erabiltzen da. Hau da, sistema baldintzatu aurretik (enzimenei aktibazioa, inhibizioa etab), neurru behar den metabolitoa naturalki existitzen da.

Gure kasuan, lehenik eta behin, saiodi guztietai 2-AG-d5 barne estandarraren kantitate berdina gehitzen dugu. 2-AGa (forma naturala) aldiz, saiodi-serie bakoitzean (serieetako lehenengo saiodietan izan ezik) kantitate gorakorrean gehitu egiten da (adizio estandarrak) 2-AG eta 2-AG-d5 elementuen arteko diluzio bat eginez (hemendik datorkio “diluzio isotopiko” izena teknikari). Gogora dezagun laginak 2-AG berezko kantitate bat daukatela aldez aurretik. Ondoren, masa espektrometroan bi 2-AG formen (naturala eta deuteratua) kantitatea neurten da. Espektrometroak, isotopo bakoitzari dagokion piko bezala ematen digu neurtutako kantitateen informazioa. 2-AG eta 2-AG-d5 pikoen azaleren arteko ratioa vs. gehitutako 2-AG kantitatea grafiko batean irudikatzen dira eta erregresio linealaren bidezko azterketa egiten da. Ikertutako sistemaren (nukleo osoak) bi egoeretan (egoera basal eta aktibatutako egoeran) prozedura hau errepikatu egiten da. Erregresio lineal bidez lortutako 2-AG/2-AG-d5 ratioen balioen zuzenek, Y ardatza balore positibo batetik moztuko dute beti, serieen lehenengo saiodietan ez baitugu 2-AG adizionatu, soilik sistemak naturalki espresatutako kantitatea dagoelarik. Beraz, Y ardatzaren puntu honetatik erregresio zuzena pasarazita X ardatza mozten duen lekua, laginaren 2-AG kantitatea seinalatuko du. Gure kasuan, aktibatutako eta aktibatu gabeko nukleo osoetako 2-AG kantitatea.

6.2.2 Diluzio Isotopikoa

Teknika honekin, aurrekoarekin bezala, gertakinetan LC/MS bidez lortutako konposatu baten seinalea konposatu beraren zenbat kantitateri dagokion esleitzeko erabili dugu. Izenak adierazten duen bezala, aurreko ataleko teknikaren oso antzekoa da. Ezberdintasun bakarra, analitoaren forma naturala ez gehitzean datza sisteman naturalki ez baita espresatzen. Kasu honetan aztertu genuen sistema arratoi kortexeko nukleo osoetatik eratorritako NM azpifrakzioa izan zen. Lokalizazio honetan gure intereseko analitoak (2-AG eta AA) aurkitzen ez zirenez, prozedura honen bitartez neurtu ziren. Funtsean, forma naturalen eta deuteratuen pikoen azaleren arteko ratioen handipenaren erregresio lineal zuen bat eratzean datza. Horretarako, 2-AG eta AA forma naturalak eta 2-AG-d5 eta AA-d8 deuteratuak erabili ziren. Lagin guzietan forma deuteratuaren kantitate berdina gehitu zen eta forma naturalen kontzentrazioa gehitzen joan zen adizionatutako kantitatea handituz. Lortutako seinaleen azaleren erratioak kalkulatu eta baloreekin erregresio lineala egin zen. Ondoren, 6.1 atalean azaldutako NMean egindako 2-AG eta AA produkzio esperimentuetan, DAG sustratua gehitu ondoren lortutako gertakinei estandar zuzena lortzeko erabili genituen forma deuteratuen kantitate berdinak gehitu (2-AG-d5 25 pikomol eta AA-d8 100 pikomol) eta lortutako seinaleen arteko ratioa estandar zuzenean ordezkatu genuen 2-AG kantitatea esleitzeko.


V.EMAIZAK

1. DAGL α ISOZIMAREN AURKAKO ANTIGORPUTZEN HAUTAKETA

DAGL α proteina garun-ebaketetan detektatzeko antigorputzik egokiena aukeratzeko asmoz, komertzialki eskuragarri zeuden lau antigorputz poliklonal frogatu genituen. Horretarako, arratoi helduaren garun-kortex ebaketetan, immunohistokimia-markaketaren distribuzioa aztertu genuen. Ondoren, immunofluoreszentzia bikoitza bidez, sakonago aztertu genuen antigorputzek emandako seinalearen distribuzioa. Hemaglutinina-etiketadun giza DAGL α (DAGL α -HA) kodetzen duen plasmido batekin transfektatutako HEK293 zelulak lehenengo bahetzetik aukeratutako antigorputzaren espezifikotasuna berresteko tresna gisa erabili genuen. Azkenik, *Western blot* entseguen bitartez, datu gehigarriak lortu genituen antigorputzen espezifikotasunaren inguruan.

N-13; Peptido antigenikoa bi domeinu estrazelularako batean kokatzen da
(44-60 / 123-136 aak.)

Af1080
Af380




- Zitoplasmatikoa
- ▨ Mintzartekoa
- ▢ Estrazelularra

10. irudia. Giza DAGL α proteinaren sekuentziaren irudikapen eskematikoa ([Uniprot, ID Q9Y4D2; http://uniprot.org](#)). Zenbakiek, aminoazido-sekuentziaren aminoazido-hondar ezberdinei dagokien posizioa adierazten dute. 538-554 hondarrek osatzen duten tartean, Motif Scanek ([http://myhits.isb-sib.ch/cgi-bin/motif_scan](#)) balizko nukleora barneratzeko seinale (NLS) deritzon kontsentsu-sekuentzia erakusten da. Hondar basikoak (horiz nabarmenduak) ikertutako ugaztun espezie guztietan kontserbatuak daude.

1.1 DAGL α -Immunomarkaketaren Distribuzioa Garun-Kortexean

Garun-kortex ebaketetan egindako immunohistokimia-entseguetarako, DAGL α proteinaren epitopo desberdinen aurkako lau antigorputz poliklonal erabili genituen. Horretarako, aldez aurretik ikusitakoaren arabera (Mitchell et al., 1993; Montana et al., 2012), immunorrektibitatea hobetzen duen fixapen-prozedura estandarraren aldaera bat erabili genuen. Prozedura estandarrarekiko aldaketa nagusia %0,37 sulfuro tanpoiaren erabilera datza, fixapenaren aurreko garbiketarako erabiltzen dena gatz-fosfato tanpoiaren ordez.




11. irudia. Arratoi kortex somatosensorialean afinitate bidez purifikatuko eta ahuntzan (Af1080) eta untxian (Af380, N-13, C-14) sortutako antigorputz poliklonalekin lortutako immunomarkaketa. Erakutsitako panoramiketan, profil somatikoak ingurune lauso batetik bereizgarriak ziren II-V geruza bitartean. Eskala-barra: 200 μ m.


Frogatu genituen lau antigorputzetako hiru untxi-poliklonalak (C-14, N-13 eta Af380) eta bat ahuntz-poliklonala (Af1080) ziren (10. irudia, 1. taula). Epitopoei dagokienez, C-14 eta N-13 sekuentzia antigenikoei buruzko informazio partziala genuen saltzaileek emandako informazioan. Hala, C-14 sortzeko erabilitako antigenoa DAGL α -ren buztan zitosolikoan (158-1042 aminoazidoak) kokatzen den sekuentzia da, saltzaileak zehazten ez duena. N-13 antigorputza sortzeko peptido antigenikoa DAGL α -ren mintz-zeharreko 1-2 edo 3-4 domeinuak lotzen dituzten bi bukle zitosolikoetako batean kokatzen da, baina sekuentzia zehatza ezezaguna da. Ordez, Af380 untxi-antigorputz eta Af1080 ahuntz-antigorputz poliklonalen immunogenoa ezaguna da, DAGL α -ren karboxilo muturraren azken 43 aminoazidoak barne hartzen dituena (10. irudia; 1. taula).

Irudi panoramikoetan, DAGL α proteinaren aurkako lau antigorputzek emandako markaketa immunohistokimikoan, inguruko ehunetik argi eta garbi bereizten ziren profil

biribilak ikus zitezkeen kortexaren II.-VI. geruzetan (11. irudia). Lau antigorputzeken lortutako markaketa profila berdintsua bazen ere, ezberdintasun xumeak antzeman zitezkeen. Horrela, Af1080, N-13 eta C-14 antigorputzeken tindatutako egitura immunopositiboen banaketa nahiko homogeneoa zen I. geruzatik VI. geruzara, Af1080 antigorputzarekin N-13 eta C-14 antigorputzeken baino zelula gutxiago detektatzen baziren ere (11. irudia). Ordez, Af380-k eragindako immunoreaktibitateak distribuzio irregularragoa zuen, markatutako zelulen dentsitatea txikiago baitzen II.-III. geruzaren beheko herenean eta IV. geruzan gainerako geruzetan baino (11. irudia). Markaketa handiagotze gehiagoko objektiboekin aztertu genuenean, lau antigorputzeken lortutako DAGLa-markaketa nukleo zelularrei zegokiela ikusi genuen arren, zitoplasman eta zenbait profil dendritikoetan seinale ahul bat ikusi bazitekeen ere (12. irudia). Nukleo antzeko partikuletan immunoreaktibitatea bi motakoa zen: erdigune zurbila inguratzen zuen eratzun periferikoa edo egitura osoa inguratzen zuen eratzuna (xehetasun gehiago, 12. irudian).



12. irudia. Arratoi helduaren garun-kortex somatosensorialeko V. geruzaren parean ateratako mikroargazkiak. Nukleo zelularrak omen ziren egitura biribilak ikus zitezkeen. Neuropiloan, ordea, markaketa lauso eta ahula baino ez zen antzeman. Irudi bakoitzean, laukitxoak mugatutako eremua behe-ezkerrean erakusten da handiagotze goreneko objektiboarekin aterata. Eskala-barra: 100 µm (25 µm behe-ezkerreko laukietarako).




13 irudia. DAGL α aurkako antigorputz-bikote desberdinek eragindako markaketen alderaketa. Bereizmen handiko immunofluoreszentzia-mikroskopioa irudiak arratoi helduaren garun-kortex somatosensorialeko V. geruzaren parean. Markaketa bikoitzak DAGL α -ren aurkako antigorputz-bikote desberdinak konbinatzu (Af1080/Af380, A-D; Af1080/N-13, F-I; Af1080/C-14, K-N) burutu ziren. Fluoreszentzia-intentsitate *plot*-etan (E, J, O), X eta Y ardatzetako balioak distantzia ($\mu\text{m-tan}$) eta seinaleen dentsitate optikoa (0-255 eskalan) dira hurrenez hurren. Fluoreszentzia-intentsitatearen kuantifikazio-grafikoa sortzeko ImageJ softwarea (NIH) erabili zen. Mikroargazki guztiek argiztapen egituratuz (ApoTome) hornitutako fluoreszentzia-mikroskopio batekin (Carl Zeiss Axio Observer) egin ziren eta 0,24 μm -ko lau ebaketa optikoren proiekzioak dira. Eskala-barrak: 20 μm (A-C, F-H eta K-M argazkietarako); 5 μm (D, I, N argazkietarako).

Especifiktasunari buruzko lehenengo datuak lortzeko asmoz, DAGL α -ren epitopo desberdinen kontrako antigorputzak bikoteka konbinatu eta immunofluoreszentzia bikoitza entseguak burutu genituen. Garun-kortexeko V. geruzan lortutako seinaleak bereizmen handiko fluoreszentzia-mikroskopio bitartez aztertu genituenean nukleo zelular gisako egiturak detektatu genituen lau antigorputzekin, immunohistokimia-tindaketetan bezala. Af1080 antigorputzak markatutako nukleo gehienak Af380, N-13 eta C-14 antigorputzek ere markatu zituzten. Nukleoz kanpo, Af1080 eta Af380 antigorputzek (baina ez N-13 eta C-14) neuropiloan sakabanatutako puntukako seinale argia ere eman zuten, aurretik deskribatutako eta elektroi-mikroskopiaz berretsitako (Yoshida et al., 2006; Uchigashima et al., 2007) markaketa postsinaptikoarekin bat datorrena. Immunofluoreszentzia-seinaleen intentsitateen *plot* bidezko azterketetan, Af1080/Af380 eta Af1080/N-13 konbinaketetan eta, neurri txikiago batean, Af1080/C-14 konbinaketan seinaleen arteko gainezarpen handia


antzeman genuen (13. irudia). Seinaleen arteko gainezарpen eskasa eta neuropilo markaketa eza esklusio-irizpide gisa hartuta, N-13 eta C-14 antigorputzak baztertu genituen.

1.2 DAGL α -ren Aurkako Antigorputzen Espezifikotasun Frogak

Espezifikotasuna aztertzeko, lehenik eta behin, Af380 eta Af1080 antigorputzak immunogenoaz preabsorbatuz emandako seinale immunhistokimikoaz ezaba zitekeen aztertu genuen. Antigorputzak peptido immunogenoarekin bi orduz preabsorbatu zirenean, ez zuten batere markaketarik eman arratoiaren garun-ebaketetan (14. irudia), antigorputzak finkatze-leku espezifikoetara lotzen direla iradokitzen duena.



14. irudia. Arratoi helduaren garun-ebaketa koronalen irudi panoramikoak. **A-B.** DAGL α -ren aurkako Af380 eta Af1080 antigorputzek emandako markaketaren. **C-D.** Immunohistokimia-prozedura peptido immunogenoarekin preabsorbatutako Af380 eta Af1080 antigorputzeken burutu zenean, immunomarkaketa erabat desagertu zen. Eskala-barra: 1 mm (A-D argazkietarako).




15. irudia. Immunofluoreszentzia bikoitz irudiak Hoescht 33342 kromatina markaketarekin konbinatuta, DAGLa-HA fusio proteina errekonbinantea kodifikatzent duen plasmidoarekin transfektatutako HEK293 zeluletan. Af380 untxi- eta Af1080 ahuntz-antigorputz poliklonalak elkarrekin (A-C) edo anti-HA sagu-antigorputz monoklonalarekin (D-G) konbinatu ziren. Kontrol negatibo gisa, zelulak soilik anti-HA sagu-antigorputzarekin inkubatu ondoren, fluoroforodun untxi, ahuntz eta saguaren aukako antigorputz sekundarioekin markatu ziren (J-I). Hiru detekzio kanalak banan-banan gris-eskalan hartu ondoren, bakoitzari pseudokolore bat esleitu zitzaison. Immunomarkaketa-profila berdina zen konbinaketa guzietan (A-I) eta, Af380 eta Af1080 antigorputzak omititu zirenean, untxi eta ahuntzaren aukako fluoroforodun antigorputz sekundarioek ez zuten seinale detektagaririk eman (J-I). Mikroargazki guztiak argiztapen egituratz (ApoTome) hornitutako fluoreszentzia-mikroskopio batekin (Carl Zeiss Axio Observer) egin ziren eta 0,24 µm-ko bost ebaketa optikoren proiekzioak dira. Eskala-barrak: 10 µm (A-I argazkietarako).

Af380 eta Af1080 antigorputzen bigarren espezifikotasun froga bezala, immunofluoreszentzia bikoitz entseguak burtu genituen DAGLa-HA konstrukzioarekin transfektatutako HEK293 zeluletan. Af380 eta Af1080 untxi-antigorputz poliklonalek emandako seinalea erabat gainezarrita zegoen transfektatutako zeluletan (15. irudia, A-C) eta, halaber, bi antigorputzek sortutako markaketek kolokalizazio birtualki osoa erakutsi zuten HA etiketaren kontrako antigorputzak sortutakoarekin (15. irudia, A-C). Beraz, DAGLa-ren karboxilo muturraren kontra doazen Af380 eta Af1080 antigorputz poliklonalek eta HA etiketaren kontrako antigorputz monoklonalak proteina multzo berdina markatzen dute. Azkenik, ikusitako seinaleren bat antigorputz sekundarioen arteko erreaktibilitate gurutzatuaren ondoriozkoa izan litekeen baztertzeko, konbinaketa guzietan antigorputz primarioen entseguak burtu genituen. Entsegu horietan ez genuen sekundarioen seinalerik antzeman (15. irudia, G-I).

Espesifikotasun froga gehigarri gisa, Af380 eta Af1080 antigorputzak *Western blot* entsegutan frogatu genituen. Horretarako, arratoiaren garun-kortexetik isolatutako mintz gordin (P2), nukleo gordin (P1) eta zitosol (Cyt) frakzioetako proteinak SDS-PAGE banatu


eta immunoblot bidez aztertu genituen. Entsegu horietan, Af380 antigorputzak proteina kargaren menpeko intentsitatea zuen eta DAGL α -ren masa molekular teorikoari (115 kDa) dagokion banda argi bat detektatu zuen mintz gordin (P2) eta nukleo gordin (P1) frakzioetan, baina ez zitoplasman (Cyt). Aldiz, Af1080 antigorputzak ez zuen batere seinalerik eman. Hemen burututako Af380 antigorputzaren balioeste esperimentalaz gainera, antigorputz horren espezifikotasuna DAGL α -KO saguetan berretsi da. (Suárez et al., 2011). Hau guztia kontuan hartuta, afinitate bidez purifikatutako Af380 untxi-antigorputz poliklonala erabili genuen ondorengo entsegu guztieta.



16. irudia. DAGL α aurkako Af380 antigorputza erabiliz, arratoi helduaren garun-kortexeko nukleo gordin (P1, 1-3), mintz gordin (P2, 4-6) eta zitoplasma (Cyt, 7-9) proteinetan aberastutako frakzioetan egindako *immunoblota*. H1 histonaren aurkako antigorputza proteina nuklearren aberaste eta eza egiaztu zuen P1 eta P2 frakzioetan hurrenez hurren. Frakzio bakoitzen proteinak kantitate gorakorrak (10, 20 eta 40 μ g) kargatu ziren. Ezkerraldean, pisu molekular estandarren migrazioa adierazten da.

Antigorputzen karakterizaziora bideratutako entseguek, zeharka, DAGL α entzima nukleo neuronaletan espresa litekeela iradokitzen dute. Batetik, immunohistoquimia eta immunofluoreszentzia experimentuetan frogatutako antigorputz guztiekin seinale argia ematen zuten arratoi helduaren garun-kortexeko nukleo neuronaletan eta antigorputz bikote batzuek emandako seinaleak nabarmen gainezartzen ziren. Bestetik, Af380 antigorputzak DAGL α -ren masa molekulararekin bat datorren banda argia eman zuen garun-kortextik isolatutako P1 frakzioan. Dena den, orain arte aurkeztutako ebidentziak ez dira nahikoak DAGL α neuronen nukleoan espresatzen dela zalantzak gabe baiezatzeko. Hala, garun-kortex ebaketetan aurkitutako seinalea artefakturen baten isla izatea ezin bazter daiteke, fixapenak antigorputzetarako lotura-toki inespezifikoak sor baititzake (Fritschy, 2008). Bestetik, P1 frakzioa proteina nuklearretan aberastuta egonik ere (16.-17. irudiak), nukleoz kanpoko osagaietan kutsatua zegoen. Izan ere, Na^+/K^+ ATPasa-ren $\alpha 1$ subunitatearen seinale indartsua agertu zen P1 frakzioan (17. irudia). Seguruenik, P1 frakzioa isolatzean, nukleoekin batera, erretikulu endoplasmiko eta Golgi-aparatuko mintz astunak hauspeatu

ziren, jariaketa bidean dauden Na^+/K^+ ATPasa gisako mintz-zeharreko proteina ugari dituztenak. Beraz, ezin bazter daiteke P1 frakzioan aurkitutako seinalea aipatutako mintz astunetan dagoen DAGL α proteinaren isla izatea. DAGL α proteina garun-kortexeko nukleo neuronalean espresatzen den zalantzarik gabe zehazteko burututako hurbilketa esperimentalen emaitzak hurrengo atalburuetan deskribatzen dira.




17. irudia. *Western blot* entsegua arratoi helduaren garunkortexetik isolatutako nukleo gordin (P1), mintz gordin (P2) eta zitoplasma (Cyt) frakzioetan. β -tubulina eta Na^+/K^+ ATPasa-ren $\alpha 1$ subunitatea (Na^+/K^+ ATPasa) zitoplasmaren eta mintz plasmatikoaren markatzaile gisa erabili ziren hurrenez hurren. Nukleo zelularen markatzaile gisa, poro nuklear konplexua (NPCx) eta H1 histona erabili ziren.

2. DAGL α -REN ESPRESIOAREN AZTERKETA ARRATOI HELDUAREN GARUN-KORTEXEKO MINTZ SINAPTIKOETAN ETA NUKLEO OSOETAN

Aurreko atalburuan deskribatutako emaitzek lan honen lehenengo helburu nagusia betetzea ahalbidetu zuten, hau da, DAGL α -ren aurkako antigorputz espezifiko bat hautatzea. Baitere, aldez aurretik deskribatutako kokapen postsinaptikoarekin bat zetorren (Yoshida et al., 2006; Uchigashima et al., 2007) markaketaz aparte, DAGL α -ren kokapen nuklearra iradokitzen duten emaitzak izan genituen. Halere, oso erakargarria izanik ere, aurkikuntza hori zalantzak gabe berretsi ahal izateko, hurbilketa esperimental gehigarriak beharrezkoak dira. Bigarren atalburu honetan, immunohistokimia, immunofluoreszentzia eta *Western blot* entseguen bitartez lortutako emaitzei buruz gera litzkeen zalantzak argitzeari ekin genion.


2.1 DAGL α -Immunomarkaketa Arratoiaren Garun-Kortexean

Erabilitako fixapen baldintzen aldaerak DAGL α -ren markaketan artefakturen bat sor lezakeen aztertzeko, DAGL α - eta lamina B1-immunoreaktibitatea baldintza estandarretan eta sodio sulfuro fixapen baldintzetan aztertu genuen bere distribuzioa dagoeneko ondo deskribatuta dagoen hiru garun-eremutan: garun-kortex somatosensoriala, hipokanpoa eta zerebeloa. Bereizmen handiko fluoreszentzia-mikroskopioa bidezko analisiak DAGL α proteinaren puntukako markaketa distiratsua agerian jarri zuen neuropiloan, DAGL α proteinaren kokapen postisanptikoarekin bat datorrena (Bisogno et al., 2003; Yoshida et al., 2006; Uchigashima et al., 2007). Are gehiago, fixapen estandarrarekin alderatuta, neuropiloaren markaketa indartsuagoa zen gure baldintzetan (18. irudia, A-B, H-I). Nukleoaren barneko markaketari dagokionez, profil nuklearrak ondo bereizten ziren inguruko neuropilotik gure baldintzetan baina ez baldintza estandarretan. Gainera, sodio sulfuro fixapen baldintzetan, aurreikus zitekeen bezala, lamina B1 immunoreaktibitatea eratzun perinuklear distiratsu gisa agertzen zen. Ordez, baldintza estandarretan fixatutako ebaketetan, ezin antzeman zitekeen lamina B1-seinalerik (18. irudia, A-F). Nukleoetan, DAGL α -markaketa orban distiratsuek osatzen zuten, gehienbat, nukleoplasman kokatzen zirenak (18. irudia, H-L).




18. irudia. DAGLa (berdez) eta lamina B1 (gorriz) proteinen immunomarkaketa arratoi helduaren garun-kortex somatosensorialeko V. geruzaren parean. Kromatina Hoechst 33342 konposatuarekin tindatu zen (urdinez). Esperimentua fixapen baldintza estandarretan (A-F) edo sodio sulfuro fixapen baldintzetan (G-L) burutu zen. Gezi-punta zuriek DAGLa-positibo diren profil nuklearrak adierazten dituzte. Ebaketen prozesamendua paraleloan burutu ziren eta argazkiak baldintza berdinatan eskuratu ziren. Mikroargazki guztiak argiztapen egituratz (ApoTome) hornitutako fluoreszentzia-mikroskopio batekin (Carl Zeiss Axio Observer) egin ziren eta 0,24 µm-ko lau ebaketa optikoren proiekzioak dira. Bereizmen handiagoko nukleo argazkiak eta dagozkien proiekzio ortogonalak B, D, F, H, J eta L irudietan erakusten dira. Eskala-barrak: 20 µm (A, C, E, G, I, K); 5 µm (B, D, F, H, J, L).

Bi fixapen baldintzetan prozesatutako ebaketetan, DAGLa-immunorreaktibitatearen distribuzioa puntukako markaketa gisa agertu zen hipokampoko CA1 eremuko *strata oriens* (so), piramidal (sp) eta *stratum radiatum* (sr) geruzetan. Era estandarraren bidez fixatutako ebaketetan, DAGLa-ren immunomarkaketaren lokalizazioan, antolaketa arkitektonikoaren aztarnarik ezin antzeman zitekeen bitartean, sulfuro fixapen baldintzetan, CA1-eko neurona piramidalen dendritak argi bereizten ziren so eta sr geruzetan (19. irudia, A, E). Kortexean bezala, sodio sulfuro fixapenak, baina ez fixapen estandarrak, lamina B1 proteinaren detekzioa ahalbidetu zuen (19. irudia, B-D, F-H).



19. irudia. DAGLa (berdez) eta lamina B1 (gorriz) proteinen immunomarkaketa arratoi helduaren hipokanpoko CA1 eremuan. Kromatina Hoechst 33342 konposatuarekin tindatu zen (urdinez). Esperimentua fixapen baldintza estandarretan (A-D) edo sodio sulfuro fixapen baldintzetan (E-H) burtu zen. Era estandarraren bidez fixatutako ehunean, DAGLa-ren kontrako antigorputzak puntukako immunomarkaketa lauso bat eman zuen CA1 eremuko *strata oriens* (so), *piramidal* (sp) eta *stratum radiatum* (sr) geruzetan (A). Sodio sulfuro fixapenaren kasuan, seinalea bereziki bizia agertzen zen so eta sr geruzetara hedatzen ziren dendritetan (E). Soilik sodio sulfuroz fixatutako gertakinetan antzeman zitezkeen nukleoeng inguruko perikaria (B eta G alderatu). Halaber, lamina B1 immunorrektibitatea argi antzeman zitekeen sodio sulfuroz fixatutako ebaketetan (C-D eta G-H alderatu). Mikroargazki guztiak argiztapen egituratz (ApoTome) hornitutako fluoreszentzia-mikroskopio batekin (Carl Zeiss Axio Observer) egin ziren eta 0,24 µm-ko lau ebaketa optikoren proiekzioak dira. Bereizmen handiagoko nukleoeng argazkiak B-D eta F-H irudietan erakusten dira. Eskala-barrak: 50 µm (A, E); 10 µm (B-D, F-H).

Zerebelo ebaketetan, DAGLa-immunorrektibitatea, gehienbat, geruza molekularreko Purkinjeren zelulen dendritetara mugatuta zegoen bi fixapen prozeduren bidez prozesatutako ebaketetan (20. irudia, A, H), aurretik egindako deskripzioekin bat datorrena (Bisogno et al., 2003; Yoshida et al., 2006). Kualitatiboki, DAGLa-seinalearen distribuzioa berdina bazen ere, askoz intentsoagoa zen sodio sulfuro fixapen baldintzetan prozesatutako zerebelo ebaketetan (20. irudia, A eta H alderatu) eta, berriro ere, lamina B1 detektagarria zen sodio sulfuro fixapenaz baina ez fixapen estandarraz (20. irudia, B-G eta I-N alderatu). Hipokanpo zein zerebeloko neurona nagusien nukleoetan, DAGLa-immunorrektibitatea ere aurkitu genuen, baina neuropiloko immunofluoreszentzia-intentsitatea kortexean baino nabarmen handiagoa zenez, argazkiak saturazio azpian hartzeko erabilitako esposizio-denborak laburregiak izan ziren seinale nuklearra agerian jartzeko.



20. irudia. DAGLa (berdez) eta lamina B1 (gorriz) proteinen immunomarkaketa arratoi helduaren zerebeloan. Kromatina Hoechst 33342 konposatuarekin tindatu zen (urdinez). Esperimentua fixapen baldintza estandarretan (A-G) edo sodio sulfuro fixapen baldintzetan (H-N) burutu zen. DAGLa-seinalea, gehienbat, geruza molekularreko (ml) Purkinje zelulen dendritetara mugatuta, baina nabarmen indartsuagoa zen sodio sulfuro fixapen baldintzetan (A, H). Soilik sodio sulfuro fixapen prozedura erabili zenean, Lamina B1-immunorreatkibilitatea antzeman zen Purkinje zelulen geruzako (pl), geruza pikortsuko (gl) eta geruza molekularreko (ml) nukleo batzueta (B-G eta I-N alderatu). Mikroargazki guztiek argiztapen egituratz (ApoTome) hornitutako fluoreszentzia-mikroskopio batekin (Carl Zeiss Axio Observer) egin ziren eta 0,24 µm-ko lau ebaketa optikoen proiekzioak dira. Bereizmen handiagoko nukleo argazkiak B-G eta I-N irudietan erakusten dira. Eskala-barrak: 25 µm (A, H); 10 µm (B-G, I-N).

Orohar, garun-kortex, hipokanpo eta zerebelo ebaketa histologikoetan egindako azterketek agerian jartzen du gure fixapen baldintzek DAGLa-immunorreatkibilitatea hobetzen dutela. Are gehiago, lamina B1 proteina nuklearrari dagokion seinalea soilik baldintza horietan ahal izan genuen detektatu. Beraz, badirudi sodio sulfuro fixapenaz agerian jarri dugun DAGLa-immunomarkaketa nuklearra bestela helezina litzatekeen epitopoa antigorputzarekiko eskuragarri jarri izanaren ondorioa dela.


2.2 DAGLa-ren Espresioa Garun-Kortexetik Isolatutako Azpifrakzioetan

Ebaketa histologikoetan ikusitako DAGLa-ren distribuzioaren azterketan sakontzeko asmoz, *Western blot* entseguak burtu genituen arratoi helduaren garun-kortexetik isolatutako frakzioetan. Horretarako bi prozedura desberdin erabili genituen, bata, mintz zelularren domeinu desberdinak isolatzeko eta, bestea, osotasun estrukturala mantentzen duten nukleoak (nukleo osoak) purifikatzeko.

2.2.1 DAGLa-ren Espresioa Garun-Kortexetik Isolatutako Mintzen Azpidomeinuetan

Mintz zelularren azpifrakzioak isolatzeko erabilitako zentrifugazio metodoak dentsitatearen eta TX-100 detergentean disolbagarritasunaren arabera banatzen ditu mintz desberdinak. Metodologian azaltzen den bezala, homogenatu osoaren (WH) zentrifugazio motel baten bidez, zitoplasma eta mintz plasmatikoa barne zituen gainjalkina (S1) eta nukleoek, lisatu gabeko zelulek eta mintz astunez osatutako jalkina (P1) banatu genituen. Bigarren zentrifugazio bizkorrago batez, mintz plasmatiko jalkina (P2) eta mintz arinetan aberastutako gainjalkina (S2) banatu genituen. P2 frakzia TX-100ekin tratatu eta are bizkorrago zentrifugazio ondoren, TX-100 detergentean disolbaezinak diren mintz sinaptikoak jalkinean (P3) geratu ziren eta disolbagarriak direnak gainjalkinean (S3). Azkenik, S2 frakzioaren ultrazentrifugazioaz, mikrosomak (P4) hauspeatu eta zitosol jalkinetik (S4) banatu ziren. Frakzio desberdinaren berreskuratutako proteinen erdia zitosolera (S4) banatu zen eta beste erdia mintz plasmatikoaren (P2; ≈%40) eta mikrosomen (P4; ≈%10) artean. Nabarmenki, mintz plasmatikotako proteina gehien-gehienak (≈%74) TX-100ean disolbagarri frakziora (S3) banatu ziren eta soilik portzentaje txiki bat (≈%26) hauspeatu zen TX-100ean disolbaezin frakzioan (P3) (21. irudia, barra-grafikoa). Konpartimentu zelular desberdinen markatzaileak erabiliz, frakzionamenduaren egokitasuna balioetsi genuen. Hala, mintz plasmatiko frakzia (P2) TX-100 detergentearekin tratatu ondoren, PSD95 markatzaile postsinaptikoa mintz sinaptiko jalkinean (P3) agertu zen, baina ez TX-100ean mintz disolbagarrietan (S3). Nabarmenki, baltsa lipidikoen Thy1 markatzaileak portaera berdina erakutsi zuen, baltsa lipidikotako proteinak P3 frakziora banatzen direla


erakusten duena. Na^+/K^+ ATPasa mintz gordinetan (P2) eta bertatik erauzitako TX-100ean disolbagarriak diren mintzetan (S3) besterik ez agertzea TX-100 tratamenduaren efizientziaren adierazle da. Azkenik, GRP78/BiP eta β -tubulina markatzaileen seinale argiak soilik mikrosoma (P4) eta zitosol (S4) frakzioetan agertu ziren eta, beraz, mintz plasmatikoan (P2) eta bere azpifrkzioetan (S3 eta P3) erretikulu endoplasmiko eta zitosol kutsadura oso urria zen (21. irudia, *immunoblotak*).



21. irudia. Ezkerreko barra-grafikoan, arratoi helduaren garun-kortexeko apofrakzionamenduaren etekina adierazten da. WH, homogenatu osoa; P2, mintz plasmatikoa; S3, TX-100ean mintz disolbagarriak; P3, TX-100ean mintz sinaptiko disolbaezinak; S4, mintz arinak; P4, zitosola. WH, 14.61 ± 0.17 ; P2, 2.64 ± 0.08 ; S3, 2.14 ± 0.21 ; P3, 0.76 ± 0.03 ; S4 3.48 ± 0.07 ; P4 0.74 ± 0.12 mg/100 mg ehun (batezbestekoa \pm SEM; n=4). Eskuineko panelean, frakzio-markatzaile espezifikoak erabiliz, frakzionamenduaren egokitasuna aztertzeko egindako *Western blot* entseguen emaitzen adibidea erakusten da. Erabilitako markatzaileak honako hauek izan ziren: mintz postsinaptikoak (95 kDa-eko dentsitate postsinaptikoaren proteina -PSD95-); mintz plasmatikoa (Na^+/K^+ ATPasa-ren $\alpha 1$ azpiunitatea - Na^+/K^+ ATPasa-); baltsa lipidikoak (timozito-diferentiazio 1 antigenoa -Thy1/CD90-); erretikulu endoplasmikoa (glukosak erregulatutako 78 kDa-eko proteina -GRP78/BiP-); zitosola (β -tubulina). Markatzaileek detektatutako proteinen migrazioa bat zetorren beren masa molekular teorikoekin (PSD95, 80 kDa; Thy1 18 kDa; Na^+/K^+ ATPasa, 113 kDa; GRP78/BiP, 78 kDa; β -tubulina, 50 kDa). PSD95 100 kDa baino pixka bat beherago, Thy1 20 kDa baino pixka bat beherago, Na^+/K^+ ATPasa 100 kDa baino apur bat gorago, GRP78/BiP 75 kDa baino pixka bat gorago eta β -tubulina 50 kDa mailan.

Markatzaile espezifiko bidez ondo karakterizatuko frakzioetan, DAGL α -ren banaketa *Western blot* bidez aztertu genuen (22. irudia). DAGL α -seinalea argi antzeman zen mintz plasmatiko (P2) frakzioan. P2 mintzak TX-100ekin tratatu eta zentrifugazioz banatu ondoren, DAGL α -seinalea apur bat ahuldu eta nabarmen indartu zen TX-100ean disolbagarri (S3) eta disolbaezin (P3) frakzioetan, DAGL α batez ere mintz sinaptikoetan kokatzen dela adierazten duena. Hala ere, proteina osoaren banaketa kontuan izanik (21. irudia, barra-grafikoa), DAGL α osoaren zati handi samarra TX-100ean disolbagarri frakzioan (S3) kokatzen dela esan dezakegu. DAGL α -seinalea erretikulu endoplasmikoa aberastuta dauden mikrosometan (P4) ahulagoa zen P2-an baino, trafikoan dagoen DAGL α populazioa urria



dela iradokitzen duena. DAGL α aztertzeaz gainera, seinaleztapen kannabinoide endogenoa parte hartzen duen elementu nagusietako batzuk azertu genituen: PLC β 1 entzima, Homer eta Shank3 euskarri-proteinak eta CB1 hartzalea. PLC β 1 frakzio guztietau aurkitu baguen ere, seinalearen indarra eta PLC β 1a/b *splicing* aldaerei zegozkien seinaleen arteko erlazioa nabarmen aldakorrak ziren. Hala, mintz sinaptikoetan (P3), seinalerik indartsuena agertu zen eta PLC β 1a- eta PLC β 1b-immunoreaktivitatea berdintsua zen, beste frakzioetan PLC β 1b aldaeraren seinalea nabarmen handiagoa (WH, P2, P4) ala ia detektaezina (S3, S4) zen bitartean. Ikusitako PLC β 1ren banaketa lokalizazio postsinaptikoan atzera-seinaleztapen endokannabinoidean esleitu zaion rolarekin bat dator (Katona eta Freund, 2008). PLC β 1b nagusiki P3 frakziora banatzea *splicing* aldaera horrek euskarri-proteina postsinaptikoekin dituen loturen isla izan liteke. Izan ere, PLC β 1b aldaeraren karboxilo muturrean dagoen TPPN sekuentziak Shank3 proteinaren SH3 domeinura lotzea ahalbidetzen du (Grubb et al., 2011). Nabarmenki, mintz sinaptiko (P3) frakzioa Shank3 proteinan oso aberastuta zegoen. Espero litekeen bezala, Homer DAGL α -ren euskarri proteinaren (Jung et al., 2007; Katona eta Freund, 2008) seinalea mintz sinaptikoetan (P3), baina ez TX-100ean disolbagarri mintzetan, agertu zen (22. irudia). Azkenik, kokapen presinaptikoa (Katona eta Freund, 2008) duen CB1 hartzalearen immunoreaktivitatea P3 frakzioan nagusitu zen. Crac sekuentziaren bidez, CB1 hartzaleak kolesterolarekiko duen lotura horren azpian egon liteke (Maccarrone et al., 2011). Izan ere, P3 frakziora, mintz postsinaptikoez gainera, baltsa lipidikoak banatzen dira (21. irudia).



22. irudia. Frakzio azpizelular desberdinietan DAGL α -ren eta seinaleztapen kannabinoide endogenoa parte hartzen duen PLC β 1 entzimaren, Homer eta Shank3 euskarri-proteinen eta CB1 hartzalearen *Western blot* bidezko azterketa. WH, homogenatu osoa; P2, mintz plasmatikoa; S3, TX-100ean mintz disolbagarri; P3, TX-100ean mintz sinaptiko disolbaezinak; S4, mintz arinak; P4, zitosola. Proteinen migrazioa bat zetorren beren masa molekular teorikoekin (DAGL α , 115 kDa; PLC β 1a, 139 kDa; PLC β 1b, 134; Shank3, 186 kDa; Homer 1b, 40 kDa).


2.2.2 DAGLa-ren Espresioa Garun-Kortexetik Isolatutako Nukleo Osoetan

DAGLa entzima garun-kortexeko nukleoetan espresatzen den zalantzarik gabe zehazteko, purutasun handiko frakzio nuklearra (N frakzioa) isolatzeko prozedura ezagun bat erabili genuen (Thompson, 1973; Dent et al., 2010). Prozedura horrek osotasun estrukturala mantentzen duten nukleoak (nukleo osoak) isolatzea ahalbidetzen du garun-kortexeko homogenatuetatik.



23. irudia. **A.** Arratoi helduaren garun-kortexetik isolatutako nukleo osoen fase-kontraste mikroskopia irudia. Eskalabarra: 10 μ m. **B.** Nukleo osoen (N) purutasuna aztertzeko *Western blot* bidezko analisia. N, nukleo osoak; P2, mintz gordinak; Cyt, zitosola; NPCx, poro nuklear konplexua; Na⁺/K⁺ ATPasa, Na⁺/K⁺ ATPasa-ren α 1 azpiunitatea; NMDA, N-metil-D-aspartato hartzalea; SNAP-25, sinaptosomei lotutako 25 kDa-eko proteina; Golgi 58K, 58 kDa-eko Golgi proteina; β -Tub, β -tubulina.

Isolatutako nukleoien egitura-osotasuna egiazatzeko, laginak fase-kontraste mikroskopiaz aztertu genituen. Prozedurak nukleoien osotasuna mantentzeaz aparte, laginak ezpurutasunez libre zeuden (23. irudia, A). Laginaren purutasuna biokimikoki egiazatzeko, nukleo oso (N), mintz gordin (P2) eta zitosol (Cyt) frakzioetako proteinak SDS-PAGE bitartez banatu eta, frakzio-markatzaile espezifikoak erabiliz, *immunoblot* bitartez aztertu genituen. Azterketa honetan zalantzarik gabe geratu zen isolatutako nukleo osoen laginaren purutasuna. Hala, frogatutako markatzaile guztietatik, NPCx-seinalea besterik ez genuen aurkitu N frakzioan. Ordez, P2 frakzioan seinale argia eman zuten mintz plasmatiko (Na⁺/K⁺ ATPasa), mintz postsinaptiko (NMDA), mintz presinaptiko (SNAP-25), Golgi-aparatu (Golgi 58K) eta zitosol (β -tubulina) markatzaileak detektaezinak ziren N frakzioan. Cyt frakzioan β -tubulina-seinalea besterik ez genuen detektatu, frakzio horren garbitasuna adierazten duena (23. irudia, B).



24. irudia. Arratoi helduaren garun-kortexeko homogenatuetatik isolatutako mintz gordinen (P2) eta nukleo osoen (N) frakzioetan egindako *Western blot* entseguaren emaitzak. N eta P2 frakzioen proteina kantitate gorakorrak (10, 20 eta 30 μ g N frakzioan eta 5, 10 eta 20 μ g P2 frakzioan) kargatu ziren. N frakzioan, DAGL α eta hiru PLC β isoforma (PLC β 1, 2 eta 4) detektatu ziren. Frakzio markatzale gisa, Na $^+$ /K $^+$ ATPasa-ren α 1 azpiunitatearen (Na $^+$ /K $^+$ ATPasa) eta poro nuklear konplexuaren (NPCx) kontrako antigorputzak erabili ziren

Morfologikoki eta biokimikoki ondo karakterizatutako nukleo osoetan (N), DAGL α -ren espresioa *Western blot* bidez aztertu genuen, mintz gordinen frakzioa (P2) kontrol positibo gisa hartuta. Horretarako, ondo karakterizatutako Af380 untxi-antigorputz poliklonala erabili genuen. Aldi berean, PLC β isoformen aurkako antigorputz espezifikoak erabiliz, PLC β 1-4 izozimen espresioaren analisia ere burutu genuen, mintzean 2-AG emaria ahalbidetzen duten osagaiak nukleoan ere kokatzen diren azterzeko. DAGL α -ren aurkako antigorputzak entzima horren masa molekular teorikoarekin koherentea den banda espezifiko bat detektatu zuen N zein P2 frakzioetan (24. irudia). DAGL α -z gainera PLC β 1, 2 eta 4 izozimak detektatu ziren N frakzioan, PLC β 3 izozimaren aurkako antigorputzak seinale espezifikorik eman ez zuen bitartean. PLC β 1 eta PLC β 4 izozimen seinalea nabarmen intentsoagoa zen P2 frakzioan N frakzioan baino. Aldiz, PLC β 2-immunorreaktibitatea nukleo osoetan argi detektatu zen eta seinale ahula eman zuen mintz gordinetan (24. irudia).

Oro har, atalburu honetan erakutsitako emaitzek zalantzak gabe frogatzen dute DAGL α garun-kortexeko nukleoetan espresatzen dela. Are gehiago, PLC β familiako entzimak ere nukleoan espresatzen direla egiaztatu dugu, kateatutako PLC β eta DAGL aktibitateen menpeko 2-AG emarirako makineria nukleoan egon litekeela proposatzeko bide ematen duena.

3. 2-ARAKIDONIL GLIZEROLAREN SINTESI-MAKINERIAREN KONPARTIMENTAZIOA ETA FUNTZIONALITATEA GARUN-KORTEXEKO NEURONEN NUKLEOAN


DAGL α eta PLC β 1, 2 eta 4 isoformak arratoi helduaren garun-kortexeko nukleoetan espresatzen direla behin egiaztaturik, elementu horiek 2-AG ekoizpen nuklearra ahalbidetzen duen seinaleztapen-ardatz baten parte diren aztertu genuen. Horretarako, lehenik eta behin, DAGL α eta PLC β 1, 2 eta 4 isozimen konpartimentazio azpinuklearra *Western blot* eta immunofluoreszentzia bikoitza bidez aztertu genuen. Ondoren, kromatografia likido eta masa-espektrometria (LC-MS) bidez 2-AGren metaketa basala eta PLC β /DAGL α aktibitatearekiko menpekotasuna aztertu genuen nukleo osoen laginetan.

3.1 DAGL α -ren Konpartimentazio Azpinuklearra

3.1.1 Immunoblot Analisiak

DAGL α konpartimentazioa karakterizatzeko, garun-kortexetik isolatutako nukleo osoak zatikatu genituen. Horretarako, lehenik, N frakzioa TX-100 detergente ez ionikoarekin tratatuz, nukleo-estaldurako TX-100ean erauzgarri proteinak (nukleo-estaldurari asoziaturiko eta nukleoplasmako proteinak) zentrifugazio-gainjalkinera (S1/TX-100) eta nukleoideak (Nu) jalkinera erauzi genituen. Ondoren, nukleoideetatik RNAr edo DNAr lotutako proteinak erauzi genituen. Nukleoideak RNasa A entzimarekin tratatuz, RNAr lotutako proteinik gabeko nukleoideak (Nu/RNasa) hauspeatu genituen. Nukleoideak, sekuentzialki DNAsa I entzimarekin eta 0.25 M (NH₄)₂SO₄ gatzarekin tratatuz, DNAr lotutako proteinak zentrifugazio-gainjalkinera (S2/DNAsa) eta DNAr lotutako proteinik gabeko nukleoideak (NM, matrize nuklearra) jalkinera erauzi genituen. N frakzioa TX-100 detergentearekin tratatu ondoren, nukleo-proteina kantitate totalaren %85a berreskuratu genuen Nu jalkinean. Jarraian, Nu frakzioa DNAsa I-ekin eta 0.25 M (NH₄)₂SO₄ gatzarekin tratatuz, nukleoideetako proteinen %50 inguru erauzi genuen. Beraz, proteina nuklear osoaren %58 inguru erauzi genuen TX-100 eta DNAsa I tratamendu sekuentzialaren ondorioz. Bere aldetik, RNasa A bidezko digestioak Nu frakzioko proteinen %55 eraman zuen eta, beraz, TX-100 eta RNasa


A tratamenduen konbinaketaren ondorioz proteina nuklear osoaren %64 inguru erauzi genuen.



25. irudia. **A.** Nukleo osoen zatikatze sekuentzialaz banatutako azpifrakzioen SDS-PAGE eta Coomassie urdin tindaketaren bidezko azterketa. N, nukleo osoak; Nu, nukleoideak; NM, matrize nuklearra; Nu/RNasa, RNAr lotutako proteinari gabeko nukleoideak; S1/TX-100, TX-100ean erauzgarri proteinak; S2/DNasa, DNAri lotutako proteinak. **B.** Azpifrakzio markatzale espezifikoak erabiliz, lagin berberetan burututako *immunoblot* bidezko azterketaren emaitzak. Erabilitako markatzaila honako hauek izan ziren: nukleo-estaldura (glukosak erregulatutako 78 kDa-eko proteina, GRP78/BiP); DNAri lotutako proteinak, (H3 histona, H3 histata), matrize neuronala (matrize neuronaleko osagai intrintsekoa den NeuN/Fox-3, NeuN); nukleoideen egitura-osotasuna (poro nuklear konplexuko Nup62 osagaia, NPCx).

Zatikatze azpinuklearren egokitasuna aztertzeko asmoz, frakzio desberdinak proteinak SDS-PAGE bidez erresolbitu genituen eta Coomassie urdin tindatzailearekin markatu genituen. Hala tindatutako poliakrilamida-gelean, frakzio guztien proteina karga berdintsua zela argi ikus zitekeen (25. irudia, A). Horrez gainera, pisu molekular desberdinara migratzen zuten banden banaketa profilean desberdintasun nabarmenak antzeman zitezkeen frakzioen artean. Hala, lotze-histonei (H1) eta muin-histonei (H2A, H2B eta H3) dagozkien banden (32-34 kDa eta 15-17 kDa hurrenez hurren; (Belgrader et al., 1991; Ren et al., 2001) intentsitatea nabarmen galdu zen NM frakzioan (25. irudia, A) eta, horrekin bat, histonen markaketa S2/DNasa frakzioan berreskuratu zen. Baitere, espero zitekeen bezala, Nu/RNasa frakzioa aberatsagoa zen histonetan Nu frakzioa baino (26. irudia, A). Frakzio azpinuklearren purutasuna sakonago aztertzeko, frakzio azpinuklearrak *Western blot* bidez aztertu genituen azpidomeinu nuklear desberdinen markatzaila ez baliatuz (25. irudia, B). Honako osagai nuklear hauen kontrako antigorputzak erabili genituen:

erretikulu endoplasmatikoko GRP87/BiP txaperona, poro nuklear konplexuko Nup62 osagaia (NPCx), H3 histona eta matrize neuronaleko osagai intrintsekoa den NeuN/Fox-3 (Dent et al., 2010). Entsegu hauek TX-100 tratamenduaak estaldura nuklearra ondo solubilizatu zuela erakutsi zuten. Hala, GRP78/BiP-seinalea ia detektaezina zen Nu frakzioan, S1/TX-100 gainjalkinean berreskuratu zen bitartean (25. irudia, B). H3 histona-seinalea oso ahula zen matrize nuklearrean eta S2/DNasa frakzioan berreskuratu zen, DNasa I/0.25 M $(\text{NH}_4)_2\text{SO}_4$ gatz tratamenduaak DNAri lotutako proteinak ondo erauzi zituela erakusten duena. Aldi berean, barne erribonukleotido sareari lotuta (Dent et al., 2010) dagoen NeuN/Fox-3 *splicing* faktorearen seinalea nabarmen indartu zen NM frakzioan, DNasa I bidezko digestioaren espezifikotasuna adierazten duena (25. irudia, B). RNasa A tratamendua ere oso espezifikoa izan zen erribosa azido nukleikoak digeritzeko. Izan ere, DNAri lotutako H3 histona eta erribonukleotidoei lotutako NeuN/Fox-3 proteinen seinaleak nabarmen indartu eta ahuldu ziren Nu/RNasa frakzioan hurrenez hurren. Egitura-osotasunaren adierazle gisa, NPCx-seinalea TX-100 tratamenduari eta nukleasa digestioei eutsi egin zien (25. irudia, B), poro nuklear konplexuak detergente ez ionikoekiko eta nukleasekiko duen erresistentziarekin bat datorrena (Davis eta Blobel, 1986).




26. irudia. **A.** DAGLa-ren espresioaren azterketa arratoi helduaren garun-kortexetik isolatutako nukleoengazpifrakzioetan. P2 frakzioa kontrol positibo gisa erabili zen. N, nukleo osoak; Nu, nukleoideak; NM, matrize nuklearra; Nu/RNasa; RNAri lotutako proteinarik gabeko nukleoideak; S1/TX-100, TX-100ean erauzgarri proteinak; S2/DNasa, DNAri lotutako proteinak. P2, mintz plasmatikoa. **B.** DAGLa-HA fusio proteina koden duen plasmido batekin transfektatutako HEK293T zelulen zitosol (Cyt) eta mintz plasmatikoa (P2) laginetan burututako *Western blot* azterketa.

Behin zatikatze prozedura balioetsi genuela, DAGLa-ren konpartimentazioa frakzio azpinuklearetan aztertu genuen. Gorago azaldu denarekin bat, DAGLa-ren aurkako Af380

untxi-antigorputz poliklonalak 115 kDa inguruko banda nagusi bat eman zuen garunkortexeko mintzetan. Nukleo osoetan (N) ere, berdin migratzen zuen banda bat detektatu zen, askoz ahulagoa bazen ere. Horrekin batera, 250 kDa-eko estandarra baino pixkat beherago seinale indartsuago bat argi ikus zitekeen N frakzioan, eta banda hori P2 frakzioan ere aurkitu genuen, kasu honetan banda nagusia baino ahulago markatuta agertzen zena (26. irudia, A). Nabarmenki, HA-etiketaren aurkako antigorputzak erabiliz, pisu bereko banda bat hemaglutinina etiketadun DAGL α (DAGL α -HA) gainespresatzen zuten HEK293T zeluletitik isolatutako P2 mintzetan ere detektatu zen, seinale hori espezifikoa dela iradokitzen duena. Nukleo-estaldura TX-100 detergente ez-ionikoarekin erauztean, aipatutako bi banden seinalea indartu zen, baina 115 kDa-ekoaren zati bat berreskuratu zen S1/TX-110 frakzioan. Gainjalkin horretan 115 kDa-eko bandaren seinalea nukleoideetan (Nu) baino indartsuagoa bazen ere, DAGL α gehiena Nu frakzioan mantendu zela ondoriozta daiteke kontuan hartzen badugu, *immunoblot* analisirako, frakzio guztien proteina kantitate berdina kargatu zela eta nukleoideen pelletean S1/TX-100 gainjalkinean baino 5,7 aldiz proteina gehiago berreskuratu zela. Nukleoideen DNAril lotutako proteinak erauzi ondoren, bi DAGL α -seinaleak bizi indartu ziren matrize nuklearrean, DAGL α sare erribonukleoproteikoari asoziaturik dagoela iradokitzen duena. Zentzu berean, nukleoideak RNAsa A entzimarekin tratatu ondoren, seinaleak bere horretan mantendu ziren. RNArren digestioak nukleoideetako proteinaren %55 eramatzen duela kontuan hartzen badugu, RNArren digestioak DAGL α -ren zati handi baten erauzketa eragin zuen. 75 kDa azpitik frakzio nuklearretan agertu ziren seinaleen espezifikotasuna balioetsi ezin izan baguenen ere, beren esangura DAGL α -k nukleo zelularrean kokatzeko izan ditzakeen mekanismoen testuinguruan eztabaidatuko da (ikus eztabaidea).

3.1.2 Immunofluoreszentzia Bikoitza eta Bereizmen Handiko Mikroskopia Analisiak

Western blot bidezko azterketaren ondoren, immunofluoreszentzia bikoitza eta bereizmen handiko mikroskopia bidez hurbildu ginen DAGL α -ren konpartimentazio azpinuklearraren analisira. Lehenik eta behin, DAGL α eta NeuN/Fox-3 (neurona postmitotikoen markatzailea)




27. irudia. A-C. DAGL α - (gorriz) eta NeuN- (berdez) immunofluoreszentzia bikoitza Hoechst (urdinez) tindaketarekin konbinatuta arratoi helduen garunkortexetik isolatutako nukleo osoetan. Nukleo NeuN-positibo guztiak DAGL α -immunoerreaktitate sendoa erakutsi zuten bitartean (gezi-punta beteak), NeuN-negatiboetan ez zen DAGL α -markaketarik antzeman (gezi-punta hutsak). D-F. DAGL α -immunomarkaketa (berdez) Hoechst tindaketarekin (gorriz) konbinatuta. G-O. DAGL α -immunomarkaketa (G, J, M, gorriz) Lamina B1 (G-I; berdez), NeuN (J-L, berdez) eta SC35 (M-O, berdez) markatzaleekin konbinatuta. Mikroargazki guztiak argiztapen egituratz (ApoTome) hornitutako fluoreszentzia-mikroskopio batekin (Carl Zeiss Axio Observer) egin ziren eta 0,24 μ m-ko hiru ebaketa optikoren proiekzioak dira. Eskala-barrik: 20 μ m (A-C argazkietarako); 2,5 μ m. (D-O argazkietarako).

aurkako antigorputzak erabiliz, nukleo osoak immunofluoreszentzia bikoitzaz markatu genituen Hoechst kromatina tindaketarekin konbinatuta. Horrek, soilik jatorri neuronaleko nukleoak (NeuN/Fox-3 positiboak) DAGL α -positibo zirela ikustea ahalbidetu zuen (27. irudia, A-C). Bereizmen handiagoko azterketan, DAGL α -markaketa bizia antzeman zitekeen kromatina tindaketa ahuleko nukleoplasma eremuetan (27. irudia, D-F). Ondoren, DAGL α -immunomarkaketa lamina nukleararen eta *nuclear speckle* deritzen osagai desberdinengimmunomarkaketarekin konbinatuz, DAGL α -ren kokapena zehazkiago aztertu genuen. DAGL α - eta lamina B1-seinaleen arteko gainezarpen ezak, DAGL α xafla nuklearra baino barnerago kokatuta dagoela iradoki zuen (27. irudia, G-I). Bestalde, DAGL α eta NeuN/Fox-3 matrize nuklearreko osagaiaren arteko gainezarpen handia ikusi genuen eta antzeko emaitzak lortu genituen DAGL α -ren eta SC35 *splicing* faktorearen markaketak konbinatu zirenean. Aurkikuntza hauek eta aurreko atalean deskribatutako emaitzek DAGL α arratoi

helduaren garun-kortexeko nukleo neuronalen *nuclear speckle*-en osagaia dela pentsatzeko bidea ematen dute.

3.2 PLC β Isozimen Konpartimentazio Azpinuklearra

Aurreko ikerketa batean, gure laborategian PLC β 1 entzimak neurona kortikalen nukleoetan DAGL α -k duen banaketa berdintsua duela frogatu zen (Montana et al., 2012). Bestalde, PLC β 2 eta PLC β 4 isoziimak ere garun-kortexetik isolatutako nukleo osoetan espresatzen dira, lan honen bigarren atalburuan deskribatu dugunez (24. irudia). Horrenbestez, PLC β 2 eta PLC β 4 isoformen kokapen azpinuklearra aztertu genuen. PLC β isozima espezifikoen eta NeuN/Fox-3 *splicing* faktorearen immunomarkaketen konbinaketetan, PLC β 1, PLC β 2 eta PLC β 4 nukleo neuronalean espresatzen direla ikus zitekeen (28. irudia; A₁₋₃-C₁₋₃). Hala ere, PLC β 1 eta 4 isoformak nukleo ez neuronaletan detektagaitzak ziren bitartean (28. irudia; A_{1,3}-C_{1,3}), PLC β 2-immunorreatkibitatea argi antzeman zitekeen NeuN/Fox-3 nukleo negatibo batzuetan (28. irudia; A₂-C₂). PLC β isoformen banaketa azpinuklearra sakonago aztertzeko, konpartimentu nuklearren markatzaile espezifikoak erabiliz, inmunofluoreszentzia bikoitza entseguak burutu genituen. Esperimentu hauetan, PLC β isoforma guztiekin antzeko kokapen nuklearra zutela ikusi zen. Hau da, PLC β 1, 2 eta 4 antigorputzkin lortutako markaketaren distribuzioa kromatina tindaketa ahuleko nukleoplasma eremuetan (28. irudia; D₁₋₃- F₁₋₃) kokatu zen lamina nuklearraren azpian (28. irudia; G₁₋₃- I₁₋₃), non NeuN/Fox-3 eta SC35-seinaleekin gainezarpen maila altua zuen (28. irudia; J₁₋₃- L₁₋₃, M₁₋₃- O₁₋₃).




28. irudia. **A₁₋₃-C₁₋₃**, PLC_{β1,2,4} isozimen (gorriz) eta NeuN-immunofluoreszentzia (berdez) tindaketaarekin konbinatuta arratoi helduen garun-kontextet isolatutako nukleo osoetan. PLC_{β1} eta PLC_{β4} isozimak soilik neuronaletan esprazten zen eta PLC_β isoizimena nukleo neuronal guzietan eta ez neuronal batzuetan. **D₁₋₃-F₁₋₃**, PLC_{β1,2,4} isozimen (gorriz) immunomarkaketa Hoechst tindaketaarekin konbinatuta. **G₁₋₃-O₁₋₃**, PLC_{β1,2,4} isozimen immunofluoreszentzia lamina B1 (G₁₋₃-L₁₋₃, berdez), NeuN (J₁₋₃-L₁₋₃, berdez) eta SC35 (M₁₋₃-O₁₋₃, berdez) markatzaleekin konbinatuta. Mikroargazki guztiak argitzapen egituratuaz (Apo Tome) homitutako fluoreszentzia-mikroskopio batekin (Carl Zeiss Axio Observer) egin ziren eta 0,24 μm-ko hiru ebaketa optikoren proiektioa dira. Eskala-barrak: 20 μm (A-C argazkietarako); 2,5 μm. (D-O argazkietarako).

3.3 PLC β eta DAGL α Menpeko 2-AG Ekoizpen Endogenoa Nukleo Osoetan

Hainbat taldek fosfoinositidoen zikloa (biosintesi- eta degradazio-makineria) zelularen nukleoan espresatzen dela frogatu dute (Payrastre et al., 1992; Boronenkov et al., 1998; Osborne et al., 2001; Tabellini et al., 2003). Autore horiek DAG ekoizpena deskribatu dute nukleo isolatuetan, eta ekoizpen hori fosfatidilinositol (PtdIns) espezifiko den PLC aktibitate baten menpekoa dela erakutsi dute (Sun et al., 1997; D'Santos et al., 1999). Ebidentzia horiek eta nukleo neuronaletan ikusi dugun PLC β eta DAGL α proteinen konpartimentazioak 2-AG ekoizpen nuklear endogenoa proposatzera eraman gintuen. Horrenbestez, 2-AG ekoizpena kromatografia likido eta masa espektrometria (LC-MS) bitartez neurtu genuen nukleo isolatuetan. Ekoizpen hori PLC β /DAGL α seinaleztapen-ardatz baten menpekoa izan litekeen aztertzeko, egoera basalean zein PLC β aktibitatearen estimulazioean neurtu genuen. Egoera basalean eta estimulatutako baldintzetan 2-AG endogenoaren maila optimizatzeko, eta degradaziotik babesteko, esperimentu guztiak honako inhibitzaile hauen presentzian burutu ziren: 10 μ M D-609, fosfatidilkolina-PLC (PtdCho-PLC) aktibitatearen inhibitzailea; 10 μ M R59949, DAG kinasa (DAGK) aktibitatearen inhibitzailea; eta 10 μ M NAM, monoazilglicerol lipasa (MAGL) aktibitatearen inhibitzailea (ikus eztabaida).

2-AG maila endogenoa LC/MS bitartez zehatz neurtzeko, diluzio isotopiko eta estandarren adizio teknikak konbinatu ziren (29. irudia, A). PLC β isozimen menpeko 2-AG ekoizpena aztertzeko, m-3M3FBS konposatua (PtdIns-PLC familiko aktibatzalea) edo kaltzio ioiak erabili ziren. Egoera basalean metatutako 2-AG mailak (60 pmol/mg proteina inguru) ia bikoiztu ziren m-3M3FBS bidezko estimulazioean (30. irudia, A). Egoera basalean zein estimulazioean (10 μ M m-3M3FBS), 2-AG metaketak erlazio lineala erakutsi zuen denborarekiko eta proteina nuklear kontzentrazioarekiko (29. irudia, B). 2-AG metaketa m-3M3FBS kontzentrazioaren menpekoa izanik, 2-AG metaketa bultzatzeko aktibatzale horrek duen EC₅₀ balioa (5 μ M) kalkulatu ahal izan genuen (30. irudia, A). Nabarmenki, o-3M3FBS


konposatuak (m-3M3FBS aktibatzailearen analogo inaktiboa) ez zituen 2-AG maila basalak aldatu (31. irudia, B).



29. irudia. A. Egoera basalean eta estimulazioean ($10 \mu\text{M}$ m-3M3FBS), arratoi helduaren garun-kortexeko nukleo osoetan 2-AG endogeno mailak neurtzeko erabilitako metoda (diluzio isotopikoa eta estandarren adizio tekniken konbinaketa) erakusten duen irudia. Hiru aldiz errepikatutako hiru esperimentu burutu ziren eta bakoitzean 10 azpilagin (5/baldintza) erabili ziren. Metilazetato/hexano bidez erauzi aurretik, azpilagin bakoitzari 50 nM 2-AG-d5 eta 2-AG estandarraren kantitate gorakorrik (5, 10, 15 eta 30 nM) gehitu zitzaiak eta laginaren $200 \mu\text{g}$ proteinan 30 minutuz metatutako 2-AGa neurtu zen. Egoera basal (○) eta m-3M3FBS ($10 \mu\text{M}$) estimulazio baldintzetan (●) lortutako 2-AG/2-AG-d5 ratioei zegozkien seinaleak normalizatu ziren eta, “hobekien-egokitutako” zuzenak kalkulatu ondoren, grafikoki adierazi ziren. Funtsean, lortutako zuzenak paraleloak ziren, baina puntu desberdinietan mozten zituzten y eta x ardatzak. B. 2-AG metaketaren analisia denboran zehar estimulatu gabeko (○) eta $10 \mu\text{M}$ m-3M3FBS bidez estimulatutako (●) nukleo osoen laginetan. Hiru aldiz errepikatutako hiru esperimentu independenteen emaitzak erakusten dira. C. 2-AG maila endogenoaren MRM kromatograma adierazgarriak. Horrelako puntu bakoitza kalkulatzeko, 2-AG-d5 estandarrari (50 nM) estimulatu gabeko (D1) edo $10 \mu\text{M}$ m-3M3-FBS bidez estimulatutako (D2) nukleo osoaren laginaren kantitate konstante eta ezaguna gehitu zitzaien.

Geroago, kaltzio askearen kontzentrazio gorakorrik erabiliz, kaltzioak 2-AG metaketan duen eragina aztertu genuen. Kaltzio askearen kontzentrazioak CaCl_2 eta EGTA kelatzailearen proportzioak aldatuz doitu ziren. Entsegu hauetan, kaltzioa 2-AG metaketa estimulatzeko gai zela argi ikusi genuen (31. irudia, A), eta efektu hori kaltzio kontzentrazioaren menpekoa zen. Hala, 2-AG metaketaren estimulazioa esangura estatistikora eta maximora heldu zen 100 nM eta $3 \mu\text{M}$ kaltzio kontzentrazioekin hurrenez hurren. Aldi berean, 2-AG metaketa asko murrizten zen baldintza basaletan (3mM EGTA dagoenean, CaCl_2 gehitu barik) (31. irudia, A). Kaltzioak eragindako 2-AG metaketa

erregresio ez-lineala bidez aztertuz, eragin maximoaren erdia lortzeko behar den kaltzio kontzentrazioa 350 nM ingurukoa dela kalkulatu genuen (31. irudia, A).




30. irudia. A. Arratoi kortexeko nukleo osoetan 30 minutuz neurututako m-3M3FBS-ren kontzentrazioarekiko 2-arakidonil-glizerolaren (2-AG) metaketaren menpekotasuna. Baldintza basaletan, 2-AGren metaketaren balioa, 67.1 ± 0.7 pmol proteina nuklear totalen mg bakoitzek zen. 2-AG metaketa, m-3M3FBS konposatuarekiko kontzentrazio-menpekorra suertatu zen: $E_{max} = 116.1 \pm 1.0$ pmol proteina nuklear totalaren mg bakoitzeko eta $EC_{50} = 5.09 \pm 0.3$ μM . B. Arratoi helduen kortexeko nukleo osoetan egoera basalean edo hurrengo konposatuen 10 μM -ekin 30 minututan zehar lortutako 2-AGren metaketa: m-3M3FBS, o-3M3FBS, edelfosina, eta THL. Balio guztiek bi aldiz egindako hiru esperimentu independenteen batazbestekoa \pm SEM dira. * $p < 0.05$, ** $p < 0.001$ bertsus dagokien balore basal edo m-3M3FBS balioak. (ANOVA adierazgarriaren ostean desparekatutako bi buztaneko Studenten t-testa).


2-AG metaketa PLC β eta DAGL aktibitate entzimatikoen menpekoia zen egiazatzeko edelfosina eta tetrahidrolipstatina (THL) inhibitzaileak erabili genituen hurrenez hurren. Edelfosinak (10 μM) %20-25 murritz zuen 2-AG metaketa basala (31 irudia, B). Gainera, 10 μM edelfosinak erabat inhibitzu zuen m-3M3FBS konposatuak eta kaltzio ioiak eragindako 2-AG metaketa, maila basalaren azpitik ere jaitsi zena (30. irudia, B; 31. irudia, B). Bere aldetik, THL (10 μM) inhibitzaileak 2-AG metaketa basala zein m-3M3FBS eta kaltzio bidezko estimulatutakoa erabat indargabetu zituen (30. irudia, B; 31. irudia, B). DAGK inhibitzaileak era berean, egoera basaleko eta m-3M3FBS bidez estimulatutako sistemaren 2-AG metaketa areagotu zituen (32. irudia).

Nukleo osoen laginetan, MAGL eta DAGK aktibitate entzimatikoeik 2-AG metaketa endogenoan izan zezaketen eragina aztertzeko asmoz, esperimentu gehigarriak burutu genituen. Horretarako, 2-AG metaketa entseguetan, MAGL eta DAGK aktibitateen inhibitzaileak diren NAM eta R59949 konposatuetako bat ala biak omititu ziren. Nabarmenki, MAGL inhibitzaileak soilik DAGK inhibitzailearekin konbinatu zenean izan zuen eragin

esanguratsua. Aitzitik, DAGK inhibitzaileak bai 2-AG metaketa basala eta baita m-3M3FBS bidez estimulatutako ere handitu zituen (32. irudia)



31. irudia. A. 2-AG metaketaren kaltzio kontzentrazioarekiko menpekotasuna arratoi helduaren garun-kortexetik isolatutako nukleo osoetan. Egoera basalean (3 nM EGTA, CaCl₂ gehitu gabe) inkubatutako nukleo osoetan, 18,8 ± 0,7 pmol 2-AG metatu ziren proteina miligramoko. Kaltzioak suspertutako 2-AG metaketa kontzentrazio-menpeko zen: Emax = 37,4 ± 0,7 pmol/mg proteina nuklear, EC₅₀ = 0,357 ± 0,08 μM. B. Kaltzio-menpeko 2-AG metaketaren inhibizioa PLCβ eta DAGL aktibitateen inhibitzaileen eraginez. Nukleo osoak kaltziorik gabe (egoera basala), 10 μM edelfosinarekin (PLCβ inhibitzailea) edo 10 μM tetrahidrolipstatinarekin (THL, DAGL inhibitzailea) inkubatu ziren. Balio denak bikoiztzen egindako hiru esperimentu independenteren batezbestekoak ± SEM dira. **p<0,001 balio bakoitzaren egoera basala versus zegokion 10 μM kaltzio bidezko estimulazioa. (ANOVA esanguratsuaren ondoren, pareatu gabeko bi buztaneko Student t-test).




32. irudia. 2-AG metaketa (pmol/mg proteina) arratoiaren garun-kortexeko nukleo osoetan, egoera basalean edo m-3M3FBS bidez estimulatutakoan. Esperimentuak inhibitzailerik gabe edo MAGL, DGK edo MAGL + DGK inhibitzaileen presentzian burtu ziren. Inhibitzaile guztiak 10 μM kontzentrazioan erabili ziren.

4. DIAZILGLIZEROL LIPASAREN AKTIBITATE ENTZIMATIKOA ETA 2-AG HIDROLISIA MATRIZE NUKLEARREAN

4.1 DAGL Aktibitate Entzimatikoa Matrize Nuklearrean

DAGL aktibitate entzimatikoa arratoi helduaren garun-kortexetik isolatutako nukleoetan neurtzeko matrize nuklear (NM) azpifrakzioa aukeratu genuen, aldez aurreko emaitzek aktibitate entzimatikorik altueneko frakzioa dela iradoki baitzuten. Esperimentu guztietan, 1-estearoil-2-arakidonil-sn-glizerol (SAG) DAG espezia erabili genuen DAGLren substratu gisa. DAGL_a isozimaren K_M aparentea $158 \pm 24 \mu\text{M}$ izanik (Shonesy et al., 2013), baldintza esperimental optimoak ezartzera bideratutako hasierako esperimentuetan, SAG kontzentrazioa $200 \mu\text{M}$ -ean finkatu genuen, Shonesy eta kolaboratzaileek (2013) kalkulatutako K_M baliotik hurbil hain zuen ere. 2-AG ekoizpenak joera lineala zuen matrize nuklearreko proteina kantitatearekiko 5 eta $10 \mu\text{g}$ bitartean (33. irudia, A) eta, denboran zehar ere, linealtasuna mantendu zen 5 eta 45 minutu bitartean (33. irudia, B). DAGL aktibitatea kontzentrazio-menpekotasuna erakutsi zuen ditiotreitol (DTT) agente ereduktorearekiko 2 eta 10 mM tartean, kontzentrazio optima 10 mM izan zela (34. irudia, C). TX-100 (%0,1) detergente ez-ionikoaren eragina aztertu genuenean DTT kontzentrazio gorakorretan, DAGL aktibitatearen menpeko 2-AG emaria nabarmen inhibitzen zuela ikusi genuen (33. irudia, C). Erreakzio-baldintza optimoetan ($10 \mu\text{g}$ proteina, 15 min, 10 mM DTT), $200 \mu\text{M}$ SAG substratua emanda, THL ($10 \mu\text{M}$) inhibitzaileak 2-AG ekoizpena erabat indargabetu zuen (33. irudia D). Batere AA metaketarik ikusi ez baguen ere, aktibitate hidrolitikoek 2-AG metaketan eraginen bat izan zezaketen baztertzeko, entseguak MAGL eta ABHD6 entzimen inhibitzaile selektiboen presentzian ere burutu genituen. Entsegu horietan, MAGL entzimaren NAM ($10 \mu\text{M}$) eta JZL184 ($10 \mu\text{M}$) inhibitzaileek batere eraginik ez zutela ikusi genuen eta ezta ere WWL70 ($10 \mu\text{M}$) ABHD6 entzimaren inhibitzaileak (33. irudia, D). Bestalde, aktibitate ziklooxygenasak 2-AG metaketan izan zezakeen eragina baztertzeko, R-flurbiprofeno (R-FB) inhibitzailea erabili genuen. Berriro ere, ziklooxygenasa-2 (COX2) entzimaren inhibitzaile selektibo horrek ez zuen inolako eraginik izan 2-AG metaketan (33.

irudia, D). Serina-hidrolasen eta COX2 entzimaren inhibitzaile selektiboak aukeratzeko, aldez aurretik argitaratutako datuetan oinarritu ginen (Saario et al., 2005; Li et al., 2007; Blankman et al., 2007; Bin Pan et al., 2009; Navia-Paldanius et al., 2012). Matrize nuklear laginetan finkatutako baldintza esperimentalaletan, DAGL aktibitatearen ondorioz sortutako 2-AGa degradatzen ez zenez, 2-AG metaketaren neurketa DAGL aktibitatearen zinetika entzimatikoa aztertzeko egokia zela ondorioztatu genuen.




33. irudia. Garun-kortexeko nukleo osoen matrize nuklear (NM) laginetan, DAGL aktibitatearen menpeko 2-AG emaria neurtzeko optimizazio entseguak. Substratu gisa 200 µM 1-estearoil-2-arakidonil-sn-glizerol (SAG) erabili zen. **A.** 2-AG metaketaren linealtasunaren azterketa NM proteina kantitatearekiko. **B.** 2-AG metaketaren linealtasunaren azterketa denborarekiko. **C.** Ditiotreitol (DTT) agente erreduktorearen eta TX-100 detergentearen eragina DAGL aktibitatearen menpeko 2-AG emarian. **D.** MAGL eta ABHD6 serina-hidrolasen eta COX2 ziklooxigenasaren inhibitzaileen eragina DAGL aktibitatearen menpeko 2-AG metaketan. NM laginetan, 2-AG emaria DAGL aktibitatearen menpeko dela egiazatzeko, tetrahidrolipstatina (THL) inhibitzaile ez-selektiboa erabili genuen. Serina-hidrolasen eta COX2 inhibitzaile selektiboak honako hauek izan ziren: □MAGL (10 µM N-arakidonilmaleimida -NAM- eta 10 µM JZL184); ABHD6 (10 µM WWL70), COX2 (10 µM R-flurbiprofeno, R-FB).

DAGL aktibitatearen menpeko 2-AG emaria neurtzeko baldintzak behin optimizatuta, DAGL aktibitate entzimatikoaren konstanteak zehazteko entseguak burutu genituen NM laginetan. Horretarako, SAG substratuaren kontzentrazio gorakorrak erabili genituen 30-500

μM tartearen, eta sortutako 2-AGaren garapen-kurbak Michaelis-Menten ekuaziora egokitzen genituen (34. irudia). Horrela, Michaelis-Menten konstantea (K_M) eta erreakzio entzimatikoaren abiadura maximoa (V_{max}) kalkulatu genituen. Lortutako balioak honako hauek izan ziren: $K_M = 179,8 \pm 15,8 \mu\text{M}$ eta $V_{max} = 1,3 \pm 0,22 \text{ pmol}/\mu\text{g proteina}/\text{min}$ (batezbestekoak \pm SEM). Kalkulatutako K_M balioa bat dator aldez aurretik DAGL α gainespresatzen duten zelulen mintzetan aurkitutakoarekin (Shonesy et al., 2013), 2-AG emariaren erantzulea DAGL α isozima dela iradokitzen duena. Ordez, espero litekeen bezala, nukleo matrizean guk kalkulatutako V_{max} balioa Shonesy eta kolaboratzaileek (2013) aipatutako sistema zelularren mintzetan ikusitakoa baino nabarmen txikiagoa da ($1,3 \pm 0,22$ vs. $9,8 \pm 1,1 \text{ pmol}/\mu\text{g proteina}/\text{min}$).


34. irudia. 2-AG emariaren zinetika entzimatikoaren azterketa garun-kortextetik isolatutako nukleo osoen NM frakzioan. SAG substratua 30-500 μM tartearen zeuden sei kontzentrazio gorakorretan eman zen eta sortutako 2-AGa LC/MS bitartez neurtu zen. Ondoren, Michaelis-Menten zinetikara egokitzten ziren garapen-kurbetatik Michaelis-Menten konstantea (K_M) eta erreakzio entzimatikoaren abiadura maximoa (V_{max}) kalkulatu ziren. Irudian, entsegu adierazgarri batetik ateratako kurba erakusten da. Hiru neurketen batezbesteko \pm SEM kalkulatu zen puntu bakoitzeko. 2-AG emaria $\text{pmol}/\mu\text{g proteina}/\text{min}$ unitateetan espresatzen da. Erakutsitakoa bezalako hiru entsegu independente burutu ziren.



4.2 Serina-Hidrolasa Aktibitatearen Menpeko 2-AG Degradazioa Matrize Nuklearrean

Matrize nuklearrean, ez dirudi DAGL bidezko hidrolisiaz ekoiztutako 2-AGa serina-hidrolasen erasoa jasotzen duenik. DAG exogenotik ekoiztutakoko 2-AG maila neurtu genuenean, batetik, ez genuen AA ekoizpenik antzeman eta, bestetik, serina-hidrolasen inhibitzaile selektiboek ez zuten batere eraginik 2-AG metaketan (33. irudia). Dena den, ikusitakoa gure entsegu-baldintzetan sortutako 2-AGa monoazilglizerol lipasa (MAGL) aktibilitatedun entzimen eskura ez egotearen ondorioa izan liteke. Baitere, lortutako 2-AG kontzentrazioak ($2 \mu\text{M}$ inguru) txikiegiak izan litezke MAGL aktibitatea pizteko. Beraz,

matrize nuklearrean serina-hidrolasa aktibitatea dagoen ala ez zalantzarik gabe zehazteko, NM laginari gehitutako 2-AG exogenoaren hidrolisia aztertu genuen. Horretarako, 2-AG (10 μM) eta bere 1-AG (10 μM) isomeroa substratu exogeno gisa erabili genituen, eta AA emaria LC/MS bidez neurtu genuen. Esperimentuak DAGL aktibitatea neurtzeko erabilitako baldintza esperimental berdinatan burutu ziren, inkubazio denbora salbu, oraingoan 30 minutura luzatu genuena. Entseguen emaitzek 2-AG eta 1-AG substratu exogenoetatik ekoiztutako AA emaria nabarmena zela erakutsi zuten, gehitutako substratuaren %20 ingurura heldu baitzen (35. irudia).



35. irudia. Arratoi helduaren garun-kortexetik isolatutako nukleo osoen matrize nuklearrean metatutako AA. 10 μg proteina barne zuten NM laginak 30 minutuz inkubatu ziren eta 2-AG (10 μM) eta 1-AG (10 μM) substratu exogeno gisa erabili ziren. Gainerako baldintzak DAGL aktibitatearen neurketetan erabilitako berdinak izan ziren. Ekoiztutako AA produktua LC/MS bidez neurtu zen. Barra bakoitzak hiru entsegu independenteatik ateratako balioen batezbestekoa \pm SEM adierazten du.


4.3 2-AG Degradazio-Entzimen Espresioa Garun-Kortexetik Isolatutako

Azpifrakzioetan

Gorago azaldu den bezala, matrize nuklearrean DAGL aktibitatearen menpeko 2-AG ekoizpenaren K_m balioa bat dator mintzean aztertutako DAGL α isozimaren ezaugarri zinetikoekin (Bisogno et al., 2003; Pedicord et al., 2011; Shonesy et al., 2013; van der Wel et al., 2015). Aldi berean, MAGL aktibitate nabarmena aurkitu genuen garun-kortexeko matrize nuklear laginetan. Matrize nuklear laginetan egindako entseguetan, aktibitate horrek DAGL menpeko 2-AG metaketan eraginik ez duela ikusi badugu ere, garrantzitsua izan liteke baldintza fisiologikoetan. Ideia hau abiapuntu hartuta, matrize nuklear laginetan AA ekoizpenaren erantzule izan litekeen entzimen expresioa arratoiaren garun-kortexetik isolatutako nukleo osoetan aztertu genuen, eta expresio hori beste frakzio azpizelularretan dagoenarekin alderatu genuen. Horretarako, FAAH, monoazilglicerol lipasa (MAGL) eta α/β hidrolasa domeinudun proteina 12 (ABHD12) *immunoblot* bidez aztertu ziren arratoi

helduaren garun-kortexetik isolatutako frakzioetan: homogenatua (WH), nukleo osoak (N), mintz plasmatikoa (P2), mikrosomak (P4) eta zitosola (S4). Frakzio berdinatan, ziklooxygenasa-2 (COX2) entzimaren expresioa ere aztertu genuen, 2-AG endokannabinoida prostaglandina glizerol esterrak (PGG₂-G) emateko bihur dezakeen enzima izanik (Straker et al., 2011), garrantzi handia izan bailezake baldintza fisiologikoetan. Garun-kortexeko homogenatuaren zatikatzearen egokitasuna aztertzeko asmoz, frakzio desberdinatako proteinak SDS-PAGE bidez erresolbitu genituen eta Coomassie urdin tindatzalearekin markatu genituen. Hala tindatutako poliakrilamida-gelean, frakzio guztien proteina karga berdintsua zela argi ikus zitekeen. Aitzitik, desberdintasun nabarmenak ikus zitezkeen polipeptido-profiletan (36. irudia, A). Argi ikusi daitekenez, histonei dagozkien banden aberaste nabarmena zegoen N frakzioan. Fase-kontraste mikroskopiaz, nukleoent egitura-osotasuna eta N laginaren purutasuna egiaztatu genuen (36. irudia, B). Frakzio bakoitzean, berreskuratutako proteina kantitatearen azterketak homogenatua, gehienbat, zitosolera ($3,22 \pm 0,30$ mg/100 mg ehun) eta mintz plasmatikora ($2,58 \pm 0,11$ mg/100 mg ehun) zatikatzen zela erakutsi zuen. Mikrosometara ($0,72 \pm 0,15$ mg/100 mg ehun) eta, bereziki, nukleo osoetara ($0,08 \pm 0,02$ mg/100 mg ehun) nabarmen proteina gutxiago zatikatu zen (36. irudia, C). Ondoren, frakzio markatzaile espezifikoak erabiliz, laginak *Western blot* bidez aztertu genituen eta prozeduraren egokitasuna zalantzak gabe balioetsi genuen (36. irudia, D). Hala H3 histona eta NeuN/Fox-3 proteina nuklearrei zegozkien bandak N frakzioan besterik ez ziren agertu. Beriz, mintz zelularren markatzaileen (Na^+/K^+ ATPasa eta Thy-1) seinale biziak antzeman zitezkeen P2 eta P4 mintzetan. Erretikulu endoplasmikoaren argian kokatzen den GRP78/BiP txaperonaren aurkako antigorputzak seinale indartsua eman zuen P4 frakzioan eta, neurri txikiago batean, N frakzioan. GRP78/BiP-seinalearen zatiketa espero ziteekenarekin bat dator, gorago azaldu dugun bezala, P4 mikrosomak erretikulu endoplasmikoan aberastuta baitaude eta, nukleo-estaldura erretikulu endoplasmikoaren hedapena besterik ez baita. Halere, mintz plasmatikoetan ere GRP78/BiP-seinale argia ikus zitekeen, neurri batean, P2 frakzioa erretikulu endoplasmiko mintzetan kutsatuta dagoela iradokitzen duena. S4 frakzioan agertu

zen GRP78/BiP-seinale ahula, seguruenik, homogeneizazio mekanikoak eragindako erretikulu endoplasmiko mintzen apurketa eta proteina solugarrien (GRP78/BiP barne) askapenaren isla da. Azkenik, β -tubulina-immunoerreatkibitate oso bizia zen S4 frakzio zitosolikoan, P3 eta P4 mintzetan oso ahula zen bitartean (36. irudia, D).




36. irudia. Arratoi helduaren garun-kortexetik lortutako azpifrakzioen karakterizazioa. **A.** Coomassie-urdina tindatzailearekin tindatutako SDS-PAGE. Homogenatu oso (WH), nukleo oso (N), mintz plasmatiko (P2), mikrosoma (P4) eta zitosol (S4) azpifrakzioen proteina kantitate berdina kargatu zen kale guztieta. **B.** Nukleo osoen azterketa Fase-kontraste mikroskopioa bidez. Eskala-barra: 20 μ m. **C.** Arratoi helduaren garun-kortexetik isolatutako N, P2, P3 eta S3 frakzioetara zatikatutako proteina kantitateak erakusten duen barra-grafikoa. Y-ardatzean 100 mg kortexetik berreskuratutako proteina kantitatea (mg) adierazten da. Balioek batezbesteko \pm SEM adierazten dute ($n=3$). **D.** Frakzionamendua balioesteko, WH, N, P2, P4 eta S4 laginen *immunoblot* analisia. Frakzioen proteina kantitate berdinak migratu ziren eta domeinu azpizelular desberdinietako proteinen kontrako antigorputzak erabili ziren markatzaile gisa: nukleo, H3 Histona eta NeuN/Fox-3, mintz plasmatikoa, Na⁺/K⁺ ATPasa eta Thy-1; erretikulu endoplasmatikoa, GRP78/BiP; zitosola, β -tubulina.

MAGL, FAAH, ABHD12 eta COX-2 degradazio entzimen aurkako antigorputzek proteina horien masa molekular teorikoarekin (35,5; 63,6; 41,4-45,1 eta 69,2 kDa hurrenez hurren) bat zetozen bandak detektatu zituzten WH laginetan (37. irudia, A). ABHD12ren karboxi muturreko azken 13 aminoazidoen aurkako ahuntz-antigorputz poliklonalak bi banda immunoreaktibo indartsu detektatu zituen, beharbada ABHD12 entzimaren 1 eta 3 *splice* aldaerei dagozkienak. Beheko bandaren migrazioa ABHD12-3 aldaeraren masa molekulararekin (41,4 kDa) bat zetorren bitartean, goiko bandak 50 kDa-eko estandarraren apur bat gainetik migratu zuen, hau da, nabarmen gorago ABHD12-1 aldaerari dagokion masa molekular teorikoa (45,6 kDa) baino. Beste sekuentzia immunogeniko baten aurka sortutako bi untxi-antigorputz monoklonalek (abcam ab182011 eta ab182011; Cambridge, UK; BD Transduction Laboratories, San Diego) banda bikote berdintsua ematen dutenez, guk erabilitako antigorputzak detektatu zituen bi bandak espezifikotzat jo genituen (37. irudia,

A). COX2 entzimaren markaketa banda multzo bat eman zuen. Bandarik baxuenaren migrazioa bat zetorren COX2 entzimaren masa molekular teorikoarekin, eta pixka bat gorago zeudenak COX2 sekuentzian dauden glikosilazio leku anitzen presentzia adieraz zezaketen (37. irudia, A). Nabarmenki, MAGL-, ABHD12- eta COX2-seinale indartsuak detektatu ziren nukleo osoen N frakzioan. Berriz, WH laginetan aurkitutakoarekin alderatuta, ABHD12 eta COX2 banden migrazioa apur bat desberdina zen N frakzioan. Hala, N frakzioan, ABHD12 bandak WH laginetan eta P2 mintzetan baino 5 kDa inguru gorago migratu zuen, beharbada nukleoan gerta litezkeen proteinaren itzulpen osteko eraldaketaren ondorioz. Nukleo osoen laginetan, WH eta P2 laginetan ez bezala, COX2 entzimaren masa molekular teorikoarekin bat zetorren banda argi bakarra antzeman zitekeen (37. irudia, A).

MAGL, FAAH, ABHD12 eta COX2 entzimen zatiketa azpizelularren analisi erdikuantitatiboa frakzio dentsitometriaz burutu zen (37. irudia, B) Horretarako, P2 laginen kantitate gorakorrez kargatutako kaleetan detektatutako banda immunorreatkiboen dentsitate optikoa (OD) neurtu ondoren, kurba estandarrak sortu genituen erregresio lineal bidez. Azertutako lau entzimen kasuan, kurba estandarren analisiak P2 proteina kantitatea eta lortutako OD balioen arteko erlazio lineala erakutsi zuen ($R^2 = 0,98 \pm 0,006$ SEM) eta, beraz, maldek entzimen espresioa azpifrakzioetan kalkulatzeko balio zuten (37. irudia, B). Azpifrakzioetako banda errektiboen OD balioak kurba estandarretan intersektatu genituen eta, P2 laginarekiko espresio erlatiboa kalkulatu genuen WH, N, P2, P4 eta S4 laginetan. Azkenik, balio guztiak homogenatuetan (WH) kalkulatutako espresioarekiko normalizatu genituen (37. irudia, B). Analisi hau burutu ondoren, MAGL, ABHD12 eta COX2 nukleo osoetan espresatzen direla ondorioztatu genuen. Are gehiago, homogenatuak erreferentzia hartuta, nukleo osoak MAGL entziman oso aberastuta zeuden eta, neurri txikiago batean, ABHD12 eta COX entzimetan (37. irudia, B).




37. irudia. MAGL, FAAH, ABHD12 eta COX2 entzimen expresio analisia arratoi helduaren garunkortexetik isolatutako homogenatu (WH), nukleo oso (N), mintz plasmatiko (P2), mikrosoma (P4) eta zitosol (S4) frakzioetan. **A.** MAGL, FAAH, ABHD12 eta COX2 entzimen *immunoblot* adierazgarriak. Frakzio bakoitzetik 20 µg proteina migratu ziren aldi berean. Espresioaren analisi erdikuantitaboa egiteko, P2 frakzioaren proteina kantitate gorakorrik kargatu ziren (5-40 µg) estandar kurbak sortu ahal izateko. **B.** P2 frakzioan, MAGL-, FAAH-, ABHD12-, eta COX2-seinale immunoreaktiboen dentsitate optiko (OD) balioetatik sortutako kurba estandarrak. Dentsitate optiko (OD) balio guztiak, P2 proteinaren karga handienean lortutako balioarekiko normalizatu ziren. Grafiketan, erregresio linealaren bidez lortutako erlazio-koefizienteak (R^2) adierazten dira. MAGL, FAAH, ABHD12, eta COX2 entzimen expresio erlatiboa azpifrakzio desberdinietan eskuineko barra-grafiketan erakusten da, WH frakzioan kalkulatutako expresioarekiko normalizatuta (%100, marra etena). Grafiketan adierazitako balioak lau esperimentu independenterentz batezbestekoak \pm SEM (n=4), FAAH entzimaren kasuan izan ezik (n=2).

4.4 2-AG Degradazio-Entzimen Konpartimentazio Azpinuklearra

4.4.1 Immunofluoreszentzia Bikoitza eta Bereizmen Handiko Mikroskopia Analisiak


MAGL, ABHD12 eta COX2 arratoi helduaren garunkortexeko nukleo osoetan expresatzen direla behin ikusita, immunofluoreszentzia eta bereizmen handiko mikroskopia bidez, entzima horiek neuronen edo/eta glia zelulen nukleoetan expresatzen diren aztertu genuen. Horretarako, immunofluoreszentzia bikoitza entseguetan, MAGL, ABHD12 edo COX2 entzimen aurkako antigorputzak NeuN/Fox-3 aurkako antigorputzekin konbinatu genituen. Hiru entzimen aurkako antigorputzek seinale bizia eman zuten NeuN/Fox-3 positibo ziren nukleo ertain eta handietan. Ostera, NeuN/Fox-3 negatiboak ziren tamaina txikiagoko nukleoetan, MAGL- eta ABHD12-immunoreaktibitatea ezin bereiz zitekeen hondo-zaratatik. COX2-immunomarkaketa indartsua ikusi genuen tamaina handiko nukleo NeuN/Fox-3

positiboetan. Tamaina txikiagoko nukleo NeuN/Fox-3 positiboetan eta nukleo NeuN/Fox-3 negatiboetan COX2-seinalea ahulagoa bazeen ere, argi antzeman zitekeen (38. irudia).




38. irudia. Arratoi helduaren garun-kortextik isolatutako nukleo osoen mikroargazkiak. MAGL, ABHD12 eta COX2 entzimen (A-C) eta NeuN/Fox-3 *splicing* faktorearen (D-F) immunomarkaketa kromatina-tindaketarekin (G-I) konbinatuta. Nukleo NeuN/Fox-3 positibo guztiek MAGL, ABHD12 eta COX2 espresatzen zuten (gezi-punta beteak). Nukleo NeuN/Fox-3 negatiboetan (gezi-punta hutsak), soilik COX2-seinalea aurkitu zen. Eskala-barra: 20 µm.


Jarraian, MAGL, ABHD12 eta COX2 entzimen banaketa azpinuklearra eta DAGLa-rekiko kokapena aztertu genuen. Horretarako, MAGL-, ABHD12- eta COX2-immunomarkaketaren banaketa eta NPCx, NeuN/Fox-3 eta DAGLa aurkako antigorputzek sortutako seinalearen arteko erlazioa bereizmen handiko fluoreszentzia-mikroskopiaz aztertu genuen (39.-41. irudiak). MAGL eta ABHD12 entzimen markaketaren banaketa-profilak nahiko antzekoak ziren. Bien seinaleak nukleo-estalduraren azpitik eta nukleoplasman barreiatutako orban distiratsu gisa agertzen ziren, betiere kromatina tindaketa ahuleko eremuetan. MAGL- eta ABHD12-seinaleak nabarmen baina ez osorik gainezartzen ziren DAGLa-seinalearekin (39.-40. irudiak). COX2-immunomarkaketa, gehien bat, nukleo osoaren inguruko eratzun modura antolatzen zen, tamaina handiko nukleo neuronaletan bereziki indartsu markatuta eta NPCx-seinalearekin gainezarrita agertzen zena. Horrez gainera, markaketa ahulagoa eta lausoagoa ikus zitekeen nukleoplasman barrena (41. irudia).



39. irudia. MAGL (berdez) eta NPCx, NeuN/Fox-3 edo DAGLa aurkako (gorriz) immunofluoreszentzia bikoitza arratoiaren garun-kortexeko nukleoetan. Immunomarkaketa Hoechst kromatina tindaketarekin (urdinez) konbinatu zen. Mikroargazki guztiak argiztapen egituratzu (ApoTome) hornitutako fluoreszentzia-mikroskopio batekin (Carl Zeiss Axio Observer) egin ziren eta 0,24 µm-ko hiru ebaketa optikoren proiekzioak dira. Eskala-barra: 5 µm.




40. irudia. ABHD12 (berdez) eta NPCx, NeuN/Fox-3 edo DAGLa aurkako (gorriz) immunofluoreszentzia bikoitza arratoiaren garun-kortexeko nukleoetan. Immunomarkaketa Hoechst kromatina tindaketarekin (urdinez) konbinatu zen. Mikroargazki guztiak argiztapen egituratzu (ApoTome) hornitutako fluoreszentzia-mikroskopio batekin (Carl Zeiss Axio Observer) egin ziren eta 0,24 µm-ko hiru ebaketa optikoren proiekzioak dira. Eskala-barra: 5 µm.



41. irudia. COX2 (berdez) eta NPCx, NeuN/Fox-3 edo DAGLa aurkako (gorriz) immunofluoreszentzia bikoitza arratoiaren garun-kortexeko nukleoetan. Immunomarkaketa Hoechst kromatina tindaketarekin (urdinez) konbinatzen. Mikroargazki guztiak argiztapen egituratzu (ApoTome) hornitutako fluoreszentzia-mikroskopio batekin (Carl Zeiss Axio Observer) egin ziren eta 0,24 μm -ko hiru ebaketa optikoren proiekzioak dira. Eskala-barra: 5 μm .

4.4.2 Immunoblot Analisiak

MAGL, ABHD12 eta COX2 entzimen konpartimentazio azpinuklearra sakonago aztertzeko asmoz, *Western blot* bidezko analisia burutu genuen. Horretarako, Nu/RNasa frakzioa izan ezik, 3.1.1 atalean deskribatutako frakzio azpinuklearrak isolatu genituen arratoi helduaren garun-kortextetik isolatutako nukleo osoetatik. Hala, honako azpifrkzio hauek lortu genituen: nukleo osoak (N), nukleoideak (Nu); matrize nuklearra (NM), TX-100ean erauzgarri proteinak (S1/TX-100) eta DNArri lotutako proteinak (S2/DNasa). Proteina nuklear osotik, azpifrkzio bakoitzean berreskuratutako proteina portzentajea honela zatitu zen: Nu (%87,8 \pm 3,9 SD); NM (%40,3 \pm 3,9 SD); ; S1/TX-100 (%12,2 \pm 3,1 SD); S2/DNasa (%47,5 \pm 7,1 SD). SDS-PAGE bidez erresolbitutako proteinen Coomassie urdin tindaketan ikus daitekeen moduan, lotze-histonei (H1) eta muin-histonei (H2A, H2B eta H3) dagozkien banden intentsitatea nabarmen galdu zen NM frakzioan eta S2/DNasa frakzioan berreskuratu ziren, S1/TX-100 frakzioan ezin ikuz zitezkeen bitartean. Erauzketa sekuentzialaren bidez isolatutako frakzio azpinuklearrak *Western blot* bidez aztertu genituelean, espero zitezkeen konpartimentu nuklearren markatzaileetan aberastuta zeudela ikusi genuen (42. irudia, C; ikus 3.1.1 atala).



42. irudia. MAGL, ABHD12 eta COX-2 entzimen konpartimentazio azpinuklearren azterketa. **A.** Proteina nuklearren zatiketa erakusten duen barra-grafikoa. N, nukleo osoak; Nu, nukleoideak, NM, matrize nuklearra, S1/TX-100, TX-100ean erauzgarri proteinak; S2/DNasa, DNAri lotutako proteinak. Emaitzak frakzio bakoitzean proteina nuklear osotik berreskuratutako portzentajeak dira. Balioak batazbestekoa \pm SD adierazten dute ($n=2$). **B.** SDS-PAGE bidez erresolbitutako frakzioetako proteinen Coomassie urdin tindaketa (20 µg proteina/kale). **C.** Western blot analisia frakzio azpinuklearren purutasuna aztertzeko (12 µg proteina/kale). Honako frakzio-markatziale hauek erabili ziren: nukleo-estaldura, GRP78/BIP; DNAri lotutako proteinak, H3 histona; matrize neuronalala, NeuN/Fox-3; nukleoideen egitura-osotasuna, NPCx. **D.** MAGL, ABHD12 eta COX2 entzimien aurkako antigorputzak erabiliz, frakzio azpinuklearretan burututako Western blot analisia (12 µg proteina/kale).

Frakzionamenduaren egokitasuna behin frogatuta, MAGL, ABHD12 eta COX2 entzimen konpartimentazio azpinuklearra aztertu genuen (42. irudia, D). MAGL eta COX2, ia osorik, S2/DNasa eta S1/TX-100 proteinen gainjalkinetara zatitu ziren hurrenez hurren. Emaitza hauek, immunofluoreszentzia bidez lortutakoekin batera, MAGL eta COX2 DNAri lotutako eta nukleo-estaldurako proteinak direla adierazten du. ABHD12 entzimari zegozkien bi seinaleen zatitzea desberdina izan zen. Gorago migratu zuen bandak TX-100 detergente erauzketari eutsi egin zion. Ordez, nukleoideek DNasa I/0.25 M $(\text{NH}_4)_2\text{SO}_4$ gatz tratamendua jasan ondoren, seinalea S2/DNasa gainjalkinera zatikatu zen hein handi batean, matrize nuklearrean (NM) oraindik argi ikus bazitekeen ere. Beraz, goiko ABHD12 seinaleari dagokion蛋白, gehien bat, DNAri asoziatuta dago eta, hein txikiago batean, matrize nuklearrari. Ordez, 45kDa inguruko masa aparentea zuen ABHD12 banda, TX-100ekiko sentikorra zen, hari zegokion seinale indartsua S1/TX-100 gainjalkinean berreskuratu baikenuen. Halere, proteinaren zati garrantzitsu bat TX-100ekiko erresistentea zen, immunorreaktibitatearen jaitsiera eskasa antzeman baitzen nukleoideetan, DNAri lotutako proteinak solubilizatu ondoren nabarmen areagotu zen bitartean (42. irudia, D). Nabarmenki, immunoblot analisirako Nu eta S1/TX-100 frakzioen proteinak kantitate berdinak kargatu

zirenez, baina Nu jalkinean ~ 9.6 aldiz proteina gehiago berreskuratu zen S1/TX-100 gainjalkinean baino, gure emaitzek beheko ABHD12 banda immunoreaktiboa TX-100ekiko hein handi batean eresistentea dela adierazten dute. Beraz, beheko ABHD12 banda NM eta S1/TX-100 frakzioen artean zatikatzen dela ondoriozta daiteke.


Hurbilketa esperimental desberdinak erabiliz, 2-AG degradazio entzimen konpartimentazio azpinuklearraren azterketaren emaitzek NM laginetan ikusitako 2-AG hidrolisiaren erantzulea ABHD12 entzima izan litekeela iradokitzen dute.

4.5 Serina-Hidrolasa Aktibilitate Entzimatikoaren Azterketa Matrize Nuklearrean

Gorago deskribatu den bezala, 2-AG degradaziora eramatzen duen aktibilitate hidrolitiko garrantzitsua aurkitu genuen arratoi helduaren garun-kortexetik isolatutako nukleo osoen matrize nuklearrean (ikus 4.2 atala). Ustezko ABHD12-menpeko aktibilitate entzimatiko hori karakterizatzeko asmoz, entzima horren inhibitzaile selektiborik ezean, metil-arakidonil fluorofosfonato (MAFP) konposatura erabili genuen. MAFPk ABHD12 aktibilitatea potentzia handiz inhibitzen du baina, horrez gain, ABHD6 eta FAAH entzimen aktibilitatea ere indargabetzen du (Deutsch et al., 1997; Saario et al., 2004; Navia-Paldanius et al., 2012). MAFP oso eraginkorra izan zen AA emaria indargabetzeko. Hala, 10 µM 2-AG exogenotik 30 minututan metatutako AA nabarmen jaitsi zen MAFP konposatuaren kontzentrazio gorakorrak gehitu ahala (AA kontzentrazio balioak egoera basalean eta 30 nM MAFP gehitura $2,39 \mu\text{M} \pm 0,01$ eta $0,43 \mu\text{M} \pm 0,04$ izan ziren hurrenez hurren). Inhibizioak kontzentrazio-menpekotasun argia erakutsi zuen eta kalkulatutako potentzia ($\text{IC}_{50} = 1\text{nM}$) MAFP eta ABHD12 entzimaren arteko interakzioaren ezaugarriekin bat dator (43. irudia).

Laburbilduz, atalburu honetan deskribatutako ebidentzia esperimentalek, matrize nuklearrean, 2-AG hidrolisiaren erantzule nagusia ABHD12 dela adierazten dute: [i] konpartimentazio azpinuklearraren azterketaren emaitzetan ABHD12 baino ez zen aurkitu matrize nuklearrean, [ii] MAFP inhibitzaileak AA emaria potentzia handiz indargabetzen du

eta [iii] AA ekoizpena ez da sentikorra MAGL eta ABHD6 entzimen inhibitzaile selektiboekiko.



43. irudia. AA metaketaren inhibizio-kurba arratoi helduaren garun-kortexetik isolatutako nukleo osoen matrize nuklearrean. 10 µg proteina barne zuten NM laginak 30 minutuz inkubatu ziren eta 2-AG (10 µM) substratu exogeno gisa erabili zen. Gainerako baldintzak DAGL aktibitatearen neurketetan erabilitako berdinak izan ziren. Inhibitzaile gisa MAFP kontzentrazio gorakorrak (0,03-30 nM) erabili ziren. Ekoitztutako AA produktua LC/MS bidez neurtu zen. Puntu bakoitzak bi erreplikatik ateratako balioen batezbestekoa ± SD adierazten du.

VI. EZTABAIÐA

Ikerketa lan horretan, 2-AG endokannabinoidearen ekoizpen-makineriaren banaketa azpizelularra aztertu dugu arratoi helduaren garun kortexean, makineria hori neurona helduen nukleoan ere espresatzen dela agerian jarri dugula. Hala, bereizmen handiko fluoreszentzia mikroskopioa, frakzionamendu azpizelular eta *Western blot* teknikak erabiliz, DAGL α entzima nukleo neuronalen matrizean kokatzen dela frogatu dugu. Are gehiago, LC/MS bidez, zalantzak gabe frogatu dugu 2-AG ekoizpen endogenoa dagoela arratoiaren garun kortexetik isolatutako nukleo osoetan, ekoizpen hori PLC β 1 isozimak eta DAGL α -k osatzen duten seinaleztapen-ardatz baten menpekoa dela. Aurkikuntza hori oinarri hartuta, nukleo osoetatik erauzitako matrize gertakinetan, entsegu entzimatikoak burutu ditugu DAGL aktibitatearen konstanteak kalkulatzeko: Michaelis-Menten konstantea (K_M) eta erreakzio entzimatikoaren abiadura maximoa (V_{max}). Halaber, 2-AG degradazioaren aktibitate nagusien presentzia aztertu dugu eta 2-AG degradazio-entzima nagusien lokalizazioa eta konpartimentazioa deskribatu dugu; hots, monoazilgizerol lipasa (MAGL), gantz-azidoen amida hidrolasa (FAAH), α/β hidrolasa domeinudun proteina 12 (ABHD12) eta ziklooxygenasa-2 (COX2). Horien artean, ABHD12 baino ez genuen aurkitu nukleo matrizean, eta soilik ABHD familiako isozimen inhibitzaileek (baina ez MAGL inhibitzaileek) saihesten zuten 2-AG hidrolisia. Hala ere, ABHD aktibitate hidrolitikoak ez zuen eraginik DAGLk bultzatutako 2-AG emarian. Oro har, gure emaitzek DAGL α neuronalaren banaketa azpizelularri buruzko ezagutza zabaltzen dute, eta ebidentzia biokimiko eta morfologikoak eskaintzen dituzte zalantzak gabe ziurtatzeko 2-AG nukleo neuronalaren matrizean ekoizten dela. Hala, lan honek bidea ematen du nukleo neuronaletan ekoiztutako 2-AGaren zereginaren inguruko lan-hipotesiak proposatzeko.

1. DAGL α ARRATOI HELDUAREN GARUN-KORTEXEKO NUKLEOETAN ESPRESATZEN DA

DAGL α -ren banaketaren azterketari ekin aurretik, antigorputzen espezifikotasuna finkatzeko entseguak burutu genituen. Frogatutako lau antigorputz komertzialetatik, bik besterik ez zuten eman ondo deskribatutako kokapen postsinaptikoarekin (Katona et al., 2006;

Uchigashima et al., 2007) bat zetorren neuropilo markaketa. Garun-kortexeko mintz gordinetan egindako *Western blot* entseguetan, bietako bakarrak (DAGL α -Rb-Af380-1; Frontier Science Co. Ltd, Hokkaido, Japan) eman zuen DAGL α -ren masa molekular teorikoarekin bat zetorren banda argi bat. Are gehiago, garun-kortexeko frakzio azpizelularretan egindako *Western blot* entseguetan, DAGL α seinalea bere kokapen postsinaptikoarekin bat datorren frakzioan agertu zen gehien bat, dentsitate postsinaptiko markatzaleekin (PSD95 eta Shank3) eta 2-AG ekoizpen konplexuko beste osagai batzuekin (Homer eta PLC β 1) batera. Azkenik, giza DAGL α kodetzen duen plasmido batekin transfektatutako HEK293 zeluletan egindako immunofluoreszentzia eta *Western blot* entseguek DAGL α -Rb-Af380-1 untxi-antigorputz poliklonalaren espezifikotasuna berretsi zuten.

Kokapen postsinaptikoarekin bat zetorren neuropilo-markaketaz gainera, aldez aurreko ikerketetan ez-bezala (Yoshida et al., 2006; Uchigashima et al., 2007; Shimizu et al., 2013; Costa et al., 2014), immunofluoreszentzia-seinale argia aurkitu genuen garun-kortexeko eta hipokanpoko neuronen nukleoetan ere. Aurkitutako markaketa nuklearren oinarrian, erabilitako sodio sulfuro fixapenak eragindako antígeno-askatzea dagoela dirudi. Izan ere, baldintza horiek antígeno desberdinaren kontrako antígorputzen erreaktivitatea hobetzen dutela ikusi da, immunomarkaketaren banaketa profila mantentzen den bitartean (Mitchell et al., 1993). Era berean, fixapen baldintza berdinek PLC β 1 detektatzea ahalbidetu digu garun-kortexeko nukleo neuronaletan, hainbat antígenoren (GFAP, NeuN, PSD95, neurona GABAergikoen markatzaleak eta lamina B1) markaketan artefakturik eragin gabe (Montana et al., 2012). Azkenik, kortexean, hipokanpoan eta zerebeloan, gure fixapen baldintzek ematen duten DAGL α -markaketa profila aztertu eta baldintza arruntek ematen dutenarekin alderatu genuen. Aipatutako hiru egituretan, markaketaren banaketa bat dator baldintza arruntetan lortutakoarekin, salbu eta markaketaren intentsitatea nabarmen handiagoa dela eta markaketa nuklearra argi antzeman zitekeela. Emaitza hauek, garun-ebaketetan, sodio sulfuro fixapenak antígeno-askatzea efektua duela iradokitzen dute.

DAGL α -ren kokapen nuklearra berresteko, *Western blot* entseguak burutu genituen garun-kortexetik erauzitako nukleoaren gertakin gordinetan (P1 frakzioa) eta DAGL α -ri dagokion banda espezifikoak aurkitu genuen. Hala ere, erabilitako gertakina nukleoz kanpoko osagaietan nabarmen kutsatuta zegoela ikusi genuen. Izan ere, mintz plasmatikoaren markatzaile gisa, Na⁺/K⁺ ATPasa-ren α 1 azpiunitatearen aurkako antigorputz bat erabili genuenean, seinale indartsua agertu zen P1 frakzioan ere. Seguruenik, P1 frakzio nuklearra isolatzeko erabili genuen prozeduraz, nukleoez gainera, mintzik astunenak ere hauspeatu ziren. Mintz horien artean, erretikulu endoplasmiko eta Golgi-aparatuko mintzak daude, mintz plasmatikorako jariaketa bidean dauden Na⁺/K⁺ ATPasa gisako mintz-zeharreko proteina ugari dituztenak. Hori dela eta, purutasun handiko lagin nuklearra lortzea (N frakzioa) ahalbidetzen duen prozedura ezagun bat (Thompson, 1973; Dent et al., 2010; Montana et al., 2012; García del Caño et al., 2015) erabili genuen. Garun-homogenatuaren ultrazentrifugazio urrats bakar batean nukleoak isolatzea ahalbidetzen duen prozedura horrek nukleoaren osotasun estrukturala mantentzen du. Hori dela eta, horrela isolatutako nukleoei, “nukleo oso” izena eman ohi zaie. Gure laborategian isolatutako laginaren azterketa mikroskopikoak nukleoaren osotasuna egiaztatu zuen eta, halaber, nukleo osoen gertakina debris zelularrik gabekoa zela ikusi genuen. *Western blot* entseguak nukleo osoen laginen purutasuna zalantzarak gabe berretsi zituzten, ez baikenuen seinale arrastorik ere aurkitu zelularen azpidomeinu desberdinen aurkako markatzaileak erabili genituean: β -tubulina (zitosola), Na⁺/K⁺ ATPasa-ren α 1 azpiunitatea (mintz plasmatikoa), NMDA hartzailaren NR1 azpiunitatea (mintz postsinaptikoak), sinaptosomei lotutako 25 kDa-eko proteina SNAP25 (besikula presinaptikoak) eta 58 kDa-eko *cis*-Golgi proteina (Golgi-aparatuko mintzak). Horrela karakterizatutako nukleo osoen laginetan burututako *Western blot* entseguak DAGL α proteinaren banda argi bat jarri zuten agerian. Nukleo oso (N) eta mintz gordin (P2) frakzioetan aurkitutako banda nagusia DAGL α proteinaren masa molekular teorikoarekin (115 kDa) bat zetorren, nukleo osoetan aurkitutako seinalea nabarmen ahulagoa baten ere. DAGL α proteina osoaren monomeroari omen zegokion seinale horrez gainera, bestelako banda bat aurkitu zen 250 kDa-eko estandarraren azpian, hau da, espero

zitekeen masa teorikoaren pisu bikoitz ingurukoa. NT2 eredu zelularrean egindako gainespresio entseguak banda hori espezifika dela iradokitzen dute. Izan ere, migrazio profil berdineko seinalea aurkitu dugu DAGLa-HA fusio proteina gainespresatzen duten zelulen mintz laginetan, transfektatu gabeko zeluletan agertzen ez diren bitartean. Banda gehigarriaren masa molekular aparentea DAGLa-ren pisu bikotza ingurukoa izanik, homodimero bati legokiokeela espekula daiteke; jakina, DAGLa eta beste proteina baten (edo batzuen) arteko konplexua eratu izana baztertu gabe. Aipatutako seinaleez gainera, bi banda gehigarri aurkitu genituen 75 kDa-eko estandarraren azpitik. Nolanahi ere, orohar, gure emaitzek argi adierazten dute DAGLa entzima arratoi helduaren garun-kortexetik isolatutako nukleoetan espresatzen dela.

2. DAGLa GARUN-KORTEXEKO NUKLEO NEURONALEN MATRIZEAN KOKATZEN DA

DAGLa garun-kortexetik isolatutako nukleo osoetan espresatzen dela zalantzak gabe egiaztatu ondoren, DAGLa-k azpidomeinu nuklearretan duen banaketa zehazteko, azpifrakzionamendu sekuentziala eta *Western blot* analisia, eta immunofluoreszentzia bikoitza entseguak burutu genituen nukleo osoetan. Nukleo osoen azpikonpartimentuak zatikatzeko, aldez aurretik argitaratutako prozeduraren (Fey et al., 1986; Payrastre et al., 1992) aldaera bat erabili genuen. TX-100 bidezko nukleo osoen tratamenduaz, detergente ez-ionikoekiko erauzgarri diren proteinak (nukleo-estaldurako eta nukleoplasmako proteinapool bat) isolatu genituen lehenengo gainjalkinean (S1/TX-100 frakzioa), eta nukleoideak (Nu frakzioa) jalkinean. Jarraian, nukleoideak DNasa I-ekin (eta, ondoren, 0,25 M amonio sulfatorekin) edo RNasa A-rekin inkubatuz, kromatinari eta RNAri lotutako proteinak erauzi genituen, hurrenez hurren. Hala bi jalkin desberdin lortu genituen: matrize nuklearra (NM, DNAri lotutako proteinik gabea) eta RNasa A nukleoideak (Nu/RNasa, RNAri lotutako proteinik gabea); eta DNAri lotutako proteinen gainjalkina (S2/DNasa) ere gorde genuen. Horrela isolatutako nukleo osoen azpifrakzioetako proteinak SDS-PAGE bitartez banatu genituen. Coomassie-tindaketa patroian ikus zitekeenez, histonei zegozkien bandak

nabarmen galtzen ziren NM frakzioan beste jalkinekin (N, Nu eta Nu-RNasa) alderatuta. Ordez, seinalea askoz ahulagoa eta nabarmen intentsoagoa zen S1/TX-100 eta S2/DNasa frakzioetan, hurrenez hurren. Bestalde, GRP78/BiP erretikulu endoplasmikoko txaperonaren immunoblot-markaketak erakutsi zuenez, TX-100-ek eraginkortasun handiz solubilizatu zituen nukleo osoetatik detergente ez-ionikoekiko erauzgarri diren proteinak. Coomassie-urdin tindaketak bezala, *Western blot* entseguetan Histona H3 seinalea S1/TX-100 eta S2/DNasa frakzioetan bereziki aberastuta zegoela erakutsi zuten. Ordez, matrize nuklearraren markatzalea den NeuN/Fox-3 proteina NM frakzioan nabarmen aberastuta zegoen, *splicing* faktore gisa (Kee et al., 2009) nukleo barneko sare erribonukleoproteikoarekin duen loturarekin bat datorrena (Dent et al., 2010). Azkenik, frakzionamendu sekuentzialean ikusitako poro nuklear konplexuari (NPCx) dagokion seinalearen aberaste gorakorra ($N < Nu < Nu\text{-RNasa} < NM$) bat zetorren sekuentzialki erauzitako proteina kantitate gorakorrarekin. Poro nuklear konplexua detergente ez-ionikoekiko zein nukleasa bidezko digestioarekiko erresistentea izanik (Davis eta Blobel, 1986), aurkikuntza honek (kontraste-fase mikroskopioaz egiaztatzearekin batera) nukleo osotasun estrukturala frakzionamendu prozeduran babestuta mandendu zela adierazten du. Orohar, markatzailak erabiliz, nukleo osoen azpifrkzioetan egindako azterketak frakzionamendu sekuentzialaren egokitasuna egiaztatu zuen. Nukleo osoen azpifrkzioak DAGLa-ren aurkako antigorputzekin aztertu genituenean, DAGLa seinale nuklearra, hein handi batean, TX-100-ekiko erresistentea dela ikusi genuen. Hala, detergente ez-ioniko bidezko tratamenduak DAGLa-ren masa molekular teorikoari (115 kDa) zegokion seinalea eta 250 kDa inguruko banda espezifikoa (ikus eztabaida gorago) ez zituen nukleoidetatik ezabatu, banda horiek TX-100-ekiko frakzio solugarrian (S1/TX-100) partzialki berreskuratu baziren ere. Immunoblot entseguetan, aztertutako azpifrkzioen proteina kantitatea berdina izanik, askoz ere proteina gehiago berreskuratu zenez Nu frakzioan S1/TX-100 frakzioan baino ($7,6 \pm 2,8$ aldiz gehiago), detergente ez-ionikoarekiko erauzgarri den DAGLa nuklear osoaren proportzioa oso txikia dela ondoriozta daiteke. Nabarmenki, aipatutako bi DAGLa seinaleen intentsitaterik handiena NM frakzioan aurkitu genuen. Zentzu berean, RNasa A


tratamenduak DAGLa gehien erauzi zuen, entzima hori matrize nuklearreko RNArin lotuta dagoela iradokitzen duena. Lehenago ikusitakoarekin bat, bi seinale aurkitu genituen 75 kDa-eko estandarraren azpitik. Seinale horien konpartimentazioa eta esangura beherago eztabaidatuko da.

Western blot bitartez lortutako emaitzak egiaztatzeko eta DAGLa-k nukleoan duen konpartimentazioa sakonago aztertzeko asmoz, immunofluoreszentzia bikoitza entseguak burutu genituen arratoi helduaren garun-kortexetik erauzitako nukleo osoetan. DAGLa eta NeuN/Fox-3 markaketa bikoitza Hoechst kromatina-tindaketarekin konjokatu genuenean, DAGLa seinalea nukleo neuronaletan (NeuN/Fox-3 positiboak) baino ez antzeman zitekeela ikusi genuen, entzima horren expresioa neuronen nukleoetara mugatuta dagoela erakusten duena. Bereizmen handiagoarekin aztertuta, DAGLa-immunomarkaketaren kokapena bat zetorren nukleo-azpifrakzioetan burututako *Western blot* entseguen emaitzakin, seinalea gehien bat xafla nuklearraren azpiko nukleoplasman eta kromatina-tindaketa ahuleko eremuetan ikusi baikenuen. Are eta gehiago, DAGLa-seinalea, hein handi batean, NeuN/Fox-3 matrize nuklearraren markatzailearekin gainezartzen zen eta, orobat, SC-35 (*serine/arginine-rich splicing factor 35*, serina eta argininan aberatsa de *splicing 35*. faktorea) *spliceosoma*-ko nuklear speckles (“nukleo-orbanak”) deritzen markatzailearekin.

Mintz-zeharreko lau domeinu dituen proteina izanik, DAGLa nukleo-estalduran kokatuko litzatekeela aurreikusi baguenen ere, *Western blot* eta bereizmen handiko immunofluoreszentzia analisiak argi erakusten dute DAGLa, hein handi batean, matrize nuklearrean kokatzen dela eta, seguruenik, nukleoaren barneko sare erribonukleoproteikoaren osagaia dela. Hala, nukleo osoetan burututako bereizmen handiko mikroskopia analisiak DAGLa-ri zegokion immunofluoreszentzia-seinalea nukleoplasmako domeinu diskretuetara mugatuta zegoela erakutsi zuten. Era berean, DAGLa-ri zegokion immunoblot-seinale espezifika detergente ez-ioniko eta DNasa I/gatz kontzentrazio altua tratamenduekiko erauzgarria zen, matrize nuklearrean kokatzen den proteina baten banaketa-profilarekin bat datorrena (Berezney eta Coffey, 1974; Kaufmann et al., 1981;

Barrack eta Coffey, 1982)). Nolanahi ere, DAGL α gisako proteina bat matrize nuklearrean kokatzeko, lehenik eta behin, barne-mintz nuklearrera igaro eta metatu beharko litzateke. Mintz-zeharreko proteinak barne-mintz nuklearrera garraiatzeko mekanismo posibleen artean, eredurik onartuenek (44. irudia, A-C) bi urratsetako prozesu bat proposatzen dute: [i] proteinaren difusioa erretikulu endoplasmikotik kanpo-mintz nuklearrera eta, jarraian, [ii] kanpo-mintz nuklearretik barne-mintz nuklearrako garraioa, non NPCx-ko proteinek atezain gisa jokatuko luketen bi mintzen arteko kontaktu-eremuan. Erretikulu endoplasmikoaren argira ematen duen domeinu estraluminal txikia duten proteinen kasuan (<~40 kDa), garraioa difusio simplez gerta daiteke poro nuklearrean zehar. Ordez, domeinu estraluminala handiagoa duten proteinek garraio aktiboa behar dute (ikus berrazterketa; (Katta et al., 2014). Hau kontuan hartuta, DAGL α aktiboki garraiatuko litzateke nukleoaren barne-mintzera, bere domeinu estraluminala 97,2 kDa-ekoa baita. Garraio nuklear aktiboa jasaten duten proteinek nukleora barneratzeko seinale (NLS) deritzon kontsentsu-sekuentzia izaten dute. Hala da proteina zitosolikoetan eta baita mintz-zeharreko proteinetan, non NLS-a domeinu estraluminalean egon behar den funtzionala izateko. Zitosolean, NLS-ak mintz-zeharreko proteina eta importinaren baten arteko interakzioa ahalbidetuko luke, eta importinak mintz-zeharreko proteina poro nuklear konplexuan zehar eramango luke. Ondoren, importina zama-proteinatik askatuko litzateke nukleo barruan Ran-GTPasa aktibilitateari esker edo Ran-aparteko mekanismoen bidez (44. Irudia, B-C). Halako mekanismoak deskribatu dira EGFR (hazkuntza-faktore epidermiko hartzalea) familiako tirosina-kinasa aktibitadun hartzaleen garraio nuklearrean; prozesu horrek endozitosia, endosoma-sailkatzea eta COPI (*coat complex protein I*) besikula bitarteko atzera-garraioa ere behar dituela (Giri et al., 2005; Du et al., 2014). Du eta kolaboratzaileek (2014) ikusitakoaren arabera, ligando bidezko aktibazioak mintz plasmatikoko EGFR-en endozitosia eta Golgi-aparaturako translokazioa bultzatzen du, endozitosi-besikulen eta Golgi-mintzen arteko fusioa sintaxina-6 menpekoa dela. Translokazioa mikrotubulu bidezko mugimenduen bidez gertatzen da, eta EGFR eta dineinaren (mikrotubuluen proteina motorretako bat) arteko interakzioa beharrezkoa da. Mintz plasmatikotik Golgi-aparaturako translokazioa ezinbesteko aurrebaldintza da EGFR

erretikulu endoplasmikora eta nukleora atzera-garriatzeko. DAGLa-ren domeinu estraluminalean (538 eta 554 aminoazidoen bitartean) balizko NLS kontsentsu-sekuentzia bipartitoa dagoela kontuan hartuta, ulergarri litzateke DAGLa-k antzeko mekanismoak erabiltzea barne-mintz nuklearrera translokatzeko. EGFR familiako tirosina-kinasa aktibitatemendun hartzaleetarako deskribatu den bezala (Somanathan et al., 2003; Giri et al., 2005; Wang eta Hung, 2012), barne-mintz nuklearrean txertatzea ezinbesteko urratsa izango litzateke, baina ez nahikoa, DAGLa matrize nuklearrera translokatzeko. Mintz-zeharreko proteinak barne-mintz nuklearretik nukleoplasmarako iragan-mekanismoak gutxi aztertu badira ere, erretikulu endoplasmikoko Sec61 translokoiaaren β subunitatea implikatzen duen bide bat proposatu da EGFR barne-mintz nuklearretik matrizeraren translokatzeko. Izan ere, Sec61 translokoiaaren β subunitatea barne-mintz nuklearrean kokatzen da eta, bere expresioa siRNA bidez isiltzen denean, EGFR-ren populazio nukleoplasmatikoa jaisten da, barne-mintz nuklearrekoak gora egiten duten bitartean (Wang et al., 2010). Wang eta Hung autoreek (2010) endozitosi-gisako mekanismo bat implikatzen duen hipotesi interesgarria, baina nahiko espekulatiboa, proposatu dute. Hala, barne-mintz nuklearretik eratorritako besikulak matrize nuklearrera igaroko lirateke eta mintz-zeharreko proteinak besikula horien mintz bilipidikoetan txertaturik mantenduko lirateke. DAGLa-k duen lokalizazio azpinuklearren mekanismoak zehazteko, garraio-bideen disezkiora bideratutako azterketa molekularrak eta farmakologikoak beharko dira. Ondo egiaztatuko espezifikotasuna zuten DAGLa-seinaleez gainera, 75 kDa-eko estandarraren azpitik banda argi bat hauteman genuen, DAGLa-ren sekuentzia osoari zegokion seinalearekin alderatuta, DNasa eta RNasa tratamenduekiko aurkako portaera erakutsi zuena. Banda hori espezifikoa balitz, bere masa molekular aparentea 68 kDa ingurukoa izanik eta erabilitako antigorputzak DAGLa-ren karboxilo muturra ezagutzen duela kontuan hartuta, seinalea oraindik aktibilitate katalitikoa duen DAGLa-ren zati bati legokioke, baina mintz-zeharreko domeinurik gabea. Izan ere, aktibilitate katalitikorako aminoazidoak (472. eta 524. aminoazidoak) eta balizko NLS kontsentsu-sekuentzia (538 eta 554 aminoazidoen bitartean) barne edukiko lituzkeen



44. irudia. Proteinak barne-mintz nuklearrean txertatzeko proposatu diren bide nagusiak. Mintz-zeharreko proteina integralak erretikulu endoplasmikoan sintetizatzen dira eta, bitartean ala sintetizatu ondoren, erretikulu endoplasmikoaren mintzean txertatzen dira. **A.** Difusio-atzikitze ereduak, mintz-zeharreko proteinek nuklear konplexuko erreten periferikoak zeharkatzen dituzte, difusio simplez igaro daitezkeela kanpo-mintz nuklearretik barne-mintz nuklearrera. Kromatinarekin edo/eta laminarekin ezarritako interakzioei ezker, mintz-zeharreko proteina barne-mintz nuklearrean mutatutako litzateke. Eredu honetan, proteinaren garraioa poro nuklear konplexuko erreten periferikoek mugatzen dutenez, proteinaren domeinu estraluminala txikia izan behar da (<~40 kDa). **B.** Garraio-faktore ereduak NLS kontsentsu-sekuentzia duten mintz-zeharreko proteinei esleitzen zaie. Zitosolean, NLS-ak mintz-zeharreko proteina eta karioferina baten arteko interakzioa eragingo luke. Jarraian, karioferinak mintz-zeharreko proteina poro nuklear konplexuko erreten zentraletik eramango luke. Ondoren, karioferina zama-proteinatik askatuko litzateke nukleo barruan Ran-GTPasa aktibitateari esker. **C.** Seinale-sekuentzia ereduan, domeinu kargadun txiki bat egongo litzateke mintz-zeharreko proteinetan. Mintz-zeharreko proteina sintetizatzen ari den bitartean, importin- α -16 mintz-proteina (karioferin- α -ren aldaera trunkatua) domeinu kargadunari lotzen zaio eta mintz-zeharreko proteina poro nuklear konplexuko erreten periferikora eramatzen du. Barne-mintz nuklearrera igaro ondoren, Nup50/Nup2 konplexuak edo bestelako Ran-aparteko mekanismoek importin- α -16 askatzen dute. Nolanahi ere, difusio-atzikitze ereduan bezala, NLS batek ahalbidetzen du barne-mintz nuklearrako garraioa. **D.** Besikula bidezko eredu poro nuklear aparteko da. Kasu honetan, mintz-zeharreko proteina barne duen besikula kanpo-mintz nuklearretik erretikulu endoplasmikoaren argira askatuko ondoren, barne-mintz nuklearrarekin fusionatuko litzateke. **ER**, erretikulu endoplasmikoa; **INM**, barne-mintz nuklearra; **ONM**, kanpo-mintz nuklearra; **NPC**, poro nuklear konplexua. **Irudien iturria:** Katta et al., 2014.

fragmenturik txikiena 61.5 kDa-ekoa da. Beraz, oso espekulatibo gerta badaiteke ere, DAGL α -ren karboxilo muturra zatitze proteolitikoz aska liteke, hala proteina solugarrien mekanismoak erabil zitzakeela nukleora translokatzeko. Horrelako mekanismo bat deskribatu da EGFR familiako ErbB-4 tirosina-kinasa hartzailearen kasuan (Ni et al., 2001), alabaina, ez dirudi ErbB4-ren proteolisiaz arduratzen den presilina proteasak DAGL α -ren zatitzean parte har lezakeenik, presilinaren substratuak I motako mintz-zeharreko proteinak baitira. Dena den, DAGL α -ren zatitze proteolitikoa implikatzen duten mekanismoak erakargarriak izan badaitezke ere, ikerlan gehiago beharko lirateke ikusitako zatia espezifikoak den jakiteko. Edonola ere, gure emaitzek DAGL α matrize nuklearren osagaia dela aditzera ematen dute. Horrez gainera, balizko DAG-aren emaile nuklearrak (PLC β 1, PLC β 2 eta PLC β 4) nukleo osoetan espresatzen dira eta, nukleo neuronalen (NeuN-positiboak) nukleoplasman, DAGL α -ren domeinu diskretu berdintsueta mugatuta daude. Are gehiago, PIP₂- eta PLC β 1-immunomarkaketa nabarmen gainezartzen da nukleo osoen nukleoplasman (Montana et al., 2012). PLC β isozimak, beren substratu nagusia eta DAGL α konpartimentu berdintsuetaan kokatzeak PLC β -DAGL seinaleztapen ardatza nukleo neuronalen barnean jardun dezakeela pentsatzeko bidea ematen du, fosfoinositidoen zikloan parte hartzen duten aktibitate entzimatikoen eta seinaleztapen bideen kohorteari (Irvine, 2003) osagai berri bat gehituko litzaiokeela.

3. ARRATOI HELDUAREN GARUN-KORTEXETIK ISOLATUTAKO NUKLEO OSOETAN, PLCB/DAGL α ARDATZAREN MENPEKO 2-AG EMARI ENDOGENOA DAGO

Gure entsegu funtzionalek zalantzarik gabe erakutsi dutenez, fosfatidil inositol PLC (PtdIns-PLC edo PLC β) isozimen aktibazioak DAGL aktibitatearen menpeko 2-AG metaketa bultzatzen du nukleo osoetan. Jarraian eztabaidatuko den bezala, PLC β aktibitateak PIP₂ endogenoaren hidrolisiaz DAG bitartekaria ematen du eta, ondoren, PLC β -rekin konpartimentatutako DAGL aktibitateak (seguru enik DAGL α -ren menpekoa) 2-AG emari endogenoa bideratzen du (45. irudia). PLC β familiako isozimak aktibatzeko era praktiko bat bilatu nahian, m-3M3FBS edo kaltzio ioiak erabili genituen aktibatzale gisa (Bae et al.,

2003). Biak α , β , γ eta δ familietaako PLC entzimen menpeko hidrolisia sustatzeko gai badira ere, gure eta beste ikerlarien datuek neuronen nukleoan frogatutako 2-AG biosintesiaren erantzule nagusiak PLC β isozimak direla iradokitzen dute. Lehenik eta behin, ugaztunen garun-kortexean, PLC β isozimen expresioa nabarmen handiagoa da PLC γ eta PLC δ familiakoena baino (Ross et al., 1989; Tanaka eta Kondo, 1994; Kim et al., 1997; Watanabe et al., 1998; López de Jesús et al., 2006; Montana et al., 2012). Gainera, hemen ikusitako kaltzio kontzentrazioaren menpeko erantzuna bat dator PLC β isozimek *in vivo* bideratutako PIP₂ exogenoaren hidrolisiak erakusten duen kaltzioaren menpekotasunarekin (Smrcka et al., 1991; Biddlecome et al., 1996). Baitere, PLC β isozimen inhibitzaile selektiboak eraginkortasun handiz itzuli egiten du m-3M3FBS konposatuak zein kaltzioak sustatutako 2-AG metaketa (Powis et al., 1992). Azkenik, nukleo osoetan egindako immunofluoreszentzia bikoitza entseguetan lortutako emaitzetatik, PLC β familiako isozimen parte-hartzearen aldeko beste argudio indartsu bat dator. Izan ere, PLC β 1, 2 eta 4 isoformen seinaleak, DAGLa-ren seinalea bezala, matrize nuklearreko markatzaileek sortutakoarekin gainezartzen ziren hein handi batean.

Nukleoetan gerta litekeen MAGL aktibitateak 2-AGren metaketan izan lezakeen eragina saihesteko, entsegu guztiak MAGL entzimaren inhibitzailea den (Burston et al., 2008) N-arakidonil maleimida (*N-Arachidonyl Maleimide*, NAM) konposatuaren presentzian burutu ziren. Bestalde, zelula neuraletan espresatzen den (Antony et al., 2000; Antony et al., 2001) PtdCho-PLC entzimak bideratutako DAG-en ekoizpena saihesteko, PtdCho-PLCren inhibitzailea den D609 konposatura (Amtmann, 1996; Antony et al., 2001) erabili genuen. Nabarmenki, PtdIns espezieek (PLC β ren substratuak) azido arakidonikoa ohi dute glizerol eskeletoaren sn-2 posizioan, PtdCho espezietan (PtdCho-PLCren substratuak) posizio horretan urri xamarra den bitartean (Exton, 1994; Hodgkin et al., 1998). DAGL aktibitatea glizerol enborraren sn-1 posizioan dagoen azil ester lotura hidrolizatzeko selektiboa denez (posizio horretan dagoen gantz-azidoa edozein dela), batez ere PLC β isozimek emandako DAGak (baina ez PtdCho-PLC aktibitateak emandakoak) izan daitezke 2-AGren aitzindariak. Hala, PtdCho-PLC inhibitzaileen erabilerak azido arakidonikoa sn-2 posizioan duten DAG

proporzioa (eta, beraz, 2-AGren aitzindarien proporzioa) handitzea zuen helburu. Azkenik, DAG kinasek ere negatiboki eragin lezakete, 2-AG konbertsioa katalizatzen baitute azido fosfatidikoa (*Phosphatidic acid*, PA) emateko. Izañ ere, untziaren garun-kortexetik isolatutako nukleoetan, nabarmena da PA ekoizpena (Baker eta Chang, 2001) eta, hortaz, R59949 konposatura erabili genuen (45. irudia). Jiang et kolaboratzaleek (2000) *in vivo* entseguetan egiaztu dutenaren arabera, R59949 inhibitzailea oso eraginkorra da I motako kaltzioaren menpeko α, β eta γ diazilgizerol kinasa (DAGK) isozimen aktibilitate entzimatikoa blokeatzeko. Beraz, R59949 konposatuarekiko sentikor ez diren (Bunting et al., 1996; Jiang et al., 2000) bestelako DAGK isozima nuklearren (Hozumi et al., 2003) aktibilitateak 2-AG metaketan eragin lezake. Edozein kasutan, gure emaitzek argi utzi zuten I motako kaltzioaren menpeko α, β eta γ DAGK inhibitzailerik jarri ezean, 2-AGren metaketa basala esanguratsuki eta m-3M3FBS aktibatzaileak sustatutakoa drastikoki jaisten zela.

Gure helburuetarako DAG “desiragaitzen” iturri posibleetako bat, azido lisofosfatidiko fosfatasa (*Lisophosphatidic acid phosphatase*, LPP) aktibilitatea da, LPP-k DAG espeziak ekoitz bailitzake PtdCho-PLDk emandako PA erabilta. PtdCho-PLD-ren expresioa nukleo neuronaletan egiaztu denez (Kanfer et al., 1996; Antony et al., 2000), hari akoplatutako LPP aktibilitate nuklearren batek DAG ekoizpena bidera lezake, 2-AG maila basaletan eragingo lukeena (Gaveglie et al., 2011) (45. irudia). Aitzitik, aktibilitate horrek negatiboki eragingo luke estimulatutako 2-AG metaketan, LPP-k ekoiztutako DAG espezieen artean, soilik proporcio txiki bat izan bailiteke 2-AG sintesirako aitzindari, azido arakidonikoa urria baita PtdCho espezieen sn-2 posizioan (ikus eztabaidea gorago, Exton, 1994; Hodgkin et al., 1998). Nolanahi ere, 10 μM edelfosinak erabat indargabetzen zuen m-3M3FBS eta kaltzio bidezko 2-AG metaketa, 2-AG maila basalaren %20-25 inhibitzen zuen bitartean. Beraz, estimulatutako 2-AG metaketan, PtdCho-PLD nuklearrari akoplatutako balizko LPP aktibilitatea arbuiagarria da. Ordez, seinaleztapen hori 2-AG maila basalen erantzule partzial izan liteke, gure hurbilketa esperimentalak ezin zehatz badezake ere. DAGL aktibilitatearen menpeko 2-AG sintesia ez ezik, 2-AG emarirako bestelako bide batzuk proposatu dira. Hala

nola, fosfolipasa A1 eta lisofosfolipasa-PLC aktibitate sekuentzialen bidezko 2-arakidonil barne duten fosfolipidoen ekoizpena edo hainbat fosfatasek eragindako azido 2-arakidonil lisofosfatidikoaren konbertsioa (Piomelli, 2003; Sugiura et al., 2006; Bisogno, 2008). Alabaina, tetrahidrolipstatinak (THL; DAGL-ren inhibitzailea) ia erabat indargabetzen zuen 2-AG endokannabinoidearen metaketa basala zein estimulatutakoa. Horrek aipatu diren 2-AG emarirako bide alternatiboen kontribuzioa oso urria dela agerian jartzen du. Hemen aurkezten ditugun emaitzek agerian uzten dute 2-AG ekoizpena gidatzen duen PLC β /DAGL seinaleztapen-ardatza arratoi helduaren garun-kortexeko nukleo neuronalen matrizean egon badagoela (45. irudia). Are gehiago, horrekin bat datoz erabilitako hurbilketa metodologiko guztiak emandako emaitzak: [i] garun-kortexeko gertakin histologikoetan eta nukleo osoetan egindako immunofluoreszentzia bikoitza eta bereizmen handiko fluoreszentzia-mikroskopia analisiak, [ii] garun-kortexeko lagenen frakzioetan zein nukleoazpifrakzioetan burututako *Western blot* analisiak eta [iii] 2-AG ekoizpen nuklear endogenoaren entzima erantzuleak zeintzuk diren zehazteko gauzatutako entsegu funtzionalak. Are gehiago, matrize nuklearreko gertakinetan, DAGL aktibitatearen Michaelis-Menten konstantea (K_M) eta erreakzio entzimatikoaren abiadura maximoa (V_{max}) kalkulatu ditugu. Lortutako K_M balioa bat dator DAGL α gainespresatzen duten zelulen mintzetan ikusitakoarekin (Shonesy et al., 2013). Honek, *Western blot* eta immunofluoreszentzia bidez lortutako aurkikuntzak batera, 2-AG emari nuklearren erantzulea DAGL α isozima dela adierazten du. Espero litekeen bezala, matrize nuklearrean aurkitutako V_{max} balioa, gutxi gorabehera, aipatutako DAGL α gainespresio-sistema zelularrean (Shonesy et al., 2013) ikusitakoaren laurdena da.

2-AG bidezko seinaleztapenaren magnitudea ekoizpen eta degradazioaren arteko orekaren menpekoa omen da, eta oreka hori kontrolatzen duen biderik aztertuena serina-hidrolasen bidezko 2-AGren apurketa da (Karlsson et al., 1997; Dinh et al., 2002a; Dinh et al., 2004; Li et al., 2007; Blankman et al., 2007; Hashimotodani et al., 2007; Marrs et al., 2010) eta sortutako produktuak AA eta glizerola dira (Freund et al., 2003). Ikerketa gehienek garuneko 2-AGaren degradazio-enzima nagusia MAGL dela erakusten badute ere (Dinh et

al., 2002b; Dinh et al., 2004; Blankman et al., 2007), gure baldintza esperimentaletan, ez dirudi garun-kortexetik isolatutako nukleo osoetan ekoitztutako 2-AGa eskuragarri dagoenik MAGL bidezko degradaziorako. Izan ere, MAGL inhibitzaileen omisioak eragin eskasa zuen PLC β ren aktibazioaz bultzatutako 2-AG ekoizpen endogenoa. Zentzu berean, 1-estearoil-2-arakidonil-sn-glizerol DAG espezie exogenotik sortutako 2-AG metaketa (DAGL aktibilitatea) neurtu genuenean, ez genuen AA eraketaren arrastorik aurkitu matrize nuklearreko laginetan. Baita ere, MAGL inhibitzaileek (N-etilmalimida -NAM- 10 μ M eta JZL184 10 μ M) ez zuten 2-AG metaketa faboratu, eta emaitza berdinak lortu genituen α/β hidrolasa domeinudun proteina 6 (ABHD6; (Blankman et al., 2007) inhibitzen duen WWL70 (10 μ M) konposatuarekin. Ordez, matrize nuklearreko gertakinak 2-AG exogenoarekin elikatu genituenean, AA ekoizpen nabarmena ikusi genuen (emandako substratuaren %20 inguru hidrolizatu zen). Hau horrela, gure baldintza esperimentaletan, DAGL eta MAGL aktibilitateak ez daudela kateatuta iradokitzen zuen. Beharbada, gure entsegu-baldintzetan sortutako 2-AGa ez zen eskuragarria MAGLen bidezko hidrolisirako edo lortutako 2-AG kontzentrazioak (2 μ M inguru) txikiegiak dira MAGL aktibilitatea pizteko. Esaterako, α/β hidrolasa domeinudun proteina 12 (ABHD12) serina-hidrolasaren K_m 100 μ M baino handiagoa da (Navia-Paldanius et al., 2012).

Matrize nuklearrean, MAGL aktibilitatea egon badagoela ikusita, aktibilitate horren entzima erantzuleak zeintzuk izan litezkeen galdetu genion gure buruari. Garunean, MAGLz gainera, 2-AG degradatzeko gai diren beste hiru hidrolasa espresatzen dira (Dinh et al., 2002b; Dinh et al., 2004; Blankman et al., 2007), eta hirurak sinapsian kokatzen dira (Murataeva et al., 2014): gantz-azidoen amida hidrolasa (FAAH), ABHD6 eta ABHD12. Serina-hidrolasa horiek garuneko 2-AGaren degradazioan duten kontribuzioaren azterketarik zehatzena Blankmann et kolaboratzaileek (2007) burutu zuten. Autore horiek ikusitakoaren arabera, sagu garuneko mintzetan, MAGL, ABHD12 eta ABHD6 entzimek 2-AGren hidrolisian duten kontribuzioa %85, %9, eta %4-koa da, hurrenez hurren. Aztertu zuten gainerako entzima guztien artean, hurrengo hidrolasarik aktiboena FAAH dela aurkitu zuten, bere kontribuzioa soilik %1

ingurukoa bada ere. Nabarmenki, *in vivo*, bere substratu nagusia anandamida (AEA) bada ere, *in vitro* entseguetan, FAAH eraginkorra da 2-AGren hidrolasa gisa (Goparaju et al., 1998). Aipatutako lau serina-hidrolasen kokapen heterogeneoak eta expresio mailak 2-AGren hidrolisian eta seinaleztaren kannabinoide sinaptikoan duten funtzi desberdina azal dezakete neurri batean (ikus berrazterketa; (Murataeva et al., 2014). Hala, MAGL presinapsiaren (Gulyas et al., 2004) mintz plasmatikoari ahul lotuta zein frakzio solugarrian kokatzen da (Blankman et al., 2007), CB1 hartzaleen parean dagoen 2-AG degradatzeko aproposa omen dena. MAGLren aktibitateak CB1 hartzalearen menpeko epe laburreko plastizitatean garrantzi handia duela dirudi; hau da, depolarizazioak eragindako inhibizioaren ezabaketa (DSI) eta depolarizazioak eragindako kitzikapenaren ezabaketa (DSE) erantzunetan, bietan 2-AGk atzera-mezulari gisa jokatzen duela. Izan ere, MAGL genea ezabatuta duten saguetan, CB1-menpeko DSI eta DSE erantzunak luzeago mantentzen dira (Kano et al., 2009; Straiker eta Mackie, 2009). Gainera, MAGL inaktibazio farmakologiko edo genetiko osoak tonu kannabinoidea areagotzen du eta, aldi berean, CB1 hartzalearen desensibilizazioa, CB1 agonistekiko tolerantzia eta CB1 hartzaleen expresioaren jaitsiera (Chanda et al., 2010; Schlosburg et al., 2010). ABHD12 ere presinapsian kokatzen da, *pool* garrantzitsu bat Golgi-aparatuan kokatzen bada ere (Blankman et al., 2007). Presinapsian kokatzen den ABHD12 populazioak 2-AG hidrolisian parte hartzen du, bere kontribuzioa txiki xamarra bada ere (Blankman et al., 2007; Blankman et al., 2013). Hala ere, ez dirudi ABHD12k epe laburreko CB1 hartzalearen menpeko plastizitate sinaptikoan parte hartzen duenik, bere gainespresioak ez baitu DSE luzatzen hipokanpoko neurona autaptikoetan (Straiker et al., 2012). Aitzitik, ABHD12ren ezabaketa genetikoak korronte kitzikatzaile postsinaptikoak (EPSCak) moteltzen ditu, 2-AG gehiegizkoa denean, ABHD12 bere hidrolisian inplikatuta egon litekeela iradokitzen duena. ABHD12 ezabatuta zuten neurona autaptikoen kultiboa luzaro mantendu zenean, CB1 hartzaleen desensibilizazioa ikusi zen. Beraz, baldintza berezietan, ABHD12 hidrolasak 2-AGren garbiketan parte har dezakeela dirudi (Straiker et al., 2013). Aipatutako ikerlanen arabera, MAGL eta ABHD12 oso zeregin desberdinak dituzte funtzio sinaptikoan, biak 2-AG hidrolizatzeko gai eta aurresinaptikoak

izanik ere. Horren ildotik, azpimarratzeko da MAGL eta ABHD12 harreman oso desberdina dutela bigeruza lipidikoarekin. Batetik, MAGL ez bezala, ABHD12 mintz-zeharreko proteina da. Bestetik, homologia bidezko modelizazioak ABHD12ren domeinu katalitikoa bigeruza lipidikoaren aurpegi estrazelularerra ematen duela iragartzen du, MAGL bigeruza lipidikoaren aurpegi zitosolikoari ahul lotuta dagoen bitartean. Beraz, bi entzima presinaptiko horien domeinu katalitikoen kokapenak funtzió desberdintasuna baldintzatuko lukeela espekula daiteke. FAAH eta ABHD6 hidrolasei dagokienez, biak alde postsinaptikoan kokatzen diren mintz-zeharreko proteina integralak dira, eta horrek 2-AG atzera-seinaleztapenean duten eragin eskasa azalduko luke (ikus berrazterketa; (Murataeva et al., 2014)).


Arratoi helduaren garun-kortexetik isolatutako nukleo osoetan ikusitako 2-AG ekoizpen nuklear endogenoak (García del Caño et al., 2014; García del Caño et al., 2015), sinapsian bezala, metabolito horren garbiketarako degradazio-entzimak nukleoan ere koka litezkeela pentsarazten du. Berriz, sinapsia eta nukleoa estrukturalki eta funtzionalki oso urrun dauden domeinu zelularrak izanik, entzima horien espresio erlatibo mailak oso desberdinak izan litezkeela aurreikusten genuen. Beraz, aipatutako lau serina-hidrolasa horietako batzuk nukleoan ere koka litezkeelakoan, arratoi helduaren garun-kortexeko azpifrazioetan (nukleo isolatuak barne), MAGL, FAAH eta ABHD12ren expresioa *Western blot* bidez aztertu genuen. ABHD6ren expresioa ezin izan genuen aztertu haren aurkako antigorputz espezifikorik ezin izan genuelako eskuratu. Azertutako hiru hidrolasetatik, MAGL eta ABHD12 aurkako antigorputzek proteina horien masa molekular teorikoarekin bat zetozen bandak eman zitzuten nukleo osoen laginetan. Gainera, *Western blot* seinaleak intentsoagoak ziren nukleo osoen laginetan homogenatu gordinean baino, bi hidrolasa horiek nukleoetan aberastuta daudela iradokitzen duena. Are gehiago, nukleo osoen laginetan MAGL seinalea hiru bat aldiz intentsoagoa zen mintz plasmatikoen laginetan baino, ABHD12 seinalea bi konpartimentuetako laginetan parekoa zen bitartean. Sinapsiaren antzera, entzima hidrolitikoek 2-AGren degradazioan duten kontribuzio erlatiboak isoforma desberdinen kokapen azpinuklearraren menpekoa dela aurreikus litekeelakoan, MAGL eta

ABHD12ren kokapen azpinuklearra immunofluoreszentzia bikoitzaren bidez aztertu genuen. Argi eta garbi, bi entzimen kasuan, immunoerreaktibitatea nukleo-estalduraren azpian kokatzen zen eta MAGL zein ABHD12ren aurkako antigorputzek seinale bizia eman zuten nukleoplasmako gune diskretuetan, kromatina tindaketa ahuleko eremuetan. Bi immunofluoreszentzia-seinaleak ere gainezarpen handia, baina ez-osoak, erakutsi zuten NeuN/Fox-3 (matrize nuklearreko markatzailea) zein DAGLa-seinaleekin. Nukleo osoen azpifrakzioetan egindako *Western blot* entseguak informazio gehigarria eman zuten. Hala, MAGL seinalea ia erabat ezabatzen zen matrize nuklearretik DNasa I entzimarekin, ABHD12 seinalearen *pool* handi bat matrize nuklearrean iraun zuen bitartean. DAGLa matrize nuklearrean kokatzen dela kontuan hartuta (García del Caño et al., 2015), emaitza hauek ABHD12 (eta ez MAGL) nukleoan ekoiztutako 2-AGaren entzima hidrolitiko nagusia izan litekeela iradokitzen zuten, eta bat zetozén MAGL inhibitzaileen omisioak 2-AG metaketa nuklearrean zuen eragin eskasarekin. Hala ere, *Western blot* eta immunofluoreszentzia bidez lortutako emaitzetatik ateratako ondorioak berresteko, entsegu biokimikoak gehiago burutu genituen matrize nuklearreko gertakinetan. Hala, 2-AG exogenoaren hidrolisia (hau da, AA metaketa) serina-hidrolasa aktibitatedun entzimen inhibitzaile desberdinak presentzian aztertu genuen. NAM eta JZL184 MAGL inhibitzaile selektiboen presentzian lortutako emaitzak bat zetozén matrize nuklearrean ikusitako MAGL-immunoerreaktibitate ezarekin, eraginik ez baizen ikusi AA metaketan. ABHD6 expresioa, *Western blot* eta immunofluoreszentzia bitartez, ikertu ezin izan baguenen ere, ABHD6ren inhibizioak AA metaketan izan lezakeen eragina aztertzea erabaki genuen. Horretarako WWL70 inhibitzaile selektiboa erabili genuen eta, MAGL inhibitzaileek bezala, eraginik ez zuela ikusi genuen. Azkenik, ABHD12ren inhibitzaile selektiborik ezean, metil-arakidonil fluorofosfonatoa (MAFP) erabili genuen. MAFP ABHD12ren inhibitzaile indartsua da, baina ABHD6 eta FAAH entzimen gainean ere eragiten du (Deutsch et al., 1997; Saario et al., 2004; Navia-Paldanius et al., 2012). Lortutako emaitzen arabera, 10 µM MAFP erabat galarazten zuen AA emaria eta karakterizazio farmakologikoak inhibizio horren IC₅₀ 1 nM inguruan dagoela erakutsi zuen. Potentzia hori bat dator MAFPk ABHD12rekiko duen afinitatearekin. Datu horrek,

serina-hidrolasa aktibitateak MAGL eta ABHD6 inhibitzaileekiko erakusten duen sentikortasun ezarekin batera, 2-AGren hidrolasa nagusia ABHD12 dela adierazten du, are gehiago matrize nuklearrean aurkitutako serina-hidrolasa bakarra ABHD12 dela ikusita. Hala ere, *Western blot* entseguetan ikusitakoaren arabera, MAGL aberastuta dago nukleoetan eta, beraz, entzima horrek 2-AGren degradazioan parte hartu lezake nukleo osoetan. Baita ere, ikusitako DAGL eta MAGL aktibitate hidrolitikoen desakoplamendua erabilitako laginaren ondoriozkoa da. MAGL eta ABHD12 serina-hidrolasa nuklearren banaketan antzeman dugun desberdintasuna, substratu-multzo desberdinaren kontrolaren ondoriozkoa izan liteke. Mintz plasmatikoan dauden 2-AGren degradazio-entzimetarako proposatu den gisara (Blankman et al., 2007) serina-hidrolasa nuklear desberdinaren kokapen heterogeneoak 2-AG pool desberdinaren gaineko kontrolarekin erlazionatua egon liteke.

2-AGren biologian, ziklooxygenasa-2 (COX2) menpeko oxidazioa azken urteotan garrantzi gehien hartu duen bide metabolikoetako bat da. AA aitzindari gisa erabiliz, COX2 aktibitateak prostaglandina G2 (PGG_2) endoperoxido ziklikoa ematen du eta, ondoren, PGG_2 -ren erreduktioaz PGH_2 . Isomerasa espezifikoek eragin fisiologiko ugari dituzten prostaglandinak (PGD_2 , PGE_2 , $\text{PGF}_{2\alpha}$), prostaziklina (PGI_2) edo tronboxano A2 (TXA2) ekoizten dituzte (O'Banion, 1999). AA substratuaz gainera, COX2k 2-AG bihur dezake prostaglandina glizerol esterrak (PGG_2 -G) emateko (45. irudia). PGG_2 -G horietatik, aurrerago aipatutako bide metaboliko berdinen bidez, prostaglandinen (PGD_2 -G, PGE_2 -G, $\text{PGF}_{2\alpha}$ -G), prostaziklinaren (PGI_2 -G), tronboxano A2-ren (TXA2-G) glizerol esterrak ekoizten dira (Sang et al., 2007; Hu et al., 2008; Straker et al., 2011). Hainbat ikerketen arabera, COX2 bidezko konbertsioa eragin nabarmena du 2-AGk atzera-seinaleztapen sinaptikoan duen funtzioan. Esaterako, hipokanpo-xafletan COX2 aktibitatearen inhibizioak DSIren iraupena handitzen du (Kim eta Alger, 2004) eta horrek COX2-k 2-AGren atzera-seinaleztapena mugatzean parte har dezakeela iradokitzen du. Zentzu berean, Slanina eta Schweitzer (2005) COX2-ren inhibizioak CB1-menpeko erantzun kitzikatzailleen beherapena eragiten duela ikusi zuten eta, hipokanpoko neurona GABAergikoen azpipopulazio batean, DSI doitzeko MAGL eta COX2

elkarlanean aritzen direla ikusi da (Straiker eta Mackie, 2009). Edonola ere, argi dago COX2 aktibitateak eragin



45. irudia. Isolatutako nukleo osoetan 2-arakidonilgizerol (2-AG) endokannabinoidearen metaketarako fosfolipasa C β /diazilgizerol lipasa α (PLC β /DAGL α) seinaleztapen-bidearen eredu. Irudi eskematiikoan, 2-AG sintesian eta degradazioan ahalezko partaideak erakusten dira. Urdinez, lan honetan edo aurreko azterketetan egiaztatutakoaren arabera, matrize nuklearrean agertzen diren metabolitoak, entzimak eta bideak erakusten dira. Grisez, ordez, egiaztatu ez diren balizko osagaiak agertzen dira. Gure lanean erabilii ditugun aktibatzaileak gorri erakusten dira, orlegiz 2-AG metaketa baldintzak optimizatzeko erabilitako inhibitzaileak erakusten dira eta, beltzez, 2-AG metaketa nuklearra PLC β /DAGL α seinaleztapen ardatzaren menpekoa dela egiazatzeko, kontrol negatibo gisa erabilitakoak dira.

handia izan dezakeela 2-AG sinaptikoaren metaketan, eta beste horrenbeste gerta liteke nukleoan, betiere COX2 nukleoan espresatuko balitz. Berriz, gure emaitzek COX2, gehien bat, nukleo estalduran kokatzen dela eta TX-100ekiko erauzgarria dela erakutsi zuten. Beraz, aktibitate entzimatikoen kateamendurako ko-konpartimentazioa aurrebaldintza bada,

ez dirudi COX2-k 2-AG nuklearren metaketan eragingo lukeenik. Zentzu horretan, 10 µM R-fulbiprofeno (COX2 inhibitzailea) konposatuak ez zuen 2-AG metaketa faboratu DAG exogenotik sortutako 2-AG metaketa. Hala ere, gorago MAGL eta ABHD12 aktibilitate hidrolitikoetarako eztabaidatu den bezala, ezin bazter daiteke nukleo osoetan COX2 menpeko 2-AG degradazioa gerta litekeenik, hala PGG₂-Gak ekoiztuko liratekeela kateatutako PLC β , DAGL eta COX2 aktibilitate entzimatikoen ondorioz (45. irudia).

4. NUKLEO NEURONALEAN EKOIZTUTAKO 2-AG-REN AHALEZKO FUNTZIOAK

Lan honen ondorio nagusitik (hots, nukleo neuronalen matrizean, kateatutako PLC β eta DAGL aktibilitateen menpeko 2-AG ekoizpen endogenoa dagoela) itaun nagusi bat sortzen da: zein izan daiteke neuronen nukleoan PLC β eta DAGL aktibilitateen menpe ekoiztutako 2-AGaren rol fisiologikoa?. Galderari erantzuteko hurbilketa esperimentalala ezinbestekoa bada ere, hainbat hipotesi plantea ditzakegu eskura ditugun datuak aintzat hartuta. Idearik gertukoenetako bat 2-AG nuklearra konpartimentu horretako PLC β 1 nuklearri esleitutako funtzioren baten edo batzuren bitartekaria izan litekeela da. Zentzu honetan, lerro zelular desberdinatan, PLC β 1 nuklearrak ziklo zelularren kontrolean egundoko garrantzia duela demostratu da. PLC β 1 nuklearrak ziklo zelularren gainean duen eragina bere aktibilitate katalitikoaren menpekoa dela ikusi ohi da, aktibilitate horrek ziklo zelularren efektore batzuren erregulazioan dituen eraginak ezagunak direla. Haatik, PLC β 1 nuklearren aktibilitatetik sortutako bitartekari molekularrek erantzun zelularretan eta efektoreen erregulazioan duten rola ezezaguna da. Nukleoan, PLC β 1 aktibilitatea pizteko eta itzaltzeko berezko mekanismoak daude, biokimikoki ondo bereizten direnak mintz plasmatikoan dauden mekanismoetatik. Mintz plasmatikoari asoziaturik dauden PLC β isozimen suspertz-mekanismorik ohizkoena G_{q/11} proteinei akoplatutako mintz-hartzale metabotropikoen seinaleztapena implikatzen du. Hartzale horien aktibazioak G_{q/11} proteinen α-azpunitatea eta GTPren arteko konplexuaren eraketa eragiten du (G_q-GTP), eta aktibatutako G_q eta PLC β 1en arteko konplexuaren eraketak aktibilitate katalitikoa bizkortzen du. Aldi berean,

PLC β 1 berak duen GAP aktibitateak, GTP/GDP trukea katalizatuz, G α_q inaktibatzen du eta PLC β 1 isozimak bideratutako erantzunei bukaera ematen die (Wallace et al., 1991; Sallés et al., 1993a; Sallés et al., 1993b). PLC β 1 nuklearren aktibazio modurik nagusia, ordez, MAPK bitartez gertatzen da (Martelli et al., 2000; Xu et al., 2001b). Hala, IGF-1 hazkuntza-faktoreak MAPKren translokazio nuklearra eragiten du, eta kinasa horrek, S982 posizioan eragindako PLC β 1en fosforilazioaz, fosfoinositol nuklearren zikloa jartzen du abian (Xu et al., 2001b). Pizte-mekanismoaren kasuan bezala, PLC β 1 nuklearrak berezko inaktibazio mekanismoa du. Xu eta kolaboratzaleek (2001b) ikusitakoaren arabera, PIP₂-tik sortutako DAGak proteina kinasa C- α (PKCa) zitoseletik nukleora erakartzen du. PKCa-k, bere aldetik, PLC β 1 nuklearren fosforilazioa katalizatzen du S887 posizioan, eta horrek PLC β 1en inaktibazioa dakar (Xu et al., 2001b). Aktibazio eta inaktibazio mekanismo nagusiek aipatutako PLC β 1 populazio biak biokimikoki ondo bereiztea ahalbidetzen badu ere, mintzen eta nukleoko PLC β 1 populazioek, entsegu-tutuan bada ere, Ca²⁺ ioien bidezko aktibazioa partekatzen dute (Sallés et al., 1993a; Sallés et al., 1993b; García del Caño et al., 2015), hemen aurkeztutako emaitzak). Beraz, mintzean bezala (Hashimoto-dani et al., 2005), kaltzioa beharrezko kofaktorea izan liteke PLC β 1en aktibazioan eta, beraz, kaltzio korronte nuklearrak garrantzitsuak izan litezke fofoinositol nuklearren metabolismoa doitzeko.

Nolanahi ere, PLC β 1 isozimaren *pool* nuklearrak proliferazioa edo diferentziazioa bultzadeari testuinguru zelularren arabera. Esaterako, sagu-eritroleuzemia (MEL) lerroaren kasuan, PLC β 1 isozimaren *pool* nuklearra mitogenikoa da eta hazkuntza-faktoreek estimulatutako proliferazioa bultzatzen du. Proliferazioan eta DMSOk eragindako diferentziazioan dauden MEL zeluletan, PLC β 1 aktibitatea bizkortzen eta geldotzen da, hurrenez hurren (Divecha et al., 1995). Are gehiago, MEL zeluletan, PLC β 1en gainespresioak DMSOk bultzatutako diferentziazioa geldotzen du. Berriz, efektu hori ez da antzematen PLC β 1M2b mutantea (NLS sekuentzian, nukleorako translokazioa galarazten duen K1056I,K1063I,K1070I mutazioak dituena; (Kim et al., 1996) gainespresatzen denean (Matteucci et al., 1998). MEL zeluletan, PLC β 1 nuklearrak ziklinak eta ziklinen menpeko

kinasak (cdk) modulatzen ditu, PLC β 1en gainespresioa nahikoa dela ziklo zelularren G1>S progresioa erregulatzen duten D3 ziklinaren eta cdk4 kinasaren expresioa bizkortzeko (Faenza et al., 2000a). Ondorioz, ziklina D3/cdk4 konplexuak retinoblastoma proteina (pRB) fosforilatzen du, eta horrek E2F1 transkripzio faktorearen aktibazioa eta ziklo zelularren progresioa dakar (Mittnacht, 1998). Paradoxikoki, beste testuinguru zelular batzuetan, ziklina D3 eta cdk4 ziklo zelularren gelditze eta diferentiaziorako beharrezkoak dira. Hala, hazkunde-eten egoeran dauden 3T3-L1 pre-adipozitoak, hormona tratamenduaz, berriz sartzen dira ziklo zelularrean, eta diferentiaziorako ezinbestekoa den hedapen klonal aldiari bide ematen zaio. Prozesu horretan, Cdk-zilina-E2F-Rb seinaleztapen ardatzak giltza moduan jokatzen du, E2F1en gora-erregulazio indartsua eragiten duela adipogenesiaren hasieran (Richon et al., 1997). E2F1 transkripzio faktoreak, adipogenesirako transkripzio faktore nagusia den peroxisomen proliferaziorako aktibatutako gamma hartzailaren (PPAR γ) expresioa areagotuz, adipozitoen diferentiazioa erregulatzen du (Fajas et al., 2002). Bestalde, PPAR γ expresioa bultzatzeaz gainera, cdk4 kinasa eta ziklina D3 PPAR γ -ri lotzeko eta aktibatzeko gai dira (Abella et al., 2005; Sarruf et al., 2005). Are gehiago, ziklina D3/PPAR γ interakzioaren ondorioz gertatzen den PPAR γ aktibazioa ligando menpekoa dela ikusi da (Sarruf et al., 2005). Nabarmenki, IGF-1 bidez bultzatutako 3T3-L1 pre-adipozitoen diferentiazioan, PLC β 1en lokalizazio nuklearra zein aktibilitate katalitikoa ezinbestekoak dira (O'Carroll et al., 2009). Autore horiek ikusitakoaren arabera, PLC β 1 nuklearra eta bere aktibilitate katalitikoa beharrezko da 3T3-L1 zelulen adipogenesiaren bi aldietan. Tratamenduaren ondorengo lehenengo 5 minutuetan, PLC β 1 nuklearraren erregulazioa ERK eta PKC α -ren menpekoa da, eta ez du behar PLC β 1 berria nukleora translokatzea. Tratamenduaren bigarren egunetik aurrera, PLC β 1 aktibilitatea sintetizatutako PLC β 1 berriaren translokazio nuklearraren menpekoa da eta ERK/PKC α seinaleztapenaren independentea. Aldi goiztiar zein berantiarretan izan, PLC β 1 expresioaren ezabaketak (interferentzia RNA txikien -siRNA- bidez) 3T3-L1 zelulen diferentiazioa galarazten du. Halaber, PLC β 1 aktibilitatearen inhibizioak, eta PLC β 1 aktibilitate katalitiko nuklearra eta PLC β 1en lokalizazio nuklearra galarazten duten mutanteek (PLC β 1_{S982G} -Δmk- eta M2b,

hurrenez hurren) ziklina D3/cdk4 konplexuko osagaien gora-erregulazioa eta 3T3-L1 adipozito differenziazioa saihesten dute (O'Carroll et al., 2009). Baita ere, Δmk eta M2b gainartzaile negatiboen gainespresioak PPAR γ gora-erregulazioa saihesten du. Beste eredu zelular batzuetan ere, PLC β 1 nuklearra ezinbestekoa da differenziaziorako. Hala, C2C12 sagu mioblastoetan, PLC β 1 nuklearren menpeko D3 ziklinaren gora-erregulazioa beharrezkoa da C2C12 zelulak muskulu eskeletikora differenziatzeko (Faenza et al., 2003). Tesi lan honekin erlazionatuago, gure laborategian ikusitakoaren arabera (González-Burguera et al., 2015) PLC β 1en expresioa beharrezkoa eta nahikoa da NT2 zelulen differenziazio neuronala bultzatzeko. Hala, siRNA bidezko PLC β 1en ezabaketak 1 β -arabinofuranosilzitosina (AraC) tratamenduaz eragindako NT2 zelulen differenziazio neuronala (Musch et al., 2010; González-Burguera et al., 2016) erabat galarazten du (González-Burguera et al., 2015). Zentzu berean, PLC β 1en gainespresioak NT2 zelulen differenziazio neuronala bultzatzen du AraC bidezko indukziorik gabe (González-Burguera et al., 2015).

Gorago eztabaidatutako aurrekariek agerian jartzen dute PLC β 1 isozimak proliferazioa edo differenziazioa bultzatzen. Deaxeela testuinguru zelularren arabera, eta PLC β 1 menpe aktibatutako efektoreetako batzuk partekatuta daudela proliferazioan eta differenziazioan. Diferenziazio neuronalaren testuinguruan, PLC β 1 bidezko efektu fisiologikoetan parte hartzen duten efektoreen artean, PPAR γ hartzale nuklearrak geroz eta atentzio gehiago jasotzen ari da, besteak beste, PPAR γ agonistek marraskarien ama-zelula embrionarioen differenziazio neuronala eragiteko gai direlako (Ghoochani et al., 2012). 2-AG PPAR γ -ren agonista endogenoa izanik (Raman et al., 2011), PLC β 1 nuklearraren aktibilitatea eta PPAR γ -k bultzatutako differenziazio neuronal lotzen dituen bitartekaria 2-AG izan litekeela plantea daiteke. Baita ere, 2-AG nuklearraren degradazio oxidatiboz sor litzkeen ziklopentenona glizerol esterrak (bereziki 15-deoxi-Δ^{12,14}-J₂ prostaglandinaren glizerol esterra; 15d-PGJ₂-G) PPAR γ -ren agonistak dira eta funtzio bera bete lezakete (Surh et al., 2011; Raman et al., 2011). Ideia hau oso erakargarria izanik, neurona helduen nukleo neuronaletatik lortutako

